Hezkuntzaren Normalkuntza

Aurkibidea

Hitzaurrea **7-11**
Sarrera **13-15**

Kultura eta Curriculuma **17-34**
Nola lortuko ditut janari-edariak? *24*
Nola babestuko naiz? *25*
Nola lortuko dut mundua ezagutzea eta bere material eta indarrak neure zerbitzuan jartzea? *26*
Nola lortuko dut nire antzekoen laguntza eta nola antolatu gizarte bizitza? *26*
Nola komunikatuko naiz nire antzekoekin? *26*
Nola egingo ditut atsegin eta gustokoak zaizkidan gauzak? *27*
Nor naiz ni? Zer da gizakia? Zein da bere xedea? *27*
Berezko euskal kultura eta curriculuma *28*

Ikasmateriala eta euskal curriculuma **35-70**
Ikasmaterialen definizioa eta garrantzia *38*
Euskarazko eskolaliburuen historia laburra *41*
Berezko euskal curriculumaren edukiak eta ebaluaziorako adierazleak *53*
Nola lortuko ditut janari-edariak eta osasuna? *54*
Nola babestuko naiz? *54*
Nola lortuko dut mundua ezagutzea eta bere material eta indarrak neure zerbitzuan jartzea? *55*
Nola lortuko dut nire antzekoen laguntza eta nola antolatu gizarte bizitza? *56*
Nola komunikatuko naiz nire antzekoekin? *56*
Nola egingo ditut atsegin eta gustukoak zaizkidan gauzak? *57*
Nor naiz ni, zer da gizakia, zein da gure xedea? *57*
Testuliburuen hautaketa *60*
Ikasmaterialen ebaluazioa *68*
Testuliburuaren egiturazko adierazleak *69*
Hizkuntzari lotutako adierazleak *69*
Irudiak eta hauei dagozkien adierazleak *70*

Testuliburuen azterketa **73-90**
Ikasmaterialetan agertzen den berezko euskal curriculuma ebaluatzeko tresnaren aplikazioa *75*

Normalkuntza, zenbait kontzeptu **91-144**
Garapen biologikoa eta garapen kulturala *94*
Lengoaia, komunikazioa eta hizkuntza *97*
Hizkuntza eta pentsamendua 100
Norbanakoaren hizkuntza arapena eta gizartearen hizkuntza bilakaera 107
Ikuspegi vygotskiarra *113*
Hizkuntza eta curriculuma 117
Hitzezko pentsamendua eta barne-hizkuntza *117*
Hizkuntzen arteko asimetria eta diglosia *119*
Eskolaldia eta hizkuntza garapena *121*
Hizkuntzen arteko asimetria eta eskola *132*
Galera-berreskurapen prozesua *135*

Hizkuntza prestasuna. Lexikometria 145-178
Elebiduntasunari Buruzko Testa (EBT) 152
Lematizazioa 153
Ortografia *155*
Hitz jarioa 162
Gaztelaniaren azterketa *167*
Euskararen azterketa *169*
Eremu semantikoen azterketa *172*

Prestasun hiztegiak 179-243
Euskaldunek euskaraz ekarritako prestasun hiztegi orokorra 181
Erdaldunek gaztelaniaz ekarritako prestasun hiztegi orokorra 201
Euskaldunek gaztelaniaz ekarritako prestasun hiztegi orokorra 231
Erdaldunek euskaraz ekarritako prestasun hiztegi orokorra 255
Animaliak eremu semantikoan ekarritako lehenengo 100 hitzak gaztelaniaz 265
Animaliak eremu semantikoan ekarritako lehenengo 100 hitzak euskaraz 266
Senideak eremu semantikoan ekarritako lehenengo 100 hitzak gaztelaniaz 267
Senideak eremu semantikoan ekarritako lehenengo 100 hitzak euskaraz 268
Gorputza eremu semantikoan ekarritako lehenengo 100 hitzak gaztelaniaz 269
Gorputza eremu semantikoan ekarritako lehenengo 100 hitzak euskaraz 270
Jantziak eremu semantikoan ekarritako lehenengo 100 hitzak gaztelaniaz 271
Jantziak eremu semantikoan ekarritako lehenengo 100 hitzak euskaraz 272
Natura eremu semantikoan ekarritako lehenengo 100 hitzak gaztelaniaz 273
Natura eremu semantikoan ekarritako lehenengo 100 hitzak euskaraz 274

Bibliografia 275-297

Hitzaurrea

Hezkuntza, Curriculuma, Normalkuntza

Liburu honetan goiko hiru hitz horiek agertzen dira luze-zabal aipatuak eta aztertuak. Lehenengo biak edozein herri edo giza-arduradunen kezka izan ohi dira. Hirugarrena, aldiz, gehiago agertzen da izaera propioari eusteko arazoak dituzten gizarteetan. Hots, gurea bezelakoetan. Hizkuntzaren normalkuntza, hezkuntzaren normalkuntza, giza-harremanen normalkuntza,... egunero atea joka diharduten auziak.

Normalkuntza dugularik helburu, zer hobe propio geurea dugun -liburu honetan hala uste da- horretatik hastea baino? Normalkuntzarik izango badugu, berezkotasunean eta tradizioan sustraitua beharko du egon. Horrela ulertzen ditut nik Euskal Curriculumaren inguruan liburuan barrena, egiten diren proposamenak. Propioa, edozein modutan, irakurketa litzateke, zeren jakite-edukien izaera geroz eta unibertsalagoa baita. Ezin uka irakurketa eta aukeratze propioak egiteko ahaleginak arreta osoa merezi duela (txalogarriak ezezik beharrezkoak ditugula ere). Oso ondo iruditzen zait homologazio sindromeari aurre egitea, gakoak beti kanpoan ez jartzea.

Intentzio eta ibilbide hori, propioa denetik abiatzea alegia, baliagarria gertatzen da baita ere ikas-materialaren azterketarako, ebaluaketarako, zein berrikuntza proposamenei begira. Ez da erraza ordea, azterketa horretarako baliozko izango diren irizpide edo parametroak bilatzea.

Agerikoa bezain garrantzitsua dela gordeko curriculuma ondotxo dakigun gauza da, bestalde. Eskola-liburuetakoa bezain erakargarria -gehienetan gustagarriagoa ere bai- izaten dela beste iturrietatik edaten den edaria, hori ere badakigu. Eskola inguruan ordu asko eta garrantzitsuak eman arren, handik kanpo, hala telebistaren aurrean, nola familian zein kalean emandako orduak

sarri askotan heziketarako eraginkorragoak gerta ohi direla ez dago esan beharrik. Hala ere, bati baino gehiagori modu horretan emandako orduak ez zaizkio "fidagarriak" iruditu ko, ez baitago ziurtagiririk ez titulurik tarteko. Horrela, eskolak badu lanik edukien curriculuma erabakitzerakoan, sasiaren izenean artoa ere baztertu nahi ez bada.

Gure eskoletako curriculuma asmatu behar horrek, nolanahi ere, badu, alderdi on bat. Gure zentzu kritikoa zorrozten duen heinean, aurreko curriculumen balioak erlatibizatzeko bidean jartzen gaitu. Edukiak garrantzitsuak dira, bai, ez dago dudarik, baina hauta egin beharra dago, ezinezkoa baita dena batera irakastea. Ondorengo galderak bidezkoa dirudi: zergaitik ez hautaketa desberdinak egin?

Hizkuntzaren normalkuntzari buruzkoak dira liburuan zatirik luzeenak. Zuzenekoak edo zeharbidezkoak. Haurraren, eta/edo gizakiaren hizkuntza jabekuntza prozesuaren azterketa egiten da, batetik, pentsamenduaren eta ezagutzaren garapenarekin lotzen delarik hura, eta bestetik, ukipen egoeran bizi den euskaldunaren garapenerako aukerak dira mintzagai.

Eskolaren eremura mugatuz gero, ondorengo hau genuke normalizazio bidean eman beharreko lehen pauso ebitaezina: euskara ez da, euskarak ezin du bakardadean eta isolamenduan bizi, erdaretatik aske eta aparte; esan nahi da, etorkizunean beti ere ukipenen egoeran -gertuenetik gaztelerarekin edota frantsesarekin borrokan- bizi beharko duela nahitaez.

Eta euskaldun hiztunekin ezeze, beste hizkuntzen hiztunekin ere antzeko zerbait gertatzen da: gero eta ukipen gehiago dago; ez da salbuespena beraz. Are: zenbat eta eskolatuagoa izan hiztuna orduan eta hizkuntz ukipen gehiagoren kudeatzaile bilakatuko da hura.

Bizi garen garai honetan, hizkuntz ukipena -eta hortik sortutako ondorioak- ez dago maldizio bezala hartzerik, hau da ukipenaren mamuaren pean bizi beharrik. Noski, euskarari ezina zaio ukipen egoera horretan laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik ibiltzea. Ukipena -eta zenbait "kutsapen eta mediokritate" ere bai- aitortzetik eta onartzetik hasi beharko da, identitate eta morrontzaren tarte estuan kokatzen den ibilbideari ekitetik.

Negarra eta "teoria" katastrofistak utzi beharrak dauzkagu, beraz, antzuak bezain alperrikakoak baitira, eta konponbide "praktikoetara" zuzendu beharko ditugu gure energiak. Ukipen arrakastatsu bat asmatzera hain zuzen. Eta honetan ere badugula eskarmenturik esan dezakegu. Halatan, ukipen egoera baitakoa dugu euskarazko irakaskuntza. Eta nahi duenak nahi duena esan, gero eta hizkuntza egokiagoa eta gero eta hiztun hobeak egiten ari garela esatea ez da ahoberokeria. Era berean, kazetaritza mailan ere, ahozkoan zein idatzizkoan, erantzun zehatz eta praktikoak asmatzen ari gara, agian euskara batuak -magikoki edo- ekarri ez dizkigunak. Eta hortxe ditugu, orobat, administrazioaren ahaleginak, euskara auzitegietara hedatzeko saioak, herri aldizkariak, eta beste. Erantzun propioak eta "arrakastatsuak" horiek denak. Nolanahi ere, gisa honetako jokabideak eta burubideak ditugu hemen garestienak.

ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI
Euskal Filologia Saileko Irakasle Katedraduna
Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea

Sarrera

Hezkuntzaren Normalkuntza izenburupean argitaratutako liburu honetara, azken urteotan landutako elkarren osagarriak diren ikerketen emaitzak ekarri nahi ditugu, *elebitasun/elebiduntasuna* (hizkuntza prestasuna) eta *euskal curriculumaren* arazoak hezkuntzaren normalkuntza bideab maila teorikoan zein praktikoan jorratzeko baliagarria izango delakoan. Aipatu ikerketa ildo hauek, U.P.V./E.H.U.k finantziatutakoak dira, eta nagusiak, honako izenburu hauen bitartez formulatu dira:

"*Hizkuntz eredu elebidunetan eskolatutako nerabe elebidunen hizkuntza arautzailea. Kontzeptuen eraketa eta bilakaera*".

"*Euskal Curriculum Berezia: Hezkuntzaren Berrikuntzan Kokatutako Oinarrizko Diseinu Curricularretik Eratorritako Lehen Hezkuntzako Testuliburuen Azterketa. Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko Lehen eta Bigarren mailak. Euskara eta Literatura, Gaztelera eta Literatura, Ingurunearen Ezaguera eta Matematika arloak*".

Hala ere, izenburuak berak adierazten duenez, liburua ez da ikerketa hauen emaitzen agerpenetara mugatzen. Gaur egun horren entzunak diren *euskal curriculuma,* testuliburuen auzia eta *normalkuntza* bezalako gaiei zuzen-zuzenean heldu nahi izan diegu. Beste gai batzuk, *hizkuntza prestasuna, hizkuntzen arteko ukipen egoera* edota *elebiduntasuna* bezalakoak, maila apalagoan geratzen dira. Horrek ez du esan nahi, dena den, bigarren mailakoak direnik, ezta gutxiago ere.

Gaurko euskara estandarraren abiapuntutik bertatik hasita, duela hogeitamar urte, estandarizazio prozesua, hizkuntzaren jabekuntza, hizkuntza estatusa eta euskal hezkuntzaren eraketa eta hedapena, besteak beste, euskaltzale, irakasle eta ikertzaile askoren kezka izan dira eta dira. Horri buruz egindako lan guztiak, ezagutzen ditugunak behintzat, ditugu lan honen aurrekariak. Nolanahi ere, ikerketa esparru zabal horietan Maria Jose Azurmendi Ayerbe katedradun anderearen ekarpena aipatu nahi genuke bereziki. Bere lan ugari eta oparoak ere, erreferentzia izan ditugu. Maria Jose Azurmendi irakaslearen doktore tesian (1982) aurkitu daiteke *hizkuntza prestasuna* kontzeptua Euskal Herriko hizkuntzen arteko ukipen egoerari aplikatua. Beste batzuen artean, berari ikasi diogu beraz.

Liburuaren edukiari dagokionez, hezkuntzaren esparru zabalean, kezka diren zenbait problema aztertu eta erantzunbideak aurkitzen saiatu gara. Horrek behartu gaitu ikuspegi orokorretik alderdi zehatzetara joan-etorrian ibiltzen eta, horrela antolatu dugu liburua.

Aipatu dugunez, lan honen iturri nagusia ikerketak dira. Ikerketa horiek, ez bere osotasunean, zenbait aldizkaritan eta bilkura eta kongresuetako aktetan argitaratuta daude. Ez dugu baina, liburu hau ikerketen bilduma gisa egin. Beste egitura eman nahi izan diogu. Ikerketen emaitzak, ikergai zehatzari lotzen zaizkiolarik, mugatuak izan ohi dira, eta ikuspegi orokorra interesatzen zitzaigun. Egindako ikerketek, bide batez, jakintza alor desberdinetan sakontzeko aukera paregabea eskaini digute. Hori ere, islatu nahi


izan dugu. Izan ere, problemen ebazpenetan teoriak eta kontzeptuen argitasunak berebiziko garrantzia baitute.

Urteetako eztabaida eta ikaspenen ondorioak ekarri nahi izan ditugu liburu honetara. Horrek azaltzen du, neurri batean, liburuaren egitura. Liburua bost atal nagusitan banatuta dago: *Kultura eta Curriculuma, Ikasmateriala eta Euskal Curriculuma, Testuliburuen Azterketa, Normalkuntza, zenbait kontzeptu* eta *Hizkuntza-Prestasuna Lexikometria*. Zein bere aldetik irakur daiteke baina atalen artean lotura eta elkarren arteko erreferentziak aurki daitezke.

Liburuaren izenburutzat *Hezkuntza Normalkuntza* hautatu dugu, jakitun izanik, esparru honetan gure lan hau ekarpen xume bat besterik ez dela. Funtsean, gure ustez, hezkuntzaren normalkuntza prozesuan egungo kezka nabarmenenak aztertu nahi izan ditugu.

Kultura eta Curriculuma

Atal honetan, *euskal curriculumari* eta *berezko euskal curriculumari* buruzko kontzeptuen esanahiak zehaztuko ditugu, ebaluazioaren esparrua argi kokatzeko asmotan. Hona hemen gure ustez argitzea merezi duten kontzeptu nagusiak:



Oinarrizko abiapuntuko ideologiaren arabera curriculumaren teoria ezberdinak daude. Adibidez, Kemmis-ek[1] hiru teoria nagusi bereizten ditu: teknikoa, praktikoa eta kritikoa; Ferrández-ek[2] beste hauek aipatzen ditu: eredu akademizista-humanistikoa, eredu teknologikoa, eredu humanista eta eredu kritikoa. Teoria eta eredu bakoitzaren mamian sartu gabe ere, ideologien aniztasunaren ondorioz, curriculum kontzeptuaren polisemia erraz uler daiteke.

---

1 Kemmis, S. (1988): *El curriculum: más allá de la teoría de la reproducción.* Morata, Madrid.

2 Ferrández, A. (1991): "Bases y fundamentos del curriculum" Medina, A.; Sevillano, M.L., *El curriculum: fundamentación, diseño, desarrollo y evaluación*-en, UNED, Madrid.

Horren lekuko dira, hain zuzen ere, curriculumari buruz egiten diren definizioetan azpimarratzen diren alderdi ezberdinak: irakaskuntzaren edukiak, programazioa, egiten diren esperientziak, jakintza-arloak, etab.

Aniztasun horren barruan, hala ere, badaude nahiz eta orokorragoak izan, agian horrexegatik, argigarriak diren definizioak, E. Becchi-rena[3] esate baterako. Berak dioen modura, curriculuma, instituzioen bitartez, gizatalde desberdinek garaian garaiko ezagutza eta ideiak hautatu, antolatu eta transmititzea helburu duen prozesua da.

Ildo berekoa dugu Gimeno-Sacristan-ek[4] egiten duena eta lan honetan gureganatzen duguna, ukaezinezko eta funtsezko elementu bat agertzen baitu, kultura hain zuzen ere:

"Ezinezkoa da kultur edukirik gabeko irakaskuntza, ezta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ere. Curriculuma, hain zuzen, kultur eduki horiek interpretatzeko era bat da. Aurkez daitekeen edozein hezkuntza-eredutan edo proposamenetan argi adierazi behar da egiten den curriculumaren aukera, zeren hezkuntza-eredu guztietan kultur ikuspegi jakin bat hautatzen baita. Eta gainera, ikuspegi hori gero eta gehiago azpimarratzea komeni da, izan ere gaur egun pedagogiaren alorrean psikologizismoak duen eraginez, eduki kulturalik gabeko "hutsaren pedagogia"ren antzeko zerbait nagusitzen ari baita, eta hori guztia pentsamendu aurrerazale eta zientifikoaren izenean gainera"

3 Becchi, E. (1994): "Le curriculum. D'un point de vue didactique à une perspective historique". *Histoire de l'Education*, 61.liburukia, 61-73. or.

Curriculuma, beraz, *kultur adierazpenen aukera* bezala ulertzen badugu, ikuspegi horrek kulturaren kontzeptua eta osagaiak definitzera garamatza. Ikuspegi honetatik gaur egungo curriculumari, ohiko arloetan edo zientziatan oinarritutako ezagutzaz gainera, gizarte jakin batean bizi den eta biziko den kulturaren isla izatea eskatzen zaio. Horrek, honako galdera hauek erantzutea eskatzen du: Nolako gizartean bizi gara? Nolakoa izan da gure gizartearen bilakaera historikoa? Nolakoa izatea nahi dugu etorkizunean? Nolako balio eta hastapen etikoei eman nahi zaie lehentasuna? J.M. Duart-ek dioen modura[5]:

"*Nazio baten curriculuma, irakatsi nahi denaz abiatzen da, gutxieneko edo oinarrizko edukiez; nola irakatsi nahi den, teoria pedagogiko bat edo batzuk alegia, eta batez ere, etorkizuneko herritarra nolakoa nahi dugun izatea; hau da, zeintzuk diren gizarte horrek transmititu nahi dituen berezko balioak eta, ahal izanez gero, etorkizuneko gizon eta emakumeak izango direnengan horiek errotu. Argi dago nazio baten tradizioa bereizten duena, bere kultura eta biltzen dituen balioak direla, eta hauek, besteak beste, "eskola" deritzogun eskola-instituzioak transmititu behar dituela. Gurea dena, berezkoa duguna, kultur eta nazio-bereizgarriak osatzen dutena transmititu eta irakasteko beharra dugu*".

Curriculumaren definizioan, kulturaren iraganeko, oraingo eta etorkizuneko dimentsioak eta etikaren dimentsioak uztartzen dira. Galdera hauen erantzuna garrantzi handikoa da herrialde guztietan,

4 Gimeno Sacristan, J. (1988): *El curriculum: una reflexión sobre la páctica.* Morata, Madrid, 34. or.

baina bereziki gurea bezalako kultur esparru gutxiagotuetan kokatzen diren herrientzat, izan ere gure kulturaren iraupena eta berrikuntza, neurri handi batean, eskolaren bidez ziurtatzen den oinarrizko kultura komun horren baitan baitago.

Curriculumaren ikuspegi honetatik, antropologiaren ekarpenak eragin handia dauka. Antropologiak gizakiak eta giza taldeak ikertzen ditu. Baina, antropologiaren eremu zabaletik, zeintzuk dira herri baten oinarrizko curriculuma aukeratzeko eta osatzeko baliagarriak izan daitezkeen kultur esparruak? Galdera honek erantzun ezberdinak jaso ditu eta jarraian horietako batzuk azalduko ditugu.

Lawton-ek[6], derrigorrezko irakaskuntzaren curriculum amankomuna aukeratzeko, elkarren artean lotura handiak dituzten ondoko kultur adierazpenak aipatzen ditu:

1.- Kanpoko errealitatea eta gizakia bera ulertzeko eta adierazteko ezagutza-sistemak. Ezagutza horietan oinarritzen den teknologia.

2.- Ahozkoak eta ahozkoak ez diren komunikazio-hizkuntza eta sistemak.

3.- Adierazpen estetikoaren modu ezberdinak: plastika, musika, dramatizazioa, gorputza, etab.

4.- Gizabanakoen eta taldeen premiei erantzuteko, ondasunen banaketa arautzen duen ekonomia-sistema.

---

5 Duart, J.M. (1996): "Conéixer, criticar i comprometres, o la necessitat de bastir un curriculum propi". *Escola Catalana*, 11. or.

6 Lawton, D. (1983): *Curriculum studies and curriculum planning.* Hodder and Stoughton, Londres, 31. or.

5.- Gizabanakoen eta taldeen bizitza ordenatzeko eraikitzen den gizarte-egitura: familia, gizarte-klaseak, sindikatuak, talde marjinalak, adin ezberdineko pertsonen arteko harremanak, etab.

6.- Gizartea eta esparru publikoa antolatzeko, ardurak banatzeko, gatazkak konpontzeko, ordena mantentzeko,... gobernu-sistemak.

7.- Bizitzari zentzua ematen dioten sinesmenak, arau etikoak, ideologiak, portaera moralak eta, orokorrean, balio-sistemak.

8.- Bakoitzaren izaera ulertzeko, aurrean aipatu diren kulturaren esparru horien guztien bilakaera historikoa, identitatea eta gutasuna sustatzeko.

9.- Bakoitzaren biziraupena eta orain arte aipatu diren kultur adierazpenen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ziurtatzeko sistemak.

Skilbeck-ek[7], ondoko arlo eta esperientzia-eremuak aipatzen ditu oinarrizko curriculuma osatzeko:

1.- Arte eta langintzak: literatura, musika, plastika, dramatizazioa, zurgintza, mekanika, iturgintza, etab.

2.- Ingurunea: ingurune fisiko eta naturala eta gizakiaren eragina.

3.- Arrazonamendu eta trebetasun matematikoak, eta horien aplikazioa gainontzeko zientzietan.

4.- Gizartea ulertzeko eta partaide izateko beharrezkoak diren Giza eta Kultur Zientziak.

5.- Alderdi fisiko, emozional eta mentalean eragiten duen osasun-hezkuntza.

---

7 Skilbeck, M. (1984): *School based curriculum development*. Harper and Row Publishers, 193-196. or.

6.- Ezagutza zientifiko eta teknologikoa eta horiek gizartean eta gizabanakoengan duten eragina.

7.- Ahozkoa eta ahozkoa ez den komunikazioa eta horien eragina ezagutza eta afektibitatean.

8.- Arrazonamendu morala: jokabideak, balioak, sinesmenak.

9.- Lan-esparrua, aisialdia eta bizitzeko moduak.

Bi proposamen hauen artean badago antzekotasunik, baina batez ere ezberdintasunak agertzen zaizkigu. Skilbeck-en proposamena asko hurbiltzen da, ohikoak zaizkigun curriculum ofizialetan ezagutzen dugun planteamendu akademikora. Lawton-enak, aldiz, kulturaren interpretazio zabalagoa egiten du. Azkeneko honen ildo beretsutik jarraituz datorkigu Jose Migel Barandiaran-en[8] proposamena. Proposamen hori funtsean gurea egiten dugunez, jarraian, aurrekoak baino zehaztasun handiagoz jasotzen dugu, laburtuz, baina neurri handian jatorrizkoa errespetatuz eta zenbaitetan osatuz. Testu horretan, Jose Migel Barandiaran, kulturaren definiziotik abiatzen da:

"*Herri baten kultura, giza obra bat bezala agertzen zaigu, bere egitura zeinu desberdinetako hainbat piezaz eratua egongo balitz bezala alegia. Gure kasu honetan,* ***eguneroko bizitzak planteaturiko oinarrizko arazoei Euskal Herriak ematen dizkien soluzioen multzoa litzateke***"

Zeintzuk dira eguneroko bizitzak planteatzen dituen oinarrizko arazoak? Galderen bidez formulatzen ditu Jose Migel Barandiaranek arazo horiek:

---

8 Barandiaran, J.M. (1985): *Euskal Herria: diapositiba bildumaren hitzaurrea.* SEIE taldea, G.I.E., Donostia.



Galdera hauek ez dira hartu behar bere baitan itxita dauden esparru isolatu gisa, elkarrekiko eraginean eta batak bestea baldintzatzen duen galdera modura baizik.

Nola lortuko ditut janari-edariak?

Arazo honen soluziobideak ezbairik gabe, inguruko *paisaia naturalean* du bere oinarria. Zeren eta paisaia natural honek, bere estimulu eta aukerabideekin, bide desberdinak erakutsiko baitizkio

gizakiari bere bizimoduetan, eta sistema eta erakunde ekonomiko eta sozialen lanketan. Bere ingurunean jarduten duen gizakiak aztarnak utziko ditu bertan nahitaez, berorri halako "jantzi" gizatiar bat emanez edo paisaia gizatiartu bat sortuz.

Euskal Herriko biztanleek, beste herrien antzera baina bere berezitasun propioekin, janariak lortzeko bide ugari erabili dute eta garaian garaiko egoeraren arabera elikadura-mota ezberdinaz baliatu dira; hala nola: Paleolito zibilizazioan, "harrapaketan" oinarritutako ekonomia zen nagusi; Neolito garaian, berriz, ganadua heziz, larreak probetxatu eta batetik bestera ibiltzekoa zen bizimodua. Aurrera joan ahala, janariak lortzeko, lurra landu edota arrantzan egin ohi zuten; industrializazio-aroan, burdinola eta labe-garaiak agertu ziren eta gaur egunean azkenik, janariak lortzeko mota askotako produktuen eraldaketaz baliatzen gara. Gure garaiotan bizimodu desberdinen garapen eta teknifikazio-mailaraino iritsi gara, non, garapen horrek, lanerako gai diren biztanle gehienak mugiarazi eta, bere esparruan kokatzeaz gainera, eraldatu egin dituen gure kultur tradizioaren ia elementu guztiak.

Nola babestuko naiz?

Arazo honi erantzun ahal izateko, gizakia *jantziaz eta aterbeaz* baliatu izan da funtsean. Euskal Herriko antxina-antxinako gizakiak kobazuloak erabiltzen zituen aterbetzat, eta animalien larruak gorputza estaltzeko; geroago, etxolak edo txabolak egin zituen; ondoren, artzain-bordak eta baserriak, gaur egungo herri eta hirietako bizitokietara eta janzteko erara iritsi arte.

Nola lortuko dut mundua ezagutzea eta bere materialak eta indarrak neure zerbitzuan ipintzea?

Arazo honen soluziobideak badu loturarik gizakiak *ingurune fisiko-naturala* ezagutzeko eta bere zerbitzuan jartzeko egin dituen ahaleginekin. Ahalegin hori prozesu luzea izan da, bertan ikusten dugularik mila eratako entseiu eta ikerketa burutu direla mundu kosmiko honetako zenbait gauza ezagutzearren, bere energietako batzuk nolabait menperatuz eta, horrela, janariak eta bizitzeko erosotasun orokorra errazago lortzeko bidea emanez. Horrixe esker lortu izan dira, hain zuzen, urratsik handienak tresnagintza-kulturan edo industri munduan, berorien ikurtzat sukarri landua, burdinoletako burdina eta labe-garaiak ipiniko genituzkeelarik.

Nola lortuko dut neure antzekoen laguntza eta nola antolatu gizarte-bizitza?

Arazo honi erantzuten diote *ingurune sozialean* koka daitezkeen gizarte-forma desberdinek; hala nola familiak, auzoak, herriak, parrokiak, eskolak, sindikatuek, etab. eta era berean, gizartearen antolaketa eta gestiorako sortzen diren erakunde publikoek.

Nola komunikatuko naiz neure antzekoekin?

Lengoaiaren, hots, hizkuntzaren bitartez erantzun zion gizakiak arazo honi; *euskararen* bidez euskaldunek. Multzo honen barruan sartzen dira aho-hizkuntza eta hizkuntza idatzia, gorputzaren eta keinuen bidezko komunikazioa eta informazioa helaraztea ahalbideratzen duen komunikabide-multzoa; hala nola liburuak, aldizkariak, egunkariak, irratiak, telebista, informatika, etab. Esparru honen barruan sartzen dira, baita ere, errepide eta garraio bidez ahalbideratzen den komunikazioa.

Nola egingo ditut atsegin eta gustukoak zaizkidan gauzak?

Arazo honen aurrean Euskal Herrian erantzun-mota ugari agertzen dira. Adibidez, arte ederretan ikus daitekeena, jaialdi eta festetan agertzen dena, musika, kantu eta dantzaren bidez islatzen dena, herri-kiroletan eta haur-jolasetan ikusten dena, etab.

Nor naiz ni? Zer da gizakia? Zein da bere xedea?

Pertsonaren izaera fisiko-biologikoa, soziala eta psikikoa uztartzen dira galdera honetan. Ardatz honetan kokatzen da, hain zuzen ere, *nortasunaren eta norberaren izaera edo identitatearen* arazoa. Gure izatearen *zergatia eta zertarakoa* ere jakin nahi lirateke. Funtsezko arazo bat dugu hauxe, gure bizitzari zentzua eta orientazioa eman behar diona. Eta soluzio horixe da, giza jarrera bat eskuarki, gizabidea. Esparru honetan sartzen dugu *gizakiek talde gisa duten mundua interpretatzeko ikuspegia edo pentsamendua*: dituzten mitoak, ohiturak, ipuinak, erritoak, sinesmenak, erlijioa, balioak,etab.

Berezko euskal kultura eta curriculuma

Jose Miguel Barandiaran antropologoaren proposamenean oinarrituz aurkeztu ditugun kulturaren ardatz horiek egituratuko dute oinarrizko euskal curriculuma; hau da, euskal kulturaren adierazpenak aukeratzeko erabiliko dugun bizkar-hezurra. Horrekin batera, aipatutako Lawton-en ekarpena ere kontuan hartuz, bien arteko uztarketa egingo dugu.

Baina nola esan eta justifika daiteke aukeratzen dugun curriculum hori "euskal" curriculuma dela? Beste era batera esanda, egin ditugun zazpi galdera horiek ba al dute Euskal Herrian erantzun propioa, beste herrialde batzuetatik bereizten duena? Erantzun horiek jatorrizkoak direla esan al daiteke? Hau da, ba al dago jatorrizko euskal sukaldaritza edo euskal osasungintza, euskal jantzigintza, euskal etxegintza, euskal zientziagintza, euskal teknologia, euskal familia, euskal gizarte-antolaketa, euskal eskola, euskal erakunde politikoa, euskal hizkuntza, euskal komunikabideak, euskal artea, euskal dantza, euskal musika, euskal kirolak, euskal festak, euskal jolasak, euskal erlijioa, euskal mitoak, euskal ipuinak, euskal erritoak,euskal ohiturak, euskal pentsakera, euskal balioak,...?

Egia da, Euskal Herrian bertan soilik sortutako eta kanpoko eraginik gabeko jatorrizko adierazpen kulturalik gaur egun ez dagoela, Frantzian, Espainian eta beste herrialdeetan ez dagoen bezala. Herriak ez dira inoiz isolatuta bizi, eta gaur egun oraindik gutxiago, elkarrekin harremanetan baizik. Harreman horietan batak besteari maileguak egiten dizkio, elkarrekin trukatu. Euskal kulturaren jatorrizko kultur adierazpen esanguratsuena den euskarak berak ere ez du ihes egiten hizkuntzen arteko maileguen joan-etorritik, eta

beste kultur adierazpenei dagokionez zer esanik ez. Euskal kultur adierazpenetan zenbat eta gehiago sakondu, hainbat eta lotura gehiago ikusten dira inguruko beste herrialdeetako kultur adierazpenekin. Hori dena egia da, euskal kultura iraganeko kultura tradizionalarekin identifikatzen bada, eta are gehiago gaur egungo eta etorkizuneko euskal gizartearen ikuspegitik begiratzen bada. Izan ere, ekonomiaren, teknologiaren, politikaren eta komunikabideen jokaera transnazionalaren eraginez, euskaldunon egungo erreferentzi kulturalak mundu zabalekoak baitira neurri handi batean. Hori horrela dela egiaztatzeko, eguneroko bizitzak planteatzen dituen oinarrizko arazoei erantzuteko egin ditugun zazpi galdera horiek mundu guztian erantzun berdinak zenbateraino dituzten aztertzea besterik ez dago: janarien, medikuntzaren, etxegintzaren, jantziaren, teknologiaren, etabarren uniformizazioa begi-bistakoa da..-

Baina aurreko hori guztia guretzat eta beste guztientzat horrela dela aitortuz, txanponaren beste aurpegiari begiratzen badiogu, herrialde ezberdinetan erantzun propioak eman direla, ematen direla eta etorkizunean ere ematen jarraitu nahi dela egiazta dezakegu. Adibidez, Euskal Herriko janari-edariak inguruko beste herrialdeetan ere aurki ditzakegu, baina ekoizkin edo produktu horiek bertan sortutakoak edo/eta bertan prestatutakoak eta tradizioa duten neurrian euskal sukaldaritza delako kategorian kokatzen ditugu. "Euskalduntasunaren" labelaren zilegitasuna kasu batzuetan besteetan baino nabarmenagoa izango da; hori argi ikusten da bi muturretako kanpoko eta bertako produktuak konparatuz (Txakolina eta Coca Cola; Idiazabalgo gazta eta Mc Donalds-eko hanburgesa). Baina kanpoko/bertako produktuen mugak ez dira beti hain argiak izaten eta *continuum* baten barruan

maila ezberdinak daude, "euskalduntasunaren" ezaugarria kasu batzuetan beste batzuetan baino hobeto egokitzen zaiolarik. Janariedari eta euskal sukaldaritzaren adibidea, baliagarria izan daiteke *mutatis mutandi* beste kultur adierazpenentzat: osasuna, jantzia, etxea, giza antolaketa, teknologia, familia, musika, dantza, kirola eta beste adierazpen kulturalentzat hain zuzen ere. Erlatibotasun horren barruan, beraz, ukaezina da Euskal Herrian bertako kultur adierazpenak badirela egon, aipagarriena euskara izanik.

Berezko euskal kulturaren errealitatea eta erlatibotasuna aipatu ondoren, kultur adierazpen ororen eta, beraz, euskal kulturaren, labur bada ere, bi ezaugarri garrantzitsu aipatuko ditugu: berezko euskal kulturaren ikuspegi dinamikoa eta aniztasuna. Bi ezaugarri hauek gogoraraztea egokia da, batez ere, ondoren egingo dugun berezko euskal curriculumaren planteamenduan gogoan hartzeko ezaugarriak direlako.

Zenbaiten ustez, euskal kulturaren eta identitatearen diskurtsoak zaharkituta daude, baserri eta nekazari-giroko pentsamolde, sentiera, eta egiteko eran lekutzen baitira. Industrializazioaren, masen edo talde-kulturen eta, batez ere, kultur industrien eraginez, Euskal Herrian sortzen, ekoizten, banatzen eta kontsumitzen den kultura zein den kontuan hartuz, euskal kulturaz eta euskal identitateaz hitz egiteak ez du zentzurik. Diskurtso hori antzua eta zaharkituta da eta errealitatetik urrun dago[9]. Beharbada ez zaio arrazoirik falta euskal kultura antxinako nekazaritza-giroko pentsamoldearekin eta kultur adierazpen estatikoekin identifikatzen bada, eta ez era dinamikoan edozein

[9] Dominguez, I. (1988): "La sociología de la cultura y el debate sobre la cultura vasca". *Inguruak* 4. zkia: 21-30.

garaitara eta eremutara egokitzeko eta berritzeko gaitasunarekin. Antxinako euskal kulturaren erreferentziak garrantzi handia dute, baina euskal kulturak bizirik iraungo badu garai berrietako baldintzetan jokatzen asmatu beharko du eta jarrera itxien ordez, "eman eta zabal zazu" aldekoaren jarrera irekiak sustatu. Alde horretatik Zallo-k[10] esaten duena nahiko adierazgarria da:

"*Podemos hacer dos cosas. Nos conformamos con la posición que tenemos. Protegemos nuestros nichos más marginales, es decir, protegemos la producción de discos marginales para ese mercado pequeño de jóvenes, o los libros que se puedan editar aquí, los cien libros que conseguimos se publiquen en euskara. O hacemos lo contrario. Vamos a aprovechar nuestra diferenciación y nuestra diversidad para dar un salto adelante. La única manera de competir en el marco europeo es salir también hacia fuera, y en ese marco es donde se dará el intercambio entre pueblos, siendo nosotros cada vez más fuertes desde el punto de vista cultural. Y por eso, porque tenemos más amenazas que nadie, tenemos que apostar más frontalmente. La uniformización cultural es evidente: las mismas películas en todas partes del mundo, las mismas series televisivas, los mismos spots publicitarios, el mismo mensaje, los mismos libros. Eso es lo que estamos viviendo a nivel mundial. La uniformización avanza. Y la diversidad no es una réplica a la uniformización, es un complemento. Tenemos que tomar muy en serio el problema de construir una cultura, no solamente con una identificación nacional de mitos, sino construyendo y produciendo cultura que sea homologable, comparable, fluible, que haya flujo entre países*".

10 Zallo, R. (1994): "El reto formativo en la Euskadi del siglo XXI: Hacia una uniformización cultural europea?" En Fundación Sabino Arana: *Euskadi en la Unión*

Euskal kulturaren beste ezaugarrietako bat aniztasuna da. Orain arte euskal kulturaz aritu garenean, Euskal Herrian euskal kulturaren adierazpen bakarra eta uniformea egongo balitz bezala jokatu dugu. Eta hori ez da horrela. Euskal Herrian, bai euskal kulturaren ikuspegi tradizionaletik begiratuz, zein gaurko adierazpen kulturalen ikuspegitik, Euskal Herriko giza talde ezberdinek eguneroko bizitzak planteaturiko oinarrizko arazoei ematen dizkien erantzunetan aurki daitekeen ezaugarri komuna, aniztasuna dela begi-bistakoa da.

Adibidez, inork ez du zalantzan jartzen euskara hizkuntza bat denik, gaztelania, frantsesa edo ingelesa hizkuntzak diren bezala. Euskarak, hizkuntzaren egiturari dagokionez, baditu beste hizkuntzetatik bereizten dituen ezaugarriak, baina honez gainera, euskararen barruan euskalkiak ditugu. Euskararekin jarraitzen ari den politika izan daiteke kultur adierazpen beste eredua. Euskararen kasuan, zailtasun guztiekin, beharrezkoa den batasuna (euskara batua) eta euskararen baitan dauden ezberdintasunak (euskalkiak) uztartzen ari gara.

Batasuna eta aniztasuna ondo uztartzen asmatzea, bata zein bestea, beharrezkoak dira euskal kulturaren planteamendu egokia egiterakoan. Hala ere, aniztasunarekiko begirunea zainduz euskal kulturaren ezaugarri komunak zeintzuk diren definitzeko azterketa sakon bat egiteke dagoen une hauetan, amankomunean ditugun elementuak definitzeak lehentasuna dauka. Lehenbailehen hori guk egiten ez badugu, industria kultural transnazionalek erabat bateratuko gaituzte beren eredu kultural

Europea, Bilbao,


uniformeen arabera, hauei aurre egiteko inolako irtenbiderik eskaintzen ez dugulako. Ikuspegi hau dela medio, berriro bat gatoz Zallo-k[11] esaten duenarekin:

"*Mientras nosotros estamos pensando en Europa como Comunidad de Pueblos, la manera en que se está construyendo Europa no es como Comunidad de Pueblos sino como estructura económica y como estructura política que se impone sin consultar a los pueblos. No se trata de un intercambio de pueblos. Tampoco se trata, de hecho, de una Europa igual. Y en ese espacio es donde tenemos que preguntarnos cuál es el lugar de un pequeño pueblo que está a los dos lados del Pirineo, y que no ha tenido oportunidades de construir lo que sí construyeron otros países, que es un estado-nación que protegía o generaba su identidad cultural. Nuestro país, que tiene una experiencia, una mitología común, una historia común, unas raíces comunes y una diferenciación, aún está en el camino de definir una cultura común y para el presente*".

Aniztasunaz ari garenez, euskal kulturaren aniztasunaz hitzegin dugu, baina Euskal Herrian bada aniztasunaren beste iturburu garrantzitsu bat. Euskal Herrian bizi garen biztanleok, estatu frantziar eta espainiarren eta inmigrazio fenomenoaren eraginez, kultur erreferentzia anitzak ditugu. Gaur egungo eta etorkizuneko euskal kultura definitzeko orduan, errealitate hori kontuan hartzekoa da. Euskal kulturari buruz esandakoak curriculumaren harira ekarriz, era honetan definitzen eta mugatzen dugu ikerketa honen objektu nagusia den "berezko euskal curriculuma". *Berezko euskal curriculuma*, euskal curriculumaren oinarrizko eta jatorrizko osagai

11 Ibidem

gisa ulertzen dugu. Euskal curriculumak era berean, beste osagaiak ere baditu erreferentziatzat:



Euskal curriculuma, berezko euskal kulturan oinarrituz, bertan bizi diren biztanleen kulturen eta kultura europarra eta unibertsala integratzen dituen elementu aukeratuen bilduma da.

Berezko euskal curriculuma, eguneroko bizitzak planteaturiko oinarrizko arazoei Euskal Herrian eman zaien, ematen zaien eta etorkizunean eman nahi zaien soluziobideen aukeraz osatzen da.

Ikasmateriala eta euskal curriculuma

Bigarren atal honetan, orain arte landutako euskal curriculumaren gaia ikasmaterialarekin uztartu nahi izan dugu. Honetarako ezinbestekoa iruditzen zaigu ikasmateralaren kontzeptua bera definitzea eta duen garrantzia aztertzea. Jarraian, euskarazko eskola-liburuen barrena egingo dugu ibilbidetxoa. Ondoren, lehen atalean aurkeztutako berezko euskal curriculumaren ardatzekin bat datorren edukien sailkapena proposatzen dugu. Honako hau, euskal hezkuntzaren normaltze bidean. Eraiki beharreko euskal *curriculum* diseinuaren ildo nagusitzat erabil daitezkeen ekarpen gisa jaso ezazue. Nonbaitetik abiatu behar eta hori dela eta somatu dugu ekaspen hori egin beharrez, bidea urratu ahala osatu eta zehaztu beharko duguna ikastetxeetan elkarlanean. Jarraian Hego Euskal Herriko testuliburuen hautaketari buruzko hainbat datu ekarten ditugu. Azkenik, ikasmaterialak ebaluatzerakoan erabil daitezkeen irizpideak aipatu eta ondoko atalean landuko dugun testuliburuen aztereketan erabilitakoak azalduko ditugu.

Ikasmaterialen definizioa eta garrantzia

Ikasmaterial hitzarekin ezagutzen dugun esparru semantikoa jasotzeko, kontzeptu ezberdinak erabiltzen dira: baliabide didaktikoak, irakaskuntzarako baliabideak, hezkuntza-baliabideak, laguntza didaktikoa, informazio-materiala, ikasliburua, testuliburua, etab. Ez dago, beraz, hitz bakarra irakaskuntza/ikaskuntza-prozesua laguntzeko baliabideentzat.

Ikasmaterialen definizioak bi multzotan sailka daitezke: ikasmaterialen ikuspegi zabala dutenak eta mugatuagoa dutenak. Lehenengo ikuspegi horretakoak dira honako definizio hauek:

"Cualquier instrumento u objeto que pueda servir como recurso para que mediante su manipulación, observación o lectura, se ofrezcan oportunidades de aprender algo, o bien con su uso se intervenga en el desarrollo de alguna función de la enseñanza"[1]

"Todos aquellos instrumentos y medios que proveen al educador de pautas y criterios para la toma de decisiones, tanto en la planificación como en la intervención directa en el proceso de enseñanza-aprendizaje y en su evaluación"[2]

---

1 Gimeno Sacristan, J. (1991): "Los materiales y la enseñanza". *Cuadernos de Pedagogía*, 194, 10. or.

2 Zabala, A. (1990): "Materiales curriculares" Mauri, T. eta beste-n: *El curriculum en el centro educativo*. ICE/Horsori, Barcelona, 125. or.

Ikuspegi zabal honen arabera, ikasmaterial kontzeptuaren barnean sartzen dira Imbernon-ek (1992) egiten duen sailkapeneko material guztiak:

-Eduki-mota ezberdinak jasotzen dituzten materialak: testuliburuak, mapak, atlasak, hiztegiak, ikasleen fitxak, hormirudiak, laborategiko materialak, bloke logikoak, ikasleek sortutako dosierrak, etab.

-Informazioa osatzeko eta ikertzeko baliagarriak diren materialak: entziklopediak, liburu monografikoak, akuarioak, terrarioak, lan-koadernoak, autozuzenketarako fitxak, egunkariak, literatura-liburuak, etab.

-Jolaserako materialak: jostailu didaktikoak, baloiak, zabuak, txirristak, etab.

-Ikus-entzunezko eta informatika-materialak: diapositibak, bideoak, diskoak, kaseteak, euskarri magnetikodun materiala etab.

Ikasmateriala horrela ulertuz, edozer gauza izan daiteke finean ikastresna, erabilpenaren baitan oso gauza gutxi baitira ikasteko erabil ezin daitezkeenak. Horregatik, ikasmaterialen ikuspegi zabala, kontzeptu aldetik interesgarria izan arren, ez da batere praktikoa horiek ebaluatzeko.

Liburu honetan, ikasmaterialaren ikuspegi hertsia gureganatzen dugu. Ikasmaterialak, *curriculum* ofizialak gauzatzeko eta garatzeko, eskoletan, irakasleen eta ikasleen eskuetan jartzen diren euskarri ezberdineko materialak edo tresnak dira.

Ikasmaterialak, zentzu honetan, inprimatutako ikasleen testuliburu, lan-koaderno eta irakasleen gidak, eta beste euskarri batzuetan, euskarri informatikoan batez ere, *curriculum* ofiziala gauzatzeko asmoz plazaratzen diren materialak dira.

Era honetan ulertzen ditugun ikasmaterialak oso erabiliak eta garrantzi handikoak dira, Apple-ek[3] esaten duen legez:

"Testuliburuek garrantzi handia dute, inongo zalantzarik gabe, berez eta direnak direlako. Beren edukiaren eta formaren bidez, errealitatearen eraketa partikularrak eta ezagutza posibleen unibertso zabala hautetsi eta antolatzeko modu partikularrak gailentzen dituzte. Testuliburuak, egia esan, etorkizunari buruzko mezuak dira eta etorkizunera zuzenduta daude. Gizarteak bidezko eta benetako modura onartu eta eraiki nahi duenaren sorkuntzan eragiten dute. Egiazkotasunaren kanonak zehazten laguntzen dute, eta, hori egitean, kultura, sinismenak eta moralitatea benetan zer diren jakiteko erreferentzia puntu nagusi bat sortzen ere laguntzen dute ezagutza".

[3] Apple, M. W. (1993): "El libro de texto y la política cultural". *Revista de Educación*, 301. liburukia, 112. or.

Euskarazko eskola-liburuen historia laburra

Eskola-liburuen garrantzia ikusi ondoren, eman diezaogun begiratu bat euskarazko eskola-liburuen historiari, honen bilakaera ikus ahal izanik, egungo egoera kokatzeko.

Eskolaliburuen historia azaltzeko hiru epe bereizi ditugu:

1.- Euskarazko lehen argitapenetik (XVI. mendea) ikastolen mugimendu modernoaren sorrera arte (1960).

2.- Ikastolen mugimendu modernoaren sorreratik (1960) Elebitasunaren Dekretua (1979) eta Eusko Jaurlaritzak hezkuntzako konpetentziak eskuratu arte (1980).

3.- Elebitasunaren Dekretutik (1979) gaur arte.

1.- Euskarazko lehen argitapenetik (XVI. mendea) ikastolen mugimendu modernoaren sorrera arte (1960):

Euskarazko lehen argitarapenak, XVI. mendekoak ditugu, elizgizonek idatziak, gehien jorratzen direnak erlijio gaiak izanik. Haur-literatura eta eskola-liburuak beranduago hasi ziren argitaratzen eta hauen ezaugarri nagusia, aurrekoen antzera, urritasuna da. Historian zehar nahiko berria da euskarazko testuliburuen erabilera, Euskal Herriko eskoletan ohikoa izanik gaztelera edo frantsesez argitaratutakoak erabiltzea. Honek, garaian garaiko hezkuntza-sisteman du erantzuna. Euskarazko testuen argitarapena, XIX. mendearen amaierako ideologia-aldaketari -abertzaletasunari- loturik agertzen zaigu. Garai honetan, kristau-ikasbidea eta gramatika arlokoak dira nagusiki eskolan euskaraz lantzeko

argitaratzen diren liburuak; hauek zirelako 1876ra arte eskoletan euskaraz onartzen ziren testu bakarrak. 1890etik 1937ra bitartean hasi ziren argitaratzen ikuspegi abertzalea zuten euskarazko silabario, irakurketa-liburu, eta geografia edo aritmetikaren irakaskuntzarako eskola liburuak.

Jarraian, bilakaera hau irudikatzeko asmoz, eskola-liburutzat har zitezkeenen adibide batzuk aipatuko ditugu.

–Irakurtzen ikasteko liburuak:

1875ean G.Z.k Tolosan *Iracurtzaren asierac edo lenasteac Euscalerrico aurrentzat* argitaratu zuen, euskarazko irakurketa lantzeko.

1896an Res. Mª Azkuek *AGAKIA euskeraz irakurten ikastekoa* argitaratu zuen, silabarioa hau ere.

1897an Sabino Aranak *Umiaren lenengo aizkidia Bizkaiko euzkeraz irakurtzen ikasteko* argitaratu zuen, "bizkaitar batek" izenean sinatutako silabarioa.

1920an Isaac López de Mendizábalek *Umearen laguna, irakurtzen ikasteko biderik errezena* argitaratu zuen eta 1931an, honen laburpena den *Martin Txilibitu. Irakurbide laburra*.

1931an, Eusko Ikaskuntzak sustatuta, *Txomiñ-Ikasle* argitaratu zen, gipuzkera eta bizkaieraz. Irakurketa lantzen zuen, agertzen zituen irudietatik abiatuta.

1931an hau ere, B. Estornesek *Sabin euskalduna* argitaratu zuen gipuzkeraz, irakurketaren bigarren mailara egokituta. Hauek

guztiak, metodo silabikoak dira, marrazkietatik abiatuta hitzen ezagutza lantzen zituztelarik.

–Beste ikastarloak:

1900. urtean, A.M. Azkuek Bilbon lehen geografia-testuliburua argitaratu zuen: *Erkindea-Geografia*, haur txikiei zuzenduta eta galde-erantzunez osatutako bi zutabetan antolatuta.

1920an, Luis de Elizalderen *Lenengo ikasle mallarako Euskal-Zenbakiztia* argitaratu zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Irakaskuntza Sailak.

Aita Zabala-Aranak sorkuntza-lan handia burutu zuen eta hona hemen bere ekarpenaren erakuslea: 1921ean, *Edesti Deuna, ume ikaslariyentzat;* 1922an, *Eusko Lutelesti Txikia* geografia irakasteko; *Daneurtiztia* geometriarako eta *Zenbakiztiya,* aritmetikarako; 1929an, *Euskerazko zenbakera*, Revista Internacional de Estudios Vascos aldizkarian argitaratuta agertu zena; 1931n *Josutxu, umientzako Otoi-idaztiñua.*

Isaac Lopez de Mendizabalen ekarpena (1879-1977) oso garrantzitsua izan zen: 1907an, *Aita Santu Amargarren Pio'ren dotriña laburra;* 1913.ean, *Ume koxkorrentzat euzkeraz egindako zenbakiztiya edo aritmetika;* 1920an, *Umearen laguna*; 1925ean, hain ezaguna dugun *Xabiertxo,* erlijioaren eta orduko euskaltasunaren baloreak biltzen zituena; 1929an, *Nekazaritza;* 1931n, *Martin Txilibitu;* 1932an, *Seaska-Abestia* eta 1933an, *Erleak, beren bizitza eta oiturak*.

1932an Pirmin Iturriotzek *Lutelestia. Iru malletan* argitaratu zuen Eusko Ikaskuntzaren babespean, irudi, argazki eta mapez hornituta, gipuzkeraz zein bizkaieraz.

1933an, *Daneurtiztia* geometria-liburua agertzen da Lopez de Mendizabalen zerrendategi batean

1935.ean, Gabirel Jauregik *Pisia* argitaratu zuen, fisikaren ikaskuntzarako eta 1936an, *Kimia*, kimikaren oinarrizko kontzeptuen ikaskuntzarako.

Gerraostean, 1949 urtera arte, erabat debekatuta zegoen euskaraz edozein liburu argitaratzea. Ordutik aurrera, aldez aurretik aztertutako haurrentzako liburu batzuk baimentzen zituzten, baldin eta abertzaletasuna sustatzearen aztarnarik agertzen ez bazuten.

1952an, Euskaltzaleen Biltzarrak, *Battitta eta Mariagno (Haurrak ikhas eskuararen irakurtzen)* argitaratu zuen, Iparraldean, frantziar eskoletan euskara ikasteko.

1959an, S . Onaindiak, López de Mendizabalen *Xabiertxo* itzuli zuen bizkaierara. Laster hasiko ziren garai modernoko ikastolak eraikitzen eta liburu honen erabilera oraindik ere ezinbestekoa zen.

2.- Ikastolen garai modernoaren sorreratik (1960) Elebitasunaren Dekretua (1979) eta Eusko Jaurlaritzak hezkuntzako konpetentziak eskuratu arte (1980):

1950-60 epealdian aldaketa politiko, sozial eta kultural ugari izango ziren. Giro horretan, 1960. urte inguruan, ikastolen mugimenduak indar berria hartu zuen eta gizarteratze, modernotze, –egituratze eta hedatze– prozesuan murgildu zen. Gertaera hura erabakiorra izan zen euskarazko eskola-liburuen historian, izan ere, ikastolen mugimenduaren hazkundearekin batera, euskal kultura-industriak, eskola-liburua barne, eragiteko beharrezkoa zen bezeroa edo masa kritikoa sortzear baitzegoen.

Urteak	ikastola-kopurua	ikasle-kopurua
1960	3	–
1964-65	29	596
1970-71	103	11885
1975-76	160	33851
1980-81	243	65273

* Iturriak: SIADECO (1964-1975). Ikastolen Elkartea (1975-1980).

Ikastolen mugimenduak garai hartan euskarazko eskuliburuetan zuen eragina ikusteko ondoko koadroa[4] argigarria izan daiteke:

Urteak	liburu-kopurua	eskola-liburuak eta haur eta gazte iteratura
1937-65	408	36 (%8,82)
1965-74	582	117 (%20.10)
1974-80	1147	685 (%59,72)

[4] Garagorri,X. eta beste: (1983) "Ikastoletako irakaskuntzaren garapena eta egoera". *Jakin*. 28.

Epe honetan, euskal liburugintzarako orokorrean eta eskolaliburuentzako bereziki, ikastolen mugimenduaren indartzearekin batera, eragin handia izango zuen beste gertaera, Euskaltzaindiak Arantzazuko Batzarrean (1968) Euskararen Batasunerako Erabakia hartzea izan zen. Ordutik aurrera, salbuespenak salbuespen, ikastoletarako liburuen argitalpena euskara batuaz egiten da

Baldintza horietan, 1969an, ikasmaterialgintzan eragin handia izan zuten bi erakunde sortzen dira Donostian: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea eta Gordailu Irakasle Elkartea. 1971an, Iparraldean, euskara irakaskuntzan sustatzeko asmoz, Ikas elkartea sortu zen. 1972an, Bilbon, irakasle talde baten bultzadaz, gure ustez epealdi honetako euskarazko testu-liburuaren arrasto nagusia markatu zuen Saioka taldea sortu zen. 1972an, Donostian, Elhuyar taldea sortu zen, baina testugintzan sorkuntza lanetan jardun zuen Elhuyar-ko Matematika taldearen sorrera 1976an izan zen. 1973an, Bilboko Mensajero argitaletxearen barruan, euskarazko ediziorako Gero argitaletxea eratu zen. 1975an, Donostian, Gero eta Etor argitaletxeetako sustraietan oinarrituz, Erein argitaletxea agertu zen. Elkar argitaletxea 1973an sortu zen arren Iparraldean, 1977. urtean Donostian kokatzerakoan, testu-liburu lanetarako sorrera-urte har genezake. Ikus daitekenez, epealdi honetan, talde ugari sortu ziren eskola-liburuen beharrei erantzun asmoz. Talde guztien artean, Gordailu, Saioka, Mensajero-Gero, Erein, Elhuyar eta Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen lanak aipagarrienak iruditzen zaizkigu.

Gordailu irakasle-elkartea euskal pedagogi mugimendu bat eratzeko sortu zen eta bi eginkizun nagusien inguruan egituratu zen: ikastaldiak eta ikas-liburuen argitalpena. Pedagogia eragilea eta

bereziki Freinet-en metodologia oinarri hartu zuten eta irakasleen prestakuntzari garrantzi handia ematen zioten. 1970tik 1978ra arte, irakasleak prestatzeko ikastaldiak antolatu zituzten. Eskola-liburuei dagokionez, eskolaurrerako materialak, hiztegiak, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrerako (OHO) testu-liburuak, baina batez ere Gordailu pedagogia-mugimenduaren lanik aipagarriena eta eskola-liburuei buruzko talde honen pentsamoldea ondoen islatzen zuena, "Ikastola liburutegia" zen. *Ikastola liburutegi*ko lan monografikoak, irakasleentzat eta ikasleentzat kontsulta-liburu izan ziren, eta lau sailetan banatzen ziren (Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia). Gordailuren ikuspegitik, programa jakin bati erantzuten zion eskola-liburua sortzea baino, ikasleek, lan pertsonalizatua egin ahal izateko, kontsultarako liburutegia, gela bakoitzean osatzea egokiagoa iruditu zitzaien. Esperientzia interesgarri hau, ekonomia-arazoak zirela medio, bertan behera geratu zen.

Saioka taldearen planteamendua bestelakoa izan zen. Hauentzako, ikastolen lehentasuna, material-osagarriak eskuratzea baino, OHO-rako programazio osoa (6-14 urte) eta jakintza-arlo guztiak (euskara, gizarte-arloa, natur-arloa, matematika, plastika eta musika) biltzeko eskola-liburuak sortzea premiazkoagoa zen. Piaget-en teorietan oinarrituz, haurren adimenaren garapenari eman zioten lehentasuna eta adimenaren eragile nagusiena ekintza edo saiakuntza (Saioka = saioak eginez) zelarik, eskola-libruruen eginkizun nagusia, ekintzarako egoera eta aukera interesgarriak ikasleei eskaintzea zen. OHOko 1., 2. eta 3. mailako esku-liburuetan (Saioka 1, 2 eta 3), jakintza-arlo guztiak ikasleek egin behar zituzten proiektuen inguruan globalizatzen ziren. OHOko 4. eta 5. mailetan arloen arteko integrazioa egiten zen. OHOko 6., 7. eta 8. mailetan, arlo bakoitzak bere bidea hartzen zuen. Saioka materialak, OHOko 6. maila arte

programazio osoari erantzunez, jakintza-arlo guztiak jaso zituen. OHOko 7. eta 8. mailak erdi-osatuta geratu ziren. Saioka taldearen beste eginkizuna irakasleen prestakuntzarako zerbitzu pedagogikoak eskaintzea izan zen. Epealdi honetako ikasmaterial osotuenak eta erabilienak Saioka taldeak sortutakoak izan ziren.

Gero-Mensajero argitaletxeak bi esparrutan jardun zuen bereziki. Batetik, Gizarte-arloan: Geografia (6. eta 7. mailak) eta Historia (6. eta 7. mailak). Eta bestetik, Euskara-arloan, Euskara (6. maila), Irakurgaiak (1.A/1.B, 2., 3., 4., 5.. mailak), eta esparru honetan aipagarriak ziren, eskola-liburuen osagarri gisa plazaratu zituen Kimu literatura saileko liburuak.

Erein argitaletxearen funtsezko helburuetako bat, ikastola-munduko beharrei erantzutea zen. Epe honetan, bi esparru landu zituzten bereziki. Batetik, Gizarte-arloa: Gizartea Gaur (8. maila). Eta bestetik, Euskara-arloa: Euskara Lantzen 0 (6. maila), Euskara Lantzen1 (7. maila), Euskara Lantzen 2 (8. maila), eta eskola-liburuen osagarri moduan, Ipurbeltz komikia eta Lehen Irakurgaiak saila.

Elhuyar Matematika taldeak Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen eskutik plazaratzen ziren Casals argitaletxearen Matematika testu-liburuak euskaratu zituen eta ondoren talde honek sortu zituen Matematika 5, 6, 7 eta 8 eskola-liburuak argitaratu zituen Gipuzkoako Ikastolen Elkartearekin batera.

Ikastolen Elkarteak, ikastola bakoitzak bakarka bere aldetik ezin konpon zitzakeen arazoak, elkarren laguntzaz konpontzeko sortu ziren. Arazo horietako bat ikas-materialen urritasuna zen. Ikastolen Elkarteek, eta bereziki Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak, bi eginkizun

nagusi zituen aldi honetan: batetik, zeuden hutsuneak bete eta, bestetik, euskal eskola-liburuen sektorea antolatu eta eragin. Hutsuneak bizkor betetzeko ikusi zen erarik azkarrena eta errazena, erdarazko ikas-materialak euskarara itzultzea zen. Ikastoletako irakasleen eskariz, Santillana argitaletxeko Gizarte- eta Natur-arloetakoko testu-liburuak itzuli eta multikopiaz atera zituen. Casals argitaletxearen Matematika testu-liburuak OHOko 1. mailatik 7.era eta Anaya-ren Natur Zientziak 6 eta 7 itzuli ziren. Bestetik, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak eragile modura jokatu zuen. Adibidez, Saioka taldeak euskaraz sortu eta Iker S.A.-ren eskutik plazaratu ziren ikasmaterialak, hasieratik finantziatu zituen, eta Iker S.A. desagertu zenean, material horien eskubideak erosi eta argitaratzen jarraitu zuen. Elhuyar Matematika taldearekin batera, liburuak argitaratu zituen. Beste batzuekin (Gero, IL) plazaratu zituzten ikasmaterialen salmenta ziurtatu zuen talde horien produktuak erosiz eta banatuz. Edo, esaterako, euskal komikiaren hutsunea betetzeko, Erein argitaletxeari Ipurbeltz komikia plazaratzeko eskaera egin zion. Gipuzkoako Ikastolen Elkartea, aldi honetako eskola-liburuaren ardatza izan zen.

Garai hau, benetan interesgarria izan zen, esku-liburuaren historiari begira; izan ere, lehen aldia zen, ikasle kopuru handi bati eta, jakintza-arlo guztiak kontuan hartuz, irakaskuntzako programazio luzeari erantzuteko beharra baitzegoen. Egoerari erantzuteko, ez zegoen eskola-libururik eta dena egiteke zegoen. Nola erantzun behar horiei guztiei? Zein ote zen egoera horretan eskola-liburuak sortzeko politikarik egokiena? Zein ote zen irakasleen eskaera? Zein bideragarriena? Emandako erantzunak aztertzen baditugu, hiru bereiz ditzakegu: 1) Gaztelaniaz zeuden eskola-liburuak itzuli; 2) Irakaskuntzaren programazio osoari erantzuteko moduko eskola-

liburu berriak euskaraz sortu; 3) Irakasleen eta ikasleen eskuetan kontsultarako eskola-liburuak sortu lan pertsonalizatua egin zezaten. Argi dago erantzun bakoitzari, hezkuntzaren ikuspegi jakin bana zegokiola.

3.- Elebitasunaren Dekretutik gaur arte:

Elebitasunaren Dekretuaren bitartez (1979), lehen aldiz, ofizialki ateak ireki zitzaizkion euskarari irakaskuntza-sisteman, eta ordutik aurrera, irakaskuntzan euskaraz jardutea legezkoa bihurtu zen eskola guztietan. Euskarazko irakaskuntza, beraz, hemendik aurrera, ez zen ikastoletara mugatuko, administrazioaren eskola publikoetara eta eskola pribatuetara ere zabal zitekeen.

Euskararen erabilera irakaskuntzan indartzeko hurrengo urratsa, 1982ko Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legea izan zen eta, ondorioz, 1982/83 ikasturtean euskara eskoletan sartzeko bidea diseinatu eta A, B eta D hizkuntza ereduen ezarpenaren bitartez gauzatu zen. Handik aurrera, B eta D ereduen hazkuntza, etengabekoa izan da. Horrek eraginda, euskarazko ikas-materialen eskakizuna eta sortu beharra areagotuz doa.

Gerora, eskola-liburuen sorkuntzan eragina izan zuen beste aldagaia, curriculumaren aldaketak izan ziren. 1980-81 ikasturtean Programa Berrituak ezarri ziren. Hauen eragina mugatua izan arren, OHOko 1. eta 2. Zikloak soilik arautu ziren eta, aurreko 1970.eko programazio-aldaketak zirela medio, eskolaliburu berriak sortzea ezinbestekoa gertatu zen. Baina curriculumaren aldaketa sakona eta zabala (4-18 urte), LOGSE legearen ondorioz (1990) gauzatu da. Lege honen eraginez gaur egun, eskola-liburu guztiak goitik behera aldatzen ari dira.

1982. urtetik aurrera, eskola-liburuak argitaratu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren onespena beharrezkoa da. Horretarako, hizkuntzaren zuzentasuna eta edukiak administrazioak ezarritako Curriculum Dekretura egokitzen diren ala ez egiaztatzea ezinbestekoa da. Eusko Jaurlaritzaren eskuhartzearen beste bidea, EIMA programen bidezko diru laguntza da. Programa hau 1982. urtean abiatu zen euskal ikasmaterialgintzari laguntza eskaintzeko asmoz: EIMA I, idatzizko ikasmaterialgintza; EIMA II, ikus-entzunezko ikasmaterialgintza; EIMA III, euskarazko hezkuntzarako softwaregintza.

Faktore guzti horien eraginez, euskaraz irakasteko eskola-liburuen ekoizpenaren hazkuntza handia izan da azken urteotan. Ondoko koadoran[5], haur eta gazte literatura ataleko liburuak ere aipatzen ditugu, horiek ere eskola eremuari lotuta baitaude.

Urteak	**liburu kopurua**	**eskola-liburuak**	**%**	**haur eta gazte literatura**	**%**	**biak batera**	**%**
1981-85	2052	506	24,65	439	21,39	945	46,05
1986-90	3496	830	23,74	618	17,67	1448	41,41
1991-94	3518	1250	35,53	448	12,73	1698	48,26

Datu hauek irakurtzerakoan kontuan hartzekoa da J.M. Torrealdaik eskola-liburua kontzeptupean, pedagogia, euskararen irakaskuntza (gramatika) eta hiztegiak, eta goi-mailako eta unibertsitateko irakaskuntza-liburuak sartzen dituela. Horiek kenduz gero, unibertsitate aurreko eskola-liburutzat har dezakegun liburuen estimazioa, agertutako kopuruen %70 ingurukoa izan daiteke. Badira beste sailetan kokatzen dituen liburuak eta irakaskuntza eremuan

[5] Torrealdai, J.M. (1997): *Euskal Kultura Gaur* liburuko datuetan oinarrituta

aplikazio zuzena izan dezaketenak: adibidez, Jakintza-liburu sailean kokatzen dituen kontsulta eta erreferentzi liburuak. Argi geratzen da aurreko epearekin erkatuz, eskola-liburuaren hazkundea eta hauen presentzia zabala euskal liburugintzan.

Hezkuntzaren Erreforma aurretik, Eskolaurreko eta OHOko testu-liburuak argitaratzeko egin ziren ahaleginak; oraingoan, batez ere 1990eko LOGSE legearen hezkuntza-sistemaren aldaketaren eraginez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako testu-liburuak argitaratzeaz gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako testu-liburuak eskaintzeko egin den ahalegina azpimarratzekoa da. Une honetan, etapa horietarako eskaintzarik badagoela esan daiteke. Ez, ordea, Batxilergorako, Hezkuntza Zikloetarako eta Unibertsitaterako. Hezkuntza maila horietan testu-liburuen beharra larria da.

Era berean, aipatzekoa da azken urte hauetan kontsulta- eta erreferentzia-liburuak argitaratzeko egin den ahalegina, batez ere entziklopediagintza arloan. Horren lekuko dira Lur, Elhuyar eta Eusenor-Harluxet fundazioaren lanak.

Azken garaiotako ikas-materialen ezaugarria, formatu berrien hedapena da. Ohiko ikas-materialekin batera, gero eta ugariagoak dira ikus-entzunezkoak eta euskarri informatikoetan argitaratutakoak.

Berezko euskal *curriculum*aren edukiak eta ebaluaziorako adierazleak

Azpiatal honetan, ikasmaterialean agertzen den berezko euskal *curriculum*a behatzeko edukiak agerian jarri nahi ditugu.

Lehen esan bezala, *berezko euskal curriculum*aren ardatzak aukeratzerakoan, Jose Miguel Barandiaran eta Lawton-en ikuspegi antropologikoa eta jakintza-arlo edo zientzietan oinarritzen den ohiko ikuspegi akademikoa uztartzen ditugu. Bestalde, euskal *curriculum*a, berezkoa denaz gainera, beste kulturekiko trukaketaren emaitzaren fruitua dela uste dugu, tradizioan oinarritzen dena eta era berean aldakorra eta dinamikoa, ezaugarri komunak dituena eta era berean anitza dena.

Honako hauek izan dira ikuspegi antropologikoa aukeratzeko irizpideak:

- Euskal gizartearentzat eduki hori garrantzizkoa izatea.
- Euskalduntasunaren markak bertan definiturik agertzea.
- Aukeratzen diren edukiak eraginkorrak izatea, gaurko eta aurrikusten den etorkizunerako.

Ondoren, arestian aipatu galderen arabera lotuko gatzaizkio *berezko euskal curriculum*arenak izan daitezkeen edukiak sailkatzeari.

Nola lortuko ditut janari-edariak eta osasuna?

Gaiak: **Janari-edariak:**

- Historiaren garai ezberdinetan, gaur egun eta etorkizunean, elikagaiak lortzeko prozedurak, elikagai-motak, prestatzeko erak, etab.:
    - Elikagaiak lortzeko prozedurak: harrapaketa, nekazaritza, abelazkuntza, arrantza, industria, zerbitzuak...
    - Elikagai-motak...
    - Elikagaiak prestatzeko moduak: historian, gaur egun (euskal sukaldaritza).

Gorputza / Osasuna:

- Elikagaien eta osasunaren arteko erlazioa.
- Osasunari eta orekari eusteko ohiturak.
- Sendatzeko prozedurak historian eta gaur egun.
- Sexu-harremanak

Ekonomia

Nola babestuko naiz?

Gaiak: **Jantzia:**

- Historiaren garai ezberdinetako eta gaur egungo jantziak.

Etxebizitza:

- Historiaren garai ezberdinetako eta gaur egungo etxebizitza-motak.
- Jendetzaren banaketa-moduak historian eta gaur egun.
- Euskal Herriko hiriguneak.

Ekonomia

Nola lortuko dut mundua ezagutzea eta bere material eta indarrak neure zerbitzuan jartzea?

Kanpoko errealitatea eta gizakia bera ulertzeko eta adierazteko ezagutza-sistemak eta ezagutza horietan oinarritzen den teknologia.

Gaiak: **Lurraren zientziak:**

- Euskal Herriko ingurune fisikoa: geologia, orografia, hidrografia, itsasbazterra.

Natur zientziak:

- Euskal Herriko ingurune naturala: fauna, flora.

Zientzia formalak:

- Zientziaren aurrerapenak eta Euskal Herriaren ekarpena.

Zientzia aplikatuak:

- Historiaren garai ezberdineko eta gaur egungo industria-motak.

- Lanbide ezberdinetan erabili izan den lanerako tresneria eta gaur egungo teknologia.

Nola lortuko dut neure antzekoen laguntza eta nola antolatu gizarte-bizitza?

Gizabanakoen eta taldeen bizitza antolatzeko eraikitzen den gizarte-egitura: familia, lagunartea, auzoa, parrokia, eskola, herria, hiria, etab. Eta gizartea eta esparru publikoa antolatzeko gobernu-sistemak: Estatua, Jaurlaritza, udaletxea, instituzioak, sindikatuak,...

Gaiak: **Antropologia, Soziologia, Urbanismoa, Talde dinamika:**

- Giza-taldeen antolaketa eta egituraketa-ereduak historian eta gaur egun: familia, lagunartea, auzoak, eskolak, parrokiak, herriak, lurraldeak, nazioa,...

Politika:

- Euskal Herrian ezagutu diren eta gaur egun indarrean dauden antolaketa politikoak.

Nola komunikatuko naiz neure antzekoekin?

Gaiak: **Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia:**

- Ahozko hizkuntza: euskara, ahozkotasuna, bertsolaritza.
- Hizkuntza idatzia: euskal idazkera, euskal literatura.

Hitzezkoa ez den komunikazioa

Komunikabideak:

- Telebista, irratia, prentsa, informazio sareak,...

Garraiobideak:

- Garraiobideak historian eta gaur egun.

Nola egingo ditut atsegin eta gustukoak zaizkidan gauzak?

Gaiak: **Haur-jolasak, abestiak, ipuinak**

Jaiak, ohiturak, jokoak:

- Euskal jaiak.
- Herri-kirolak eta euskal pilota.

Musika, dantza, literatura:

- Euskal musikak.
- Euskal dantzak.
- Euskal literatura historian eta gaur egun.

Arteak:

- Euskal artea.

Nor naiz ni, zer da gizakia, zein da gure xedea?

Gaiak: **Biologia:**

- Giza gorputza.

Psikologia, Soziologia, Antropologia:

- Nortasun- edo identitate-guneak: familia, herria, nazioa...

- Mitoak.
- Ipuinak.

Erlijioa, Etika:

- Erritoak.
- Sinesmenak.
- Erlijioa.
- Baloreak: abertzaletasuna, demokrazia, aniztasuna, tolerantzia, lankidetza, elkartasuna, erantzukizuna,...

Politika

Aurreko kapituluan eta honetan bertan aipatutako zazpi galderak, ezinbestekoak dira ildo nagusiak markatzeko; gure helburuetarako, ostera, oinarrizkoegiak eta agian orokorregiak. Euskal hezkuntza abiapuntuan dago oraindik. Are gehiago, den ala ez deneko amaigabeko ezbaian ibili ohi gara. Eztabaida horri ez diogu ihes egin nahi, Euskal Herriak badu nahiko elementurik bere hezkuntza-sistema izateko, eta ez bakarrik hizkuntzazkoak. Edozein erdaratatik "itzulitako" hezkuntza ez litzateke inolaz ere euskal hezkuntza izango. Sortu eta egokitu beharra dago, beraz.

Nolanahi ere, ez dugu ezer asmatu beharrik. Nahikoa dugu geure auzolagunei -espanolei zein frantsese- begiratzea, eta berehala konturatuko gara egin behar dugunaz. Hezkuntza-politikan murgildu gabe, bi elementu dira besteen gainetik nabarmentzen direnak: hizkuntza da bata, eta gizarteko baloreak eta kultura, bestea. Frantsesek eta espainolek izugarrizko garrantzia ematen

diote batari zein besteari, biak uztartuz gainera. Ikaragarri arduratzen dira hizkuntzaren ikaskuntzarekin, eta honela islatzen da *curriculum*ean besteak beste. Hotz-hotzean azterturik, hizkuntzaren irakaskuntza Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren ardatza dela esan genezake. Are gehiago, Espainian eta Frantzian, hizkuntzaren irakaskuntza pedagogo eta irakasleen kezka ezezik, politikarien eta hedabideen kezka ere bada; arazo soziala, alegia.

Euskal Herria ez da desberdina, guk badakigu, jakin, ardatza euskara dela. Auzia, berriz, hizkuntzen arteko lehian sortzen zaigu. Beste herrietan, naturaltasunez -"normaltasunez" esango genuke- egiten dutena, modu kontzientean egin behar dugu guk, "kulturalean". Euskara batua abian jarri zenetik aurrera normalkuntzaren prozesua aldaketa koalitatiboan sartu zen. Testuinguru horretan ulertu behar da euskal *curriculum*a eta, bereziki, ikasmaterialaren auzia. Agian azken honek, gauden unean egonik, garrantzi berezia du. Alderdi batetik euskararen estandarizaziorako eta haren hedapenerako oso eraginkorra delako eta bestetik, kultur molde eta ikuspegi jakinak zabaltzen dituelako.

Gauzak horrela, esan bezala, testuliburuen azterketan arreta berezia jarri nahi izan dugu.

Testuliburuen hautaketa

Azpiatal honetan, UPV/EHUk diruz lagundutako "*Euskal Curriculum Berezia: Hezkuntzaren Berrikuntzan Kokatutako Oinarrizko Diseinu Curricularretik Eratorritako Lehen Hezkuntzako Testuliburuen Azterketa. Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko Lehen eta Bigarren mailak. Euskara eta Literatura, Gaztelera eta Literatura, Ingurunearen Ezaguera eta Matematika arloak*" izenburuko ikerketa dela medio, Lehen Hezkuntzako Hego Euskal Herriko ikastetxe guztietara (sare guztietara) bidalitako galdera-sorta baten bitartez jasotako erantzunen emaitzak ekarriko ditugu. Galdekizun honetan, ikastetxean testuliburuen aukeraketa nola eta nork egiten duen galdetzen genuen. Honez gainera, eta garrantzitsuena dena bestalde, testuliburuak aukeratzerako orduan zein irizpide erabiltzen dituzten. Galdera-sorta honen bitartez, Hego Euskal Herriko ikastetxeetan erabili ohi diren testuliburuak zeintzuk diren ere jakin nahi izan dugu eta honela galdetu, ikasmaila, jakintza-alor eta hizkuntza-ereduen arabera. Nafarroan eta Euskal Autonomi Elkartean egun Lehen Hezkuntzako 900 ikastetxe baino gehiago egonik, ezinezkoa da informazioa ikastetxez ikastetxe bertaratuta biltzea, eta hori dela-eta hautatu dugu, galdera-sortarekin batera atzera guri itzultzeko seiludun gutunazala duen eskutitza bidaltzea, ikastetxe bakoitzera.


Era horretan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako *eredu elebidunetako* (A, B eta D) ikastetxeetara jo genuen. Ikastetxe guztietara, publiko, pribatu zein ikastola. Gure azterketatik kanpo geratu dira Iparraldekoak eta Nafarroako G eredukoak –gaztelania hutsezko irakaskuntza–.

Bildu nahi genuen informazioa, aldez aurretik aipatutako jakintza-arloetarako eskolan (Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetan) erabiltzen diren testuliburuei buruzkoa zen; ikasleek erabili beharreko testuliburuak zeintzuk diren alegia. Horrez gain, testuliburuen aukeraketarako irizpideak, nork aukeratzen dituen eta gurasoen eskuhartzea zein nolakoa den ere arakatu nahi izan dugu.

Ikus dezagun Hego Euskal Herriko Lehen Hezkuntzako *eredu elebiduneko* (A, B edota D) ikastetxeak nola banatzen diren:

I. taula: Hego Euskal Herriko eredu elebiduneko ikastetxeak. 1995/96ikasturtea

	Ikastetxeak									
	PUBLIKOAK				**PRIBATUAK**					
	Ikastetxe publikoak	%	Ikastola. Publif.	%	Ikastolak	%	Pribatuak	%	Guztira	%
ARABA	66	58,41	14	12,39	8	7,08	25	22,12	113	12,01
BIZKAIA	207	53,77	15	3,90	29	7,53	134	34,81	385	40,91
GIPUZKOA	137	47,57	20	6,94	34	11,81	97	33,68	288	30,61
NAFARROA	133	85,81	---	---	16	10,32	6	3,87	155	16,47
Guztira	543	57,70	49	5,21	87	9,25	262	27,84	941	100,0



1. irudia: Hego Euskal Herriko eredu elebiduneko ikastetxeak

Aurreko taulan (I. taula) agertzen diren ikastetxe guztietara gutuna bidali genien Handik 20 egunetara, esandako 941 ikastetxeetatik heren batek baino gehiagok erantzun zigun. Esan dezagun bide batez, euskara hutsez egin genuela bai eskutitza zein galdeketa ere, horrek eragina zuela jakinik, nahiz ikastetxe guztiak eredu elebidunetakoak izan. Hala ere, Arabako ikastetxe batek bakarrik bidali zigun eskutitza gaztelaniaz nahi zutela ihardetsiz. Alborapen horrek ez gintuen gehiegi kezkatu; izan ere, gure interesgunea, euskal ereduetan baizetzan (B eta D).


Erabiltzen dugun "hezkuntza-sarearen" tipologiari dagokionean ageri denez, publiko/pribatu dikotomia administratiboaren barrenean ikastolaren izaera agertu nahi izan dugu. Arrazoi historikoak eta pedagogikoak nahikoak dira bereizketa horri eusteko. Horrela, lau ikastetxe-mota berezi ditugu: ikastetxe publikoak, publifikatutako ikastolak, sare pribatuko ikastolak eta ikastetxe pribatuak.

Gauzak horrela, ondorengo II. eta III. tauletan, bildutako erantzunen banaketa agertzen dizuegu *lurralde*, *hizkuntza-eredu* eta *hezkuntza-sarearen* arabera. Jasotako erantzunetatik baztertu egin ditugu erratutakoak, helduen hezkuntza edo soilik eskolaurreko ikastetxeak zirenak eta gaizki betetako galdera-sortak.

II. taula: Erantzun duten ikastetxeen banaketa, lurralde eta hezkuntza-sarearen arabera

	Ikastetxeak										
	PUBLIKOAK				PRIBATUAK						
	Publikoak		Ikastolak		Ikastolak		Pribatuak		Guztira		Erantzun
	%		%		%		%		%		%
ARABA	14	40,0	8	22,9	7	20,0	6	17,1	35	11,1	**30,97**
BIZKAIA	64	60,4	7	6,6	11	10,4	24	22,6	106	33,8	**27,53**
GIPUZKOA	64	51,6	16	12,9	18	14,5	26	21,0	124	39,5	**43,05**
NAFARROA	35	71,4	---	---	12	24,5	2	4,1	49	15,6	**31,61**
Guztira	177	56,4	31	9,9	48	15,3	58	18,5	314	100,0	
Erantzun	**32,59**		**63,26**		**55,17**		**22,13**		**33,36**		

Ikusten denez, Bizkaikoak dira urrien erantzun dutenak, gero Arabakoak. Oro har, honetan lehen esandako alborapena antzeman daiteke; herrialde euskaldunek hobeto erantzun dute alegia. Horretaz, Gipuzkoak oso ondo erantzun du, erdiak baino gehiagok. *Hezkuntza-sarearen* ikuspegitik berriz, sarea zenbat eta euskaldunagoa izan, erantzun-maila hainbat eta hobea izan da. *Ikastetxe pribatuak* eta *Bizkaia* dira, beraz, okerren daudenak.



2. irudia: Erantzun duten ikastetxeen banaketa hezkuntza sarearen arabera

Sektore-diagrama honetan, *hezkuntza-sare* desberdinen banaketa agertzen dugu. Ikastetxe publikoen pisua nabarmena da; baina, esan bezala, sare bakoitzak biltzen duen ikasleria kontuan hartzen badugu sare publikoaren pisua urritu egiten da.

Testuliburuen hautaketari dagokionez, **irakasleek berek hautatzen dituzte**. Irizpide batzuei jarraituz ala jarraitu gabe, claustroan, zikloan edo banaka, irakasleak dira testuliburuak aukeratzen dituztenak. Gurasoek, ikastetxeetan aitortu digutenez, ez daukate inolako eskuhartzerik testuliburuen aukeraketan. Gehienbat zikloko edo ikasmailako irakasleei dagokie testuliburuak aukeratzea (%67). Ikastetxeko claustroak aukeraketan duen pisua ez da espero zitekeen bezainbatekoa (%17a). Testuliburuen aukeraketan gurasoek parte hartzerik izan ez arren ere, berei (%49a) edo guraso elkarteei (%25a) dagokie irakasleek hautaturiko testuliburuak erostea. Ikastetxe pribatuetan gurasoek egindako aukeraren barne-pentsamolde edo ikuspegi jakina izan ohi da; horretan, ikastetxe pribatu askok argitaletxe jakineko testuliburuak erabiltzen dituzte. Sare publikoan, ostera, gurasoek ez dute aukera ideologiko jakinik; hala ere, ikasmateriala aukeratzerakoan ez dute inolako partehartzerik. Irakasleen esku geratzen da. Argitaletxetako arduradunek badakite hori eta salmentak lortzeko irakasleengan eragiten dute zuzenean. Proiektu berezia darabilten ikastetxeetan, bertatik eratorritako irizpideei lotzen zaizkie testuliburuak aukeratzerakoan; besteetan, berriz, ez dago inolako irizpiderik. Prozedurari dagokionez, ez dago prozedura jakinik; aukeraren eskumena irakasle bakoitzari dagokio, itxuraz. Zikloko, jakintza-alorreko edota claustroaren partehartzea guztiz aldakorra da ikastetxe batetik bestera.

Horrela, testuliburuen aukeraketarako irizpideei buruz galdetu diegunean, ikastetxeen %40k *aukeraketarako irizpiderik ez daukatela* erantzun digute. Hala ere, ikastetxe horietan, gehienetan bederen, testuliburuak badarabiltzate, erabili.

Ikus daitekeenez, testuliburuen aukeraketa baldintza askoren menpe dago baina, batez ere, irakasleen erantzukizuna dela azpimarratuko genuke. Testuliburuen aukeraketarako irizpideak finkatuak dituztenen artean, 107 irizpide desberdin jaso ditugu. Testulibururik erabiltzen ez dutenek, ostera, ez dute gehienetan adierazten ez erabiltzeko arrazoiak zeintzuk diren.

Laburbilduz, jasotako irizpideen arabera, honako hauek esan ditzakegu:

1. Sareak baino, ikastetxe bakoitzak aukeratzen ditu testuliburuak, bere proiektuaren arabera, *ikastolen* hezkuntza-sarea salbu.

2. Oro har, Euskal Herrian ez dago irizpide-ildo nagusirik hezkuntza-sare guztietarako. Hori nabarmen ikus daiteke *testuingurua, kontestualizazioa* atalari ematen zaion garrantzi urrian.

3. Euskarak testuliburuaren aukeraketan duen garrantzia, gure hizkuntzaren egoeraren isla zuzena delakoan gaude. Horretan, euskalkien aipamenak, hizkuntza-mailarenak edota kalitateari buruzkoak gailendu egiten dira testuliburuak aukeratzerakoan, beren edukiaren azterketa baino gehiago.

Aukeratutako testuliburuak direla-eta, A, B eta D ereduetan orotara 15 argitaletxe baino gehiago agertzen zaizkigu. Dena den,

merkatuaren %3 edo agerpen gutxiagoko argitaletxeak, kategoria bakar batera ekarri ditugu. Horrela, hurrengo taulan ikus daiteke nola banatzen diren argitaletxe garrantzitsuenak ereduaren arabera.

III. taula: Argitaletxerik aukeratuenak hizkuntza-eredu desberdinetan

Eredua	ARGITALETXEAK								
A	---	---	Edebe	---	---	---	Santillana	S.M.	Vives
B	Anaya	Bruño	Edebe	Elkar	Erein	Ibaizabal	Santillana	S.M.	---
D	---	---	Edebe	Elkar	Erein	Ibaizabal	Santillana	---	---

Ikusten denez, bederatzi argitaletxe dira gehienetan aukeratzen dituztenak. Bederatzi horietatik soilik bi agertzen dira eredu guztietan, Edebé (euskaraz, Giltza proiektua) eta Santillana (euskaraz, Zubia proiektua).

Bildutako datuetatik arreta handien ekarri diguna, *testuliburuak ez erabiltzeari* dagokiona da. Zenbaitek testulibururik ez erabiltzea proiektu pedagokiko berritzaileari lotu izan dio baina, ikuspegi orokorretik (estatistikotik) aztertuz gero irudia bestelakoa da: euskalduntasuna eta publikotasuna baitira faktore adierazgarriak. Hau da, irakaskuntza zenbat eta *euskaldunagoa*, eta zenbat eta *publikoagoa* izan, testuliburuak ez erabiltzeko joera areagotu egiten da. Gure aburuz, *hezkuntza-ereduari dagokiolarik*, testuliburuak ez erabiltzearen arrazoi nagusienetakoa *normalizazio eza* besterik ez da. Izan ere, ikastetxeen erantzunen arabera, testulibururik ez erabiltzea ez dagokio ikastetxe osoari; gehienetan, ikasmaila edo jakintza-alor zehatzetan ematen baita. Horrexegatik, deigarria da

matematika jakintza-alorrean testulibururik ez erabiltzearen hautapena urritu egiten dela; aurreko horrek azalarazten digu testulibururik ez erabitzea ez dagokiola –salbuespenak salbuespen– plangintza alternatiboari. Testuliburuen erabilerarekiko proposamen alternatiborik balego, testulibururik ez erabiltzea eta ordezko materiala sortzeak, hizkuntza-eredu guztietan eta jakintza-alor orotan maila batean edo bestean agertu behar lukete. Ez da horrela. Testulibururik ez erabiltzearen aldeko joera soilik *D eta B ereduetako ikastetxe publiko, publifikatutako ikastola eta ikastoletan* ematen da; ez, ostera, A ereduko inongo saretan, ez publiko ezta pribatuetan ere. Sare pribatuan, lehen esan bezala, argitaletxeen aukeraketan hautapen trinkoenak agertzen dira.

Horrek guztiak nolabaiteko ***akulturazioa*** ematen dela pentsatsera eraman gaitzake. Izan ere, berriz diogu, testulibururik ez erabiltzeko joera nabarmenagoa baita *Ingurunearen ezaguzera* eta *Euskara eta euskal literatura* deituriko jakintza-alorretan *Matematikan* baino. Proiektu pedagogiko berritzailea izatekotan ez ote dagokie maila berean jakintza-alor guztiei, eta ikastetxe osoari? Ikastolen, Publifikatutako Ikastolen, Ikastetxe Publikoen eta Pribatuen arteko desberdintasunak adierazgarriak eta ulergarriak badira, nola azal daitezke hizkuntza-ereduen eta ikas-arloen artean agertzen direnak sare beretan? Zeri dagozkio, bestela, diferentzia horiek?

Ikasmaterialen ebaluazioa

Ikasmaterialen ebaluazioaz aurkitu dugun bibliografia aztertu ondoren (Velasco, M.E. eta Pérez, G. (1977); Richaudeau, F. (1979); Rosales, C. (1983); Martínez Santos, S. (1987); Eusko Jaurlaritza, Euskararen Aholku Batzordea (1992); Eusko Jaurlaritza, ABT-PAT (1994); Blanco, N. (1994); García Arto, F. (1995)), alderdi anitz eta ikuspegi desberdinetatik ebalua daitezkeela egiaztatu dugu:

1. Ikasmaterialen alderdi teknikoa: irudiak, formatoa, testuen konposaketa, maketa, inprimaketaren kalitatea, paperaren kalitatea, etab.
2. Ikasmaterialen alderdi pedagogikoa: lantzen dituen gaitasunak, helburuak, edukiak eta horiek *curriculum* ofizialarekin duten lotura, aniztasunerako proposamenak, adinarekiko egokitasuna, metodologia eta helburuen arteko koherentzia, etab.
3. Ikasmaterialen alderdi epistemologikoa: informazioaren baliotasuna eta fidagarritasuna.
4. Ikasmaterialen alderdi sozio-kultural eta ideologikoa: ikasmaterialetan agertzen den gizartearen eta balioen ikuspegia.
5. Ikasmaterialen komunikazio- eta hizkuntza-alderdiak: komunikazio-moten nagusitasuna, mezuaren formak (idatzia, irudiak, marrazkiak,...), testuaren irakurgarritasuna, mezuaren dentsitatea, hizkuntza-idatziaren zuzentasuna, etab.

Testuliburuak azertzeko orduan, irizpide bat baino gehiago erabil dezakegu. Hauetako bat, agerikoa dugu. Ageriko irizpideak esaten dizkiogu zuzenean neurgarriak diren haiei; hala nola,

kalitatea/prezioa, aurkibideak, orrialde-kopurua, irudi-kopurua edota hitz-kopurua.

Jakina denez, ikasmaila eta jakintza-alor batean argitaletxe desberdinetako testuliburuek antzekoak izateko joera izan behar dute holako parametroetan. Dena den, esandako parametro horiek, besterik ezean, erabakiak hartzeko lehenbiziko irizpideak izan daitezke.

Horrela, diseinatutako metodologia honen arabera, testuliburuen azterketarako neurketa aurrena jartzen badugu ere, benetako ebaluazioaren abiaburua besterik ez da, testuliburuen edukia eta batipat alderdi pedagogikoa bere goreneko neurrian kontuan hartu beharra dago eta. Hori horrela, lan neketsua izanagatik, proposatzen dugun metodologia lagungarria izan daitekeelakoan gaude. Izan ere, estatistikaren bitartez errealitate anitz eta konplexua dena, ahalik eta modurik xinpleenean adieraztea baitugu xede. Gatozen, bada, esandako ageriko parametro horiek hurrenez hurren aztertzen.

Testuliburuaren egiturazko adierazleak

Adierazle hauetan besteak beste liburuaren erabilgarritasuna antzeman daiteke. Batipat erreferentziak eta liburuaren beraren erabilerarako errazpideak. Aurkibideak, orrialde-kopurua, ikasgai-kopurua, ariketa liburuak eta orohar liburuaren antolaketa.

Hizkuntzari lotutako adierazleak

Atal honetan liburuak darabilen hizkuntzaren zailtasuna/erraztasuna eta oparotasuna/urritasuna aztertzen ditugu. Hala nola: hitz-kopuru osoa, hitz desberdinen kopurua, pasarte-kopurua, menpeko perpausak, adjektiboak, juntagailuak,

erakusleak, aditz-kopurua, e.a. Beti ere kontuan hartuz ikasleen adina eta jakintza-alorra.

Irudiak eta hauei dagozkien adierazleak

Testuliburuetan irudiek dituzten betekizunak edo funtzioak azal-azalean aztertuz gero, ondorengo lau funtzio hauek aipatuko genituzke:

1. **Apaingarria**: testuliburua atsegina eta erakargarria izan dadin.

2. **Irakurgarritasuna**: idatzitakoaren lagungarriak, irudimena pizteko edo areagotzeko erabil daitezkeen irudiak. Haien edukia aldameneko testuari lotzen zaio. Deskribapenak edo testuaren osagarriak izan daitezke. Irudi eta testuen dekodaketa eta irakurketa aldibereko prozesuak dira. Irakurketaren finkapena eman ahala, irudiei testua gailenduz doakie, irakurlearengan beharrezko irudiak *barneratuz*.

3. **Informazio-emaleak**: Testuaz gaindiko informazioa dakarten irudiak; hala nola, diagramak, eredu fisikoak eta abar. Horrelako kasuetan testua irakurtzea ez da nahikoa izaten informazioarekin jabetzeko; irudia dekodatzea ezinbestekoa da, beraz.

4. **Ikur bereziak**: Testuliburuetan sortutako edo esanahi ezaguneko irudiak, ideia sinpleak helarazteko. Oharrak, atalak edo eginkizunak adierazteko erabili ohi dira.

Funtzioez esandakoaren haritik, irudiek informazio esanguratsua damaigukete. Batetik, bertan agertzen diren edukiek berek irakasgaiari buruzko trataera zein nolakoa den adieraz diezagukete; bestetik, liburuan irudien erabilerak irakurgarritasuna errazten duelarik, testu eta irudiaren arteko oreka azter genezake.

Orokorrean, pertsonaien azterketan sexua, adina, lanbidea eta beste zenbait kontzepturen erabilera antzeman dezakegu. Gure aburuz, adierazgarrienetariko bat, euskal *curriculum*ari begira, euskal gizarte eta kulturari ematen zaiona behatzea da.

Testuliburuen Azterketa

Ikasmaterialetan agertzen den berezko euskal *curriculum*a ebaluatzeko tresnaren aplikazioa

Alderdi hauek guztiak azter daitezkeela eta sistematikoki aztertzeke daudela ikusirik, begi-bistakoa da ezin diogula bat-batean guztiari behar bezala erantzun, ikertalde zabal eta urte askotako ikerketa-ildo gisa planteatu ezean. Zuzenena, beraz, helburuak mugatzea iruditu zaigu, poliki baina ikuspegi orokorra galdu gabe, eremua lantzeko asmoz. Helburu hauek aukeratzeko erabilitako irizpideak, aipatutako *berezko euskal curriculum* horretan daude oinarriturik. Honela, beraz, honako hau da gure ikerketa honen helburua nagusia:

Euskal Herrian Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko lehen eta bigarren mailetan (3., 4., 5. eta 6.), Euskara, Gaztelania, Ingurunea eta Matematika jakintza-arloetan gehien erabiltzen diren ikasmaterialetan Euskal Herriari buruz egiten diren aipamen guztiak (grafikoak, idatzizkoak,...) bildu eta agertzen duten euskal curriculumaren azterketa egitea.

Aurrera jarraituz, testuliburuetan bereziki eta ikasmaterialetan orokorrean, berezko euskal *curriculum*a islatzen ote den azaltzeko, ez, zein mailatan eta nola agerrarazteko tresna berezia sortu genuen. Ondoren, tresna hori erabiliz, Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloko 1. eta 2. mailetako (O.H.O.ko 3. eta 4. ikasmailak) Matematika, Ingurunearen Ezaguera eta Hizkuntza eta Literatura (Euskara eta Gaztelania) jakintza-alorretan, Hego Euskal Herrian erabilienak diren hiru argitaletxeetako testuliburuak aztertu genituen.

Egindako analisiak eta lortutako ondorioak dira, hain zuzen, hona ekarriko ditugunak.

Kultur erreferentziak nola islatzen diren aztertuko dugu, honako hauetan agertzen denari erreparatuz: irudiak, argazkiak, mapak, diagramak eta taulak; eta hainbat aldagai izango ditugularik kontuan; hala nola: irudien tamaina, pertsonen agerpenaren maiztasuna adin eta sexuaren arabera, jarduerak. Mapen kasuan, espazio geopolitikoa eta garaiaren erreferentzia hartuko ditugu kontuan.

Hauez gainera, testuak darabilen hizkuntza ere aztertuko dugu tresna honen bitartez honako hauek neurtuz:


◊ Liburuko hitz-kopurua (guztira agertzen direnak eta desberdinak, hiztegi aberastasuna,...).
◊ Orrialde beteenaren azterketa, ondoren liburu osorako estimazioa egin ahal izateko, hizkuntza-egitura ere agerraraziz, eta pasarteka perpaus eta esaldika ere azterketa hau burutuz.
◊ Hiztegiaren azterketa.

Prozesurari gagozkiolarik, halako behagailu moduko bat antolatu dugu. Fitxa desberdinak eratu ditugu, aipatutako parametroak jasotzeko eta adierazleak zenbakietara ekartzeko. Beraz. zenbaketa daukagu aurreneko urrats hauen oinarria. Zenbakitara ekarritako adierazleen esangura banan-banan aztertuko dugu.

Hasierako lan hau astuna bada ere, biziki emankorra da. Argitaletxe desberdinetako testuliburuen arteko aukeraketa

egiterakoan, lehenbiziko irizpidea *ideologiko, metodologiko* edo *edukizkoa* izanik, zenbait libururen artean zalantzaren bat izatekotan, proposatutako irizpide hauek erabakiorrak izan daitezke. Esaterako, testuliburu jakin batean arrazakeria, sexu-diskriminazioa, errakuntza mordoa, gezurra, autoritarismoaren gorazarrea e.a. nabarmena denean, besterik ez dugu behar testuliburu hori baztertzeko. Dena den, aurreko hori ez da beti horren nabarmena izaten; horregatik, ohiko egoera horretan, irizpide objektiboagoak beharko genituzke testuliburu bat edo bestea aukeratzerako orduan. Esanak esan, eratutako behagailua eta beraren bitartez lortutako emaitzen aurkezpenari lotuko gatzaizkio.

Orrialde-kopuruari dagokionean, Matematika-liburuak dira orokorrean orrialde-kopuru handiena agertzen dutenak.



3, Irudia: Orrialde-kopuruaren banaketa jakintza-arloka

Lan-koadernoen erabilerari dagokionez, argitaletxeen artean diferentzia handiak izaten dira; batzuek eskaini egiten dituzte eta besteek ez.


Mapak direla eta, Euskal Herrikoak ez diren mapak argitaletxe eta gai guztietan agertzen dira. Euskal Herriko mapak, berriz, ohikoagoak dira bertako argitaletxeetan. Bestetik, ikasmailei erreparatzen badiegu, hirugarren mailan mapa-kopuru handiagoa

agertzen zaigula ikus genezake, bai erdal zein euskal mapetan ere. Honen erantzuna, ikasmaila bakoitzean lantzen diren edukietan egon daiteke.

Irudien erabilera aztertuz gero, argitaletxe guztiak bat datoz: Matematika-liburuak dira irudiz hornituenak agertzen direnak.

Testu-masa aztertu dugunean, urrien darabilena diferentzia handiz, matematika jakintza-alorrekoa da, gehien darabilena hizkuntzarena delarik. Harridura sortarazi digu, hala ere, gaztelania eta literatura jakintza-alorrekoa dela guztietan oparoena duena ikusteak.

Matematikaren kasuan, irudi eta estimatutako hitzek adierazten digutena, testuliburu hauetan irudi asko baina hitz eta, beraz, azalpen gutxi agertzen direla da, eta bertan lantzen den kontzeptu-kopurua eta hauen garrantzia kontuan hartzen badugu, gure buruari galdetzen diogu ea zuzena ote den orokorrean agertzen zaigun joera hau, gainontzeko jakintza-arloetan baino azalpen gutxiago erabiltzea alegia.




4. Irudia: Jakintza-arloak, irudiak eta hitz-kopurua

Aurrean ditugun bi sektore-diagrama hauek ezin erka daitezke elkarren artean; bakoitza bere horretan dekodatu beharra dago.

Berariazko hiztegiz –hiztegi teknikoa, terminologia– hornituen agertzen zaigun jakintza-alorra, ingurunearen ezaguera dugu. Hala ere, orokorrean, desberdintasun nabarmena agertzen da bi ikasmailen artean, handiagoa delarik hirugarren mailan agertzen den berarizko hiztegia laugarrenean agertzen dena baino. Honako hau ez zaigu arrazoizkoa iruditzen; izan ere, lantzen diren unitateak lantzen direla, ikasmaila bakoitzean, berarizko hiztegia kualitatiboki proportzionala izan behar duela uste dugu.


Bertoko argitaletxeak, hemengo errealitateari aipamen zuzenagoak egiten dizkiote irudi eta adibideetan. Hala ere, orokorrean euskal markari dagokionean, askoz ere handiagoa da marka hau hirugarren mailan laugarrenean baino.



5. Irudia: Euskal marka argitaletxeka

Arestian aipatu dugun bezala, oso desberdina da argitaletxeek agertzen duten euskal marka. Sektore-diagrama honek adierazten digun modura, lehenengo argitaletxea (bertokoa) da markatuen agertzen dena, alde handiz; bigarrenak (bertokoa) eta hirugarrenak (estatukoa) askoz ere euskal marka gutxiago dute (nahiz eta bigarrenak hirugarrenak baina zertxobait gehiago agertu). Honen bidez nabarmen agertzen zaigu, beraz, euskal identifikazioari dagokionean behintzat, argitaletxeen artean dagoen desberdintasuna handia dela, eta testuen hautaketarekin batera, hauek ere hautatzen ditugula ohartuta ala oharkabean.

Hemendik aurrera, sexu- eta adin-taldeak nola banatzen diren ikusiko dugu argitaletxe, ikasarlo eta ikasmaila desberdinetan. Ikus dezagun lehenik eta behin nola banatzen den gizonezko eta emakumezkoen agerpena argitaletxeka:




6. Irudia: Gizonezko eta emakumezko agerpena argitaletxeka.

Histograma honetan, agerian gelditzen da argitaletxe guztiak komunean dutela gizon eta emazkumeen agerpenean ematen den desberdintasuna, hots, gizonezkoa nagusi dela. Proportzioei erreparatzen badiegu, antzerakoak dituzte guztiak: gizonezkoak

dira %60 inguru eta emakumezkoak %40. Hala ere desberdintasunen bat aipatzekotan 3. argitaletxea (estatukoa) aipatuko genuke, hemen agertzen baita desorekarik handiena gizonezko eta emakumezkoen agerpena dela eta (%66 gizonezkoak eta %34 emakumezkoak).


Sexu eta adin-multzoak ikasmailaka aztertuz gero, ondorio gisa esan genezake, gizonezkoa dela nagusi adin-talde bakoitzean ikasmaila guztietan, gizonezko heldua agertzen zaigularik eredu. Ikasmailari dagokionean ere esan genezake, orokorrean, hirugarren ikasmailan irudi gehiago agertzen dela laugarrenean baino, eta hirugarren ikasmaila honetako eredua gazteagoa dela laugarren mailakoa baino; beraz, errazago identifika daiteke haurra hirugarren mailako irudiekin laugarrenekoekin baino. Ikus dezagun hori ondoko histograman irudikaturik:



7. Irudia: Sexu eta adinaren banaketa ikasmailaka.

Adin-taldeari dagokionean, azpimarragarria da gutxien agertzen den taldea, hirugarren adinekoa edo aiton-amonena izatea. Hala ere, hauen urritasunean ere gehiagotan agertzen dira agureak atsoak baino.

Hurrengo irudi honetan honetan, sexu-banaketa jakintza-arloka bildu dugu. Ikus dezagun, bada, grafikoki adierazita ondoko histograman:



8. Irudia: Sexuaren araberako banaketa jakintza-alorka

Irudi honetan ezin argiago agertzen zaigu gizonezkoa dela nagusi ikasarlo guztietan eta baten bat aipatzearren, matematikaren kasua ekarri nahi genuke, bertan agertzen delarik gizonezko eta emakumezkoen arteko desberdintasunik nabariena. Histograma hau behatuta ez ginateke oker ibiliko, matematika gizonezkoen kontu modura agertzen dela esango bagenu.

Orain arte esandakoak esanda, hemendik aurrera, hizkuntzari lotutako adierazleetatik eratorritako emaitzen azalpenari ekingo diogu.


Arestian aipatu dugun bezala, erabili dugun adierazletako bat hitz-kopuru osoa da. Honekin, guztira agertzen edo erabiltzen den hitz-kopurua adierazi nahi dugu; hitz desberdinak aipatzerakoan, errepikapenak baztertuz benetan desberdinak diren hitzak zenbatzen ditugu eta bi hauen arteko zatiketa eginez, hitz-aberastasuna deritzoguna lortzen dugu. Honen bitartez, erabiltzen den hitz-kopuru guztitik, desberdina dena zenbatekoa den erator daiteke.

Gauza bera egiten dugu perpaus edo esaldiekin; hau da, batetik, guztira erabilitako perpaus-kopurua jasotzen dugu, bai eta menpeko perpausena ere, eta bi hauen arteko zatiketaren bidez, perpaus-aberastasuna deritzogun adierazlea lortzen dugu. Azken honen bitartez adierazi nahi dugun gauza bakarra hauxe da, alegia, erabiltzen diren perpaus guztietatik zein kopuru den menpekoa.

Hauez gainera, adjektiboak (guztira eta desberdinak direnak), adberbioak (guztira eta desberdinak), juntagailuak (guztira eta desberdinak) eta aditzak ere (guztira eta desberdinak, errotara ekarriz) zenbatzen ditugu.

Zenbaketa hauen bitartez, pasarteko eta esaldiko azterketak egiten ditugu eta honela, testuaren gorputza pasarteetan banatuz, bertan erabiltzen den hizkuntza-egitura aztertzen dugu aurreko adierazleen arabera.


Hauek guztiak, argitaletxe, jakintza-arlo eta ikasmailaka aztertu ditugu, zein banaketa ematen den ikustearren eta bertatik erator daitezkeen ondorioak interesgarriak izan daitezkeelakoan.



9. Irudia: Hitz- eta perpaus-aberastasuna argitaletxeka

Estimatutako hitz-kopuruan, lehenengo argitaletxea agertzen zaigu nagusi. Hitz aberastasuna dela eta, lehenengo zein bigarren argitaletxeetan (bertakoak) antzeko kopuruak agertzen zaizkigu, hirugarrenaren aurretik (estatukoa). Lehenengo argitaletxea da berriz ere guztira perpaus-kopuru gehien erabiltzen duena bai eta menpeko perpaus**-**kopururik handiena ere. Honekin batera argitaletxe honek beronek jasotzen du, beraz perpaus-aberastasunaren indizerik handiena.

Ondoren, pasartearen azterketaren emaitzak agertzen dizkizuegu argitaletxeka bildurik. Histograman ikus genezakeen gisa, hirugarren argitaletxeak biltzen du hitz-kopururik handiena. Perpaus, menpeko perpaus, juntagailu, aditz, adjektibo eta adberbioen kasuan, lehenengo argitaletxeak jasotzen ditu kopururik handienak, pasarteka egindako azterketan.




10. irudia: Pasartearen azterketa argitaletxeka

Irudian ikus genezake, era berean, bigarren argitaletxean biltzen direla pasarteko hizkuntzaren adierazleen kopuru txikienak.

Hemendik aurrera, orain arte egindako azterketa berak burutuko ditugu, baina jakintza-arloka. Jarraian agertzen dizuegun histograman, berariazko hitz-kopurua da ekartzen duguna, jakintza-arloka bildurik.


Berariazko hiztegia dela eta gogora arazi nahi genizueke jakintza-arloari dagokion berezko hiztegiari buruz ari garela, testuliburuetan ikasi beharreko kontzeptuak (hitzak) izaten direlarik gehienetan. Hauek, gainmarkaturik, azpimarraturik edo aparteko lekuan jarri ohi dira. Irudian ikus dezakegunez, orokorrean, ingurunean agertzen da berariazko hitz-kopuru ugariena eta jarraian gaztelanian. Urriena, matematikak agertzen duena da.

Nabarmena da jakintza-arloen artean ematen den desberdintasuna berarizko hitzak erabiltzerako orduan.



11. irudia: Berariazko hitz-kopurua jakintza-arloka

Hitz aberastasunean aldiz, euskara eta matematika ditugu aurren, ingurunea eta gaztelera agertzen zaizkigularik ondoren antzerako kopuruekin. Ikus dezagun:



12. irudia: Hitz-aberastasuna jakintza-arloka


Hitz-aberastasuna esateak, guk erabilitako kontestuan, ez du derrigorrez hiztegiaren aberastasuna gogora ekarri behar (aberastasun-kontzeptua, alegia), bakoitzak darabilen hitz-kopuru osoarekin erkaturik, desberdina dena azalarazi baizik. Irakurleak hau

zergatik diogun galdetuko dio seguruenik bere buruari. Gure ustez, gerta daiteke, eta datuek hala diote zenbait kasutan, erabilitako hitz-kopurua urria edo txikia denean, hitz derberdinen zama indartzea. Hau da, hain zuzen ere, matematikaren kasuan ikus dezakeguna. Testu luzeagoak edota hitz-kopuru handia denean, hitzak errepikatzeko aukera handiagoa dago eta zenbaitetan, honela gertatzen denean behintzat, adierazle honek agertzen diguna ez da guztiok ulertzen dugun aberastasuna, ezinbestean.

Jarraian pasartearen azterketa da ekarriko duguna, jakintza-arloka bildurik. Gure ustez, pasartearen azterketa oso emankorra da, bertan agertzen diren kopuruak ikusirik badirudielako nolabait ere perpauska baino testuliburuen mezua pasarteka dagoela antolaturik. Nolabait ere pentsa genezake azalpen-unitateak pasarteka banatzen direla, eta horrexegatik esanguratsua iruditzen zaigu beronen azterketatik erator daitekeena.


Lehenik eta behin, ondorengo histogramari kasu eginez, azpimarragarria da dagoeneko behin edo behin aipatu duguna, alegia, gaztelaniak biltzen duela hitz-kopururik handiena pasarteko ere alde handiz, jarraian euskara duela. Gauza bera gertatzen da perpaus-kopuruari erreparatuz gero.

Gainontzekoen modura, ondoko bi histogramatan ere jakintza-arloen artean dagoen aldea nabarmen agertzen zaigu.



13. irudia: Pasarteko hitz, perpaus eta menpeko perpausen kopurua jakintza-arloka

Beste histograma honetan ikusiko dugu nola banatzen diren pasarte eta jakintza-arloka aditz, adjektibo eta adberbioak.




14. irudia: Pasarteko aditzak, adjektiboak eta adberbioak, jakintza-arloka.

Aditzak eta adjektiboak aztertuz gero, hauek ere gaztelanian somatzen ditugu oparoen, jarraian euskara agertzen zaigula berriz ere. Badirudi aurreko bi histogramak aztertuz gero, hizkuntza-egiturarik bakunena matematika-arloak agertzen duela, menpeko

perpausak ia agertzen ez direlarik eta aditz, adjektibo eta adberbioen kopurua oso urria izanik.


Emaitzen atal honi amaiera emateko, ikasmailakako azterketa aurkezten dizuegu. Hurrengo irudiak (15. irudia) erakusten digunak harritu egin gaitu; izan ere, berariazko hitzei erreparatzen badiegu, hirugarren mailan laugarrenean baino gehiago agertzen direla ikus genezake. Begira:



15. irudia: Berariazko hitz-kopurua ikasmailaka.

Ikus dezakezuen modura, aldea dago hirugarren eta laugarren ikasmailen artean. Ba ote dago hau honela izateko arrazoi berezirik? Zeren eta, besterik gabe pentsa genezake, ikasmailatan gora egin ahala hizkuntza-egitura eta kontzeptuetan ere horrela egiten dela eta honek beronek berariazko hiztegian islatuta agertu behar duela. Baina oraingoz, deskribaketa soilean ari gara, eta testuliburuen egiturazko adierazleak aztertzen, ez edukia ez eta metodologia ere; horregatik, beste baterako utziko dugu hain garrantzitsu eta interesgarria den beste eremu hau, nahiz eta egituraren azterketatik abiatuta, zenbait kezka, zalantza eta batez ere jakinmin pizten digun hori ikusteak.

Jarrai dezagun ikasmailakako pasartearen azterketarekin. Atal honetako azken irudian (16. irudia) ikus genezakeenez, orokorrean aberatsagoa agertzen zaigu laugarren mailako pasartearen hizkuntza-egitura hirugarrenekoa baino. Izan ere, bertara ekartzen ditugun kopuruak handiagoak dira honako adierazle hauetan guztietan: hitz-kopurua, perpaus-kopurua, menpeko perpaus-kopurua, juntagailu-kopurua, aditz-kopurua eta adjektibo eta adberbioen kopurua; baina agian esanguratsua izan daitekeen zertxobait aipatzekotan, adjektiboak aukeratuko genituzke. Oraintxe azalduko dizuegu zergatia. Aipatu bezala, argi ikusten da ikasmaila batetik besterako bilakaera ia adierazle guztietan, adjektiboetan izan ezik. Hauetan, nahiz eta gora egin, hirugarren ikasmailatik laugarrenerako aldea gainontzeko adierazleetan baina askoz ere txikiagoa da.



16. irudia: Pasartearen azterketa ikasmailaka

Normalkuntza, zenbait kontzeptu

Laugarren atal honetan sarreran aipatutako bi ikerketen arteko uztarketa egiteko asmoa dugu; oro har, uztarketa hau normalkuntza-kontzeptuaren baitan azaltzen dugu, nahiz eta atal honetan esplizituki agertu hizkuntza-normalkuntzaren ideia. Hizkuntza-normalkuntza jakina, kultura-normalkuntza kontzeptu zabalagoaren esparruan kokatu beharra dago, eta honela uler daiteke aurreko ataletan landutakoa.

Testuinguru horretan, liburuan darabilgun ainguraketa teorikoa agertuko dizuegu ondoko azpiataletan. Hala ere, lehenik eta behin zer den normalkuntza aipatzen dugunean adierazi gura duguna argitu nahi genuke.

Oro har, normalkuntzaz diharduGunean, euskararen berreskurapenaz ari gara, lurralde osoan bai maila pertsonalean, eta bai sozialean eta ofizialean ere, inolako menpekotasunik gabeko erabileraren bitartez gauzatzen dena alegia.

Liburu honetan lantzen dugun esparruari dagokionean, hezkuntza/irakaskuntza hain zuzen ere, normaldutako egoeran euskara izango litzateke irakaskuntza-sistemaren berezko hizkuntza; beraren bitartez ikasi eta komunikatuko ginateke, bera izango litzateke hezkuntza-tresna eta bera kultura transmititzeko eta sortzeko bitartekoa.

Argi dago prozesu gisa ulertu beharra dagoela, eta ibilbidea luzea denez, okerreko bidea ez hartzen ahalegindu behar dugu, eta urratu beharreko bide horretan urrats bat edo beste ematea da lan honen helburua.

Garapen biologikoa eta garapen kulturala

Gizakia Natura osoko izakirik garatuena da. Esaldi horrek egoki jasotzen du gizakiak Naturan duen nagusigoa. Hala ere, gizakia animaliarik ahulena dela esan ohi da, ez baita gai bizitzaren aurreneko urteetan berak bere kasa bakarrik bizirauteko. Hori horrela bada ere, ez dago esaterik gizakumea gainontzeko animaliak baino osotugabeagoa denik. Gizakiak espezieen bilakaeraren haritik jauzi kualitatiboa egin du. Pertsona ororen genotipoan (ondare genetikoa) antzinako senak eta instintuak ere badira, agerian behatzerik ez badago ere, eta gure portaera automatikoen alderdi anitzetan haien eragina suma daiteke. Horra hor beldurraren eraginez –besteak beste– pertsonaren portaera adierazgarriak: kokiltzea, arreta egoeran jartzea, izerditan paratzea, etab. Horra bestela jaioberrien ibiltze- eta oratze-erreflexuak, jaio eta ordu gutxitara desagertzen direnak.

Nolanahi ere, espezie guztien artean bakarra ez izanagatik, gizakiak ezinbestekoa du gizartea biziraupenerako. Norbanakoa eta gizartea, gizataldea eta banakakoa, biak elkarren osagarri dira eta batak bestea behar-beharrezkoa du biziraupenerako. Horrela, gizakiaren garapena ardatz bikoitzeko prozesu gisa eratzen da (Vygotski, 1924): garapen organiko edo biologikoa alderdi batetik, eta garapen kulturala bestetik.

Garapen biologikoari dagokiolarik, milaka urtetan aldaketa adierazgarririk ez dela eman esan genezake. Gizakiaren fenotipoan (oro har, behagarria dena) zein genotipoan (ondare genetikoa) ez omen dago alde handirik oraingo eta orain dela 5.000 urteko pertsonen artean. Banaka-banaka hartuta, ez genuke gu eta gure

arbasoen artean diferentzia handirik aurkituko. Gizartearen bilakaera ostera, abiada handikoa izan da. Mende bakan batzuetan izandako aldaketak izugarriak izan dira, eta askotan ez dirudi gizakia bera aldaketa horietara moldatzeko gai denik. Gizartearen garapena eta berorren aldaketen eragilea eta bultzagilea kultura da. Kulturak eraldatzen du gizartea edo, zehatzago esanda, kulturek aldarazten dituzte gizarteak.

Pertsonaren genotipoak fenotipoaren mugak jartzen dituen modu berean, horrela zehazten du gizartearen kulturak pertsona horren garapenaren testuingurua. Ondo uler dezagun elkar, ez gara mundura sortzen orain garen moduan; zorionez, ez dago maila horretarainoko determinismorik. Elkarren klonikoak izango bagina ere, kultur testuinguruak eta horren murgilean norbanakoaren garapenak bereiziko gintuzke; hau da, pertsona guztiak oinarri eta izate berekoak izan arren, elkarrengandik desberdinak izatera heltzen gara. Gure artean aniztasuna da nagusi, maila batean edo bestean desberdinak gara, bai ezaugarri fisiko eta fisiologikoetan zein ezaugarri psikiko, gaitasun eta nortasunezkoetan ere.

A.R. Luriak (1978) sakonki aztertu du garapenaren auzia. Bere irakaspenei jarraiki asko ikas dezakegu. Berak dioskunez, gizaki ez diren animalien artean, oro har, goren mailako prozesu nerbiosoak banakakoaren esperientziaren ondorio gisa uler daitezke. Hau da, animalien portaera zerbaitek mugatzen du, eta hau horrela izanik, aldez aurretik jakin dezakegu –neurri batean behintzat– animalia bakoitzak egoera jakinean zer egin dezakeen eta zer ez. Natur zientzietan eta bereziki zoologian ohikoa da animalien portaera zehaztasun handiz deskribatzea, harik eta zenbait kasutan gertatu aurretik antzeman ahal izateraino. Adibide gisa, 1995. urtean

Nafarroan gertatutakoa aipa genezake. Jakina denez saiak, hildako abereen hondakinaz elikatzen dira; adituen esanetan, putreak ez du bizidunik erasotzen, portaera hori ez-ohikoa da saiengan, ulertezina. Hala ere Nafarroako zenbait artzain eta abeltzainek ganaduaren kontrako saien erasoak salatu zituzten. Adituek, berriz, ezinezkoa zela ihardetsi zieten, putreek ezin eraso dezaketela animalia bizidunik; izatekotan, kasu isolaturen bat izan zitekeela zioten, salbuespena, subjektu *eroren* baten eginkizuna, alegia.

Gero eta gehiago jakiteaz gain, gero eta hobeto ezagutzen ditugu animalien portaerak. Dagoeneko, ezagutzen ditugulako, gauza gara zenbait animalien ziklo biologikoa errespetatzeko. Kasu batzuetan badakigu zerk sortarazten dituen animalien portaera jakinak eta, horregatik, manipulatu egin ditzakegu, gure mende jarri hain zuzen ere. Jakituria horren adibide ugari dago. Toreatzailea ausartenarenak egingo luke –kasu baterako– zezenaren portaeraz tutik ere jakingo ez balu. Ez da ausardia zezena toreatzailearen menpe jartzen duena, ezta ezpata ere, zezenaren portaerari buruzko toreatzailearen jakituria baizik. Zezenak bere etsaiaren portaeraz toreatzaileak beste jakingo balu, ez litzateke zezenketarik egingo, toreatzaile guztiak hilda baileudeke.

Animalien portaeraren ezaugarriren bat aipatzekotan, malgutasun-eza nabarmenduko genuke; hots, aurreko baldintzak ezaguturik, portaera jakina iragar dezakegu. Espezie bereko subjektu guztiek berdintsu jokatzen dute egoera jakinetan, batengandik bestearenganako ez da ia portaera-diferentziarik. Are gehiago, belaunaldiz belaunaldi espezie bereko kideek errepikatu egiten dute beren aurrekoek egindakoa; portaera jakinak porrota eta kalteak badakarzkie ere, bere horretan errepikatzen dute. Horretaz baliatzen

dira ehiztariak, esaterako. Ehiztariek usoekiko duten nagusitasuna ez datza soilik suzko armetan, usoak noiz eta nondik igaro behar duten jakitean baizik.

Gatozen bada gure aztergaiaren harira. Gainontzeko animaliena ez bezala, gizakiaren garapena bere kideekiko esperientzien trukaketaren bitartez gauzatzen da. Truke horretan, elkarren arteko harremanak eta, batik bat, hizkuntza, funtsezkoak dira. Ikuspegi horretatik, hizkuntzak jasotzen du pertsonen ondarea belaunaldiz belaunaldi. Haurrari objektuak izendatzean, objektuen arteko loturak eta erlazioak aipatzean, errealitateari buruzko gogoetarako tresna berria eskaintzen diogu. Pertsona heldu eta haurren arteko hizkuntza bidezko harremanak hizkuntza-sistemaren sorrera ahalbidetzen du umeengan eta, hizkuntza-sistemak haurren adimen prozesuaren berrantolaketa dakar.

Lengoaia, komunikazioa eta hizkuntza

Lengoaia, zeinu eta ikurren bitartez, gizakiok errealitatea kodatzeko dugun sistema konplexuen ekoizpen-gaitasuna da. Honen helburua litzateke, batetik, berari buruzko ereduak sortzea, errealitate kulturala alegia, eta bestetik, sozialki kosmobisio horrekin bat datozen norbanakoen arteko komunikazioa eraikitzea[1].

Lengoaia gaitasun modura ulertzen badugu, hizkuntza kontzeptu zehatzagoa da; kanpo-harremanetarako gizatalde bakoitzak erabiltzen duen kodea alegia. Hona hemen *Rondal* eta

[1]Buxó, M.Jesus. (1983). *Cuadernos de Antropología*. "Antropología lingüística" 3. Barcelona. 5. or.

Comblain-ek egiten duten definizioa: *Hizkuntza, sakonean aztertu izan den eite/esanahien arteko erlazio-sistema* da. Hizkuntzak, idatzia izan zein hitzezkoa edo keinuzkoa izan, esanahi-unitateak edo kontzeptuak, eite-unitateekin uztartzen ditu arbitrarioki. Honela, bada, unitate linguistiko sailak elkarren artean konbinatzen ditu modu jakin batean, oinarrizkoenetatik konplexuenetara, maila fonetiko, sintaktiko eta semantikoa kontuan harturik, adostasun edo kontsentsu inplizituaren bitartez, gizatalde jakin bateko kideentzat komunikazioa ulergarria gerta dadin, baina ulergaitza, aldiz, besteentzat[2].

Oraindik ziurtasun osoz ezin esan badaiteke ere, badirudi hizkuntza pixkanaka-pixkanaka sortu zela gauzak izendatzeko, emozioak adierazteko, denbora- eta espazio-erlazioak kodatzeko, kausa eta ondorioaren logika azaltzeko, iragana orainarekin erlazionatzeko eta etorkizuna planifikatzeko beharrezkoa den gertakizunen sekuentzia eraikitzeko. [3]

Hizkuntzaren sorrera ez dago, beraz, organismoaren sakonean kokaturik, baldintza historikoetan baizik, komunikazio-modu konplexuagoen beharra zuten gizarte primitiboko kideen baitan, alegia. Antzinako gizarte horretan, kideen arteko lan-banaketarekin batera hasi zen hizkuntza komunikazio-tresna gisa garatzen. Honela sortu zen ahozko hizkuntza, zehatz-mehatz nola izan zen oraindik ez dakigula. Hitzak pixkanaka hasi ziren lan-jardueretatik eta kokatze-keinuetatik banatzen. Hitzen bitartez, objektuen ezaugarri jakin

[2]J.A. Rondal et A. Comblain "L'apprentissage des langues étrangéres: aspects psycholinguistiques" *Les langues modernes*.10. or.

[3]Buxó, M. Jesus (1983). *Cuadernos de Antropología*. "Antropología Lingüística" 3. Barcelona. 7. or.

batzuk orokortzeari eta, ondorioz, abstrakzioari ekin zitzaion. Azkenik, izendatze, orokortze eta sistematizatze-funtzioak sortu zituzten[4].

Guztiek onartutako ideia da, hizkuntza ikur-sistema jakin bat barneratzeko ohiko bitartekoa dela (kultura ikastekoa), eta jardun ondoren mundua irudikatzeko modu hau ezaugarri bereziez janzten dela. Aipatutako ezaugarri hauek ez dira egonkorrak; hizkuntzak eraldatuz doaz denboraren poderioz, egokitze-beharren eta kultur konplexutasunaren mailaren arabera. Hizkuntza eta kultura uztarturik daude, beraz, eta gizarte jakin baten ezaugarri bilakatzen dira.

Hizkuntzaren alderdi soziala azpimarratzen jarraituko dugu; izan ere, haurrak hitz egiten ikasten badu, berari hitz egiten diotelako da. Hitz egiten ikasiko duela itxaro dugu, eta jaiotzen den une beretik hizketan hasten gatzaizkio. Ezinbestekoa da, beraz, jardun soziala[5]. Hain da garrantzizkoa alderdi soziokomunikatiboa, ezen haurrak ezin ikas baitezake hizketan inor berarekin interesaturik ez badago, inolako estimulaziorik gabe bakarrik uzten badugu, edota entzuten duen hizketaren esanahia sekula bere mailari egokitzen ez bazaio.

Ideiak elkarren artean trukatu ahal eta nahi izatea gizakien ezaugarria da, hizkuntzaren bitartez lortzen duguna. Hau dela-eta, bereziki gizartekide egiten gaituena hizkuntza dela esan ohi dugu. Beraz, hizkuntzak hurbildu egiten gaitu, baina bai eta aldi berean banatu ere, kultura bat besteagandik bereizten den hein berean.

---

[4]Luria, A.R., (1978). *Cerebro y Lenguaje. La afasia traumática: síndromes, exploración y tratamiento*. Ed. Fontanella. Barcelona.

[5]Tough, J. (1987): *El lenguaje oral en la escuela. Una guía de observación y actuación para el maestro*. M.E.C. y Visor. Madrid. (1.arg.:1976) 23. or.

Soinu bat –hitz bat– ez da haurrarengana helduko baldin eta haurraren interesa pizten duen gauza zehatzari lotzen ez bazaio, edota une horretako hausnarketari ez badagokio: ahoskatutako hitzak haurraren une horretako kezkari lotzen bazaizkio, hitzak iritsiko zaizkio, bere aplikazio eta esanahia une berean ikusiko duelako. Hizkuntzaren bitartez haurrak bere garun-eragiketak eta ohiko gizarte-harremanak arautu ahal izango ditu eta, honekin batera, hizkuntzak bere asaben kultur ondareaz jabetzeko bitartekoa eskainiko dio[6].

Jasoko duen kode-mota, bera txertatuta dagoen ingurune linguistikoaren araberakoa izango da hastapenean. Zenbait kasutan kodeak eskasa eta urria izaten jarraituko du, baina beste zenbaitetan hizkuntza dotore apainduko da eta zehaztasun-maila handia lortuko du, zeinaren bitartez eskola- eta lan-munduko arrakasta bideratu eta zientzia eta kulturaren giltzarri bilakatuko den.

Hizkuntza eta pentsamendua

Animaliengan, antropoideak barne baina gizakiak izan ezik, hitza eta pentsamendua ez daude elkarri loturik. Era berean, haurraren garapenean badago aro bat aurre-linguistikoa dena pentsamenduan eta aurre-intelektuala dena hizkuntzaren baitan. Pentsamendua eta hitza oinarri-oinarrian daude uztarturik. Uztarketa hau aldakorra da eta estutu egiten da garatzearekin batera. Okerra litzateke pentsamendua eta hitza prozesu berezituak bailiran

[6]McKenna, A. (1980): "El papel del adulto en el lenguaje del niño". *Infancia y Aprendizaje*. 86. or.

hartzea. Hitzezko pentsamenduaren batura hau hitzaren esanahian gauzatzen da[7].

W. von Humboldt (1960) filologoak, hizkuntzaren azterketaren bidez pentsamenduaren prozesuak beha zitezkeela iradoki zuen. Baieztapen honen oinarrian dagoen ideia, hizkuntza antolaketa sinboliko sortzailea dela uste izatea da.

Pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko erlazioa dela-eta, jarrera desberdinak agertu dira historian zehar; baina hauen guztien deskribaketa burutu ordez, guretzat adierazgarriena dena aipatuko dizuegu, Vygotskirena hain zuzen ere. Beraren ustez, *hizkuntzaren eta pentsamenduaren erroak desberdinak dira eta zenbait alderditan bata bestetik nahiko aske garatzen dira, bien arteko uztarketa gertatzen den arte*.

Pentsamenduaren garapena, gizakien gaitasun, kultur baldintza orokor eta gizartearen antolaketaren araberakoa da nagusiki, eta ez hizkuntzaren natura bereziaren menpekoa, nahiz eta hau tresnatzat erabili, pentsamendua bera moldatu eta adierazi ahal izateko.

Vygotskik, *Pensamiento y Lenguaje*[8] liburuan, lengoaia pentsamenduaren bideratzailetzat hartzen du. Honela, garapen-aldian, hizkuntzak eta pentsamenduak bat egiten dute eta honen bitartez pentsamendua lengoaia bilakatzen da eta lengoaia pentsamendu. Uztardura honen ondorioz barne-lengoaia sortzen da;

[7]Vygotsky, L.S. (1981): "Pensamiento y palabra". *Infancia y Aprendizaje*. 15. or.

[8]Vygotski, L. S. (1964): *Pensamiento y lenguaje*. Lautaro. Buenos Aires.

kontzeptu hau izanik bere lanaren muina. Gizakiaren garapenean, barne-hizkuntza hau haurra bere buruari hitz egiten hasten denean antzeman genezake; orduan ematen dio hasiera guztiz soziala den kontzientziaren eraikuntzari.

Luriaren ikuspegiaren arabera, giza lengoaia estuki lotzen zaio giza kontzientziari; errealitateari buruz aktiboki hausnartzeko gaitasunari alegia. Honela, hitzak jarduera kontzientean bi funtzio betetzen dituela dio Luriak: bata erreferentzia (hitzak objektua, ekintza, ezaugarria edo erlazioa ordezkatzen du), zeinaren bitartez barne-jarduera gauza daitekeen, bai eta ezagutza belaunaldiz belaunaldi transmititu ere. Bestea, adiera, hitzek bereganatzen dituzten uztarketa semantikoei dagokiena da. Esanahia, hizkuntza jakin baten jabe diren guztientzat berdina eta egonkorrra den uztarketa-sistema da. Adiera berriz, erlazio eta uztarketa-sistema bakarrari dagokiona da, une jakin batean norbaitentzako erabilgarria gerta daitekeena. Luriaren ustez[9], haurraren adimen-jarduera praktikoaren bilakaera bere hizkuntza aktiboaren bitartez gauzatzen da. Hasieran, inguruan dituenekiko komunikazioaren bitartez adierazten da haurra, eta ondoren bizitzaren orientabide eta jardueraren izaera egituratzailez jabetzen da.

Bere adimen-jardueraren egituraketan parte hartzen duen haurraren hizkuntzak kanporako ezaugarria du hasieran, eta ondoren pixkanaka laburtuz doa, xuxurlatutako hizkuntza bilakatzen den arte. Azkenik, haurrak 7-8 urte betetzen dituenean, ia guztiz desagertzen da, barne-hizkuntza bihurtuz, bera izanik barne-jarduera intelektualaren oinarri. Izan ere, gizakiaren jarduera intelektualaren

[9]Luria, A. R. (1980): *Lenguaje y Pensamiento*. Fontanella. Barcelona.

adierazle nabarmenetakoa baita eginkizun eraikitzaileak burutu ahal izatea.

Ondoren, beste pentsamendu-modu bat agertzen zaigu, goi-mailakoagoa, pentsamendu diskurtsiboa edo logiko-berbazkoa; honen bitartez gizakiak, hizkuntza-kodeetan oinarriturik, kanpo-mundutik jasotzen duen zuzeneko hautematearen mugak gaindi ditzake, lokera eta erlazio konplexuak adierazi, kontzeptuak sortu, ondorioak eraiki eta arazo teoriko konplexuak burutu.

Pentsamendu-modu hau biziki garrantzitsua da. Ezagutzak norbereganatu eta erabiltzeko euskarri, eta gizakiaren jarduera kognoszitibo konplexuaren bitarteko nagusi.

Lengoaiari esker pentsamenduak errealitatearen osagarri funtsezkoenak zehaztu ditzake, eta zuzeneko hautematean desberdinak diruditen gertakizun eta eiteak kategoria berdinpean sailkatu eta errealitatearen alderdi edo maila desberdinei dagozkien fenomenoak antzeman. Pentsamenduaren bitartez hautemateak ezarritako mugak gainditzen dituen kontzeptu abstraktuak sortu eta ondorio logikoak era ditzake: arrazonamendu logikoaren prozesuak burutzea ahalbidetzen ditu, eta beraren bilakaeran esperientzia zuzenaren bitartez ezin jaso daitezkeen arauak aurkitzea. Errealitatea zuzeneko hautematearen bitartez baino askoz ere modu sakonagoan adieraztea ahalbidetzen du.

Luriaren beste ideietako bat hauxe da, alegia, hitz-kontzeptuaren baitan adierazten den lotura-sistema ez dela berbera guztiongan. Ulergarria da aipatutako sistema hau askoz ere aberatsagoa izatea zientzia garaikideak eta eskolak bermatzen

duten ezagutza-multzo garrantzitsuaren jabe direnengan, oso esperientzia eta ezagutza-sistema murritza dutenengan baino; eta hori bai kontzeptu koordinatuen kopuruari dagokionez zein hierarkikoki egituratua dauden "orokortasun neurriak" direlakoei dagokienez.

Ikerketek diotenaren arabera, kontzeptuaren egitura oso da desberdina garunaren garapenaren aldi bakoitzean; eta bilakaeraren maila jarraikor hauetan, prozesu psikiko desberdinak biltzen dira kontzeptuaren itzalean. Hitzen esanahia garatu egiten da. Eta nahiz eta hitz jakin baten sailkapen objektiboak berdin iraun garapenaldi desberdinetan, hitzari dagozkion kontzeptu desberdinen edukia eta honek eragiten dituen loturak erabat aldatzen dira.

Haur txikiarengan hitzak emoziozko bizipen eta irudi zuzenen sistema sortarazten du batez ere; eskolako lehen urteetan dagoen haurrarengan, hitza oroimen bizien gordailua da nagusiki, eta hau dela-eta, orotuz pentsatzen du. Goi-ikasmailetako ikasleengan eta goi-mailako adimen-garapena lortu dutenengan, hitzak eragiketa logikoen sistema eraikitzen du batez ere, eta hau dela-eta, hausnarketa bidez gordetzen du oroimenean. Tesi hau da bere garaian L.S. Vygotski sovietar psikologo ospetsuak proposatu zuena. Berak azpimarratu zuen lehen aldiz hitzaren esanahiaren egituraren (kontzeptua) eta kontzientziaren egituraren arteko lotura sakona.

Vygotskiren ustez, psikologiaren ikuspegitik, hitz bakoitzaren esanahia orokortze edo kontzeptu bat da. Orokortzeak eta kontzeptuak pentsamendu-jarduerak direla dakigula, esanahia pentsamenduari loturiko fenomenotzat har genezake. Hitzaren

esanahia, beraz, pentsamenduari dagokion fenomenoa litzateke, hizketari dagokiona. Hitzezko pentsamenduan kokatuko genuke hizkuntza esanguratsu hau, pentsamenduaren eta hitzaren arteko uztarketan.

Hitzen esanahia garatu egiten dela jakiteak, bide berriak ireki zizkion pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko erlazioaren azterketari. Dinamikoak zirela frogatu zen, eta ez, ordurarte zenbaitzuek uste zuten modura, gertakizun egonkorrak. Haurra garatzen den neurri berean eraldatzen dira, pentsamenduaren jardun desberdinen arabera. Hitzen esanahiaren barne-egitura aldatzen den bezala aldatzen da pentsamenduaren eta hitzaren arteko erlazioa[10].

Pentsamenduaren eta hitzaren arteko erlazio hau prozesu bat da, ez gertaera; pentsamendutik hitzera eta hitzetik pentsamendurako etengabeko joan-etorria alegia. Eta joan-etorri honetan pentsamenduaren eta hitzaren arteko erlazioak aldaketak jasaten ditu. Ikuspegi funtzionala dela medio, aldaketa garapentzat hartzen dugu. Pentsamendua ez da soilik hitzetan adierazten, beren bitartez baizik.

Kanpo-hizkuntzaz jabetzeko, hitz batetik abiatzen da haurra; ondoren, bi edo hiru hitz elkartzen ditu; gero, esaldi bakunetatik konplexuagoetara iragaten da eta azkenik perpaus-sailez osatutako hizkuntza-koherentea eraikitzen du. Esanahiari dagokionean, haurraren lehen hitzek perpaus osoa ordezkatzen dute[11].

[10]Vygotsky, L.S. (1981): "Pensamiento y palabra".*Infancia y Aprendizaje*. 18. or

[11]Vygotsky, L.S. (1981): "Pensamiento y palabra".*Infancia y Aprendizaje*. 19. or

Barne-hizkuntza norbanakoarentzat den hizketa da; kanpokoa, aldiz, besteentzat dena. Kanpo-hizkuntza pentsamendua hitz bihurtzea da, beraren materialkuntza eta objektibakuntza. Barne-hizkuntzan, alderantzizkoa da prozesua: hizketa barne-pentsamendu bilakatzen da. Baten eta bestearen egiturek desberdinak behar dute izan, beraz.

L.S. Vygotskik burututako behaketen ondorioen arabera, dio garapenaldian nahiko berandu agertzen bide da aztarna zuzenen multzoetatik askatzeko aukera, bai eta "hitz" arrotzaren esanahiak aldez aurretik kontzeptu jakin bat osatzen ez zuen ezaugarri-multzoa sortzen duela bereganatzea ere. Hamabi-hamalau urterekin hasten da agertzen, beraz, modu egonkorrean pentsamendu abstraktua (arrazonamendua). Hitza da kontzeptua moldatzen duen bitarteko nagusia. Gertaera edo erlazio bat adierazteko, pentsamendu bat formulatu ahal izateko, beharrezkoa dugu esaldi edo perpaus oso bat eratzen duten hitz edo sintagmen lotura. Sintagma edo hitzen konbinaketa arautua dugu diskurtsoaren oinarrizko unitate, epai edo pentsamenduaren formulatzaile. Konbinaketa arautu hau oinarri bilakatzen da, esaldi edo perpaus bat egituratu ahal izateko.

Giza pentsamendua, hizkuntzaren bitartekaritzaren laguntzaz, jarduera modu emankor berezia ere bada: beraren bitartez, informazioa antolatu, aztertu eta laburtu egin daiteke, bai eta gertaera hautemangarriak kategoria jakin batzuei lotu ere. Honez gainera, eta ahozko informazioan oinarriturik, zuzenean jasotako informazioaren mugak gainditzen eta ondorioak ateratzen laguntzen digu, nahiz eta gertaera zehatzak bizi ez. Giza pentsalaria arrazoitu eta arazo logikoak burutzeko gai da.

Europar neuropsikologian kokatuz gero, Lecours eta Lhermittek[12] hurbiletik jarraitu dituzte kontzeptualizazio vygotskiarrak. Hauen ustez, gizakia hizkuntzaz jabetzearen gakoa, honen oinarri-oinarrizko motibazioan dago: bere pentsamenduak komunikatu eta gainontzekoenak (hitzen bitartez adierazten direnak behintzat) ulertzearen beharra.

Norbanakoaren hizkuntza-garapena eta gizartearen hizkuntza-bilakaera

Hizkuntzaren jabekuntzan prozesu biologiko, psikologiko eta kulturalek eragiten dute.

Chomsky-k, hiztun jakin batek aldez aurretik entzun gabeko perpaus-kopuru infinitua uler eta ekoiz dezakeela azpimarratzen du, honetarako finituak diren bitartekoen erabilera infinitua egiten duela. Bide honi jarraikiz, ez omen dago gizakien artean aldakortasunik hizkuntzaren oinarrizko ezaugarriei dagokionean, nahiz eta aldakortasun handia dagoen alderdi fonetiko eta sintaktikoetan (Lennenberg, 1967). Oinarri teoriko hauetatik abiatzen da hein handi batean psikolinguistika.

Ikaskuntza, prozesu eraginkor eta hautatzailea da, eta honegatik beragatik, inguru kulturalarekiko egokitzapen-modu jakin bat[13]. Nabarmena da haurrak entzuten duen hizkuntzaren eta honen jabekuntzaren arteko lotura estua, zeren eta haur honek

[12]Lecours, R. eta Lhermitte, F. (1979): *L'aphasie*. Flammarion. Paris.

[13]BUXO, M.Jesus. (1983). *Cuadernos de Antropología*. "Antropología lingüística" 3. Barcelona. 20. or.

ikasten duen hizkuntza bere taldekoa baita, eta ez beste edozein. Helduak ditu ikasketa horretan eredu, elkarrekin diharduten testuinguruetan bereziki. Hizketaldi hauetan haurrak eta helduak beren elkarrekintzaren adiera negoziatzen dute[14].

Haurra jaio ondoko lehen hilabetetik hartzen du parte hizkuntzak bere garapenean. Dagoeneko aipatu dugun bezala, sistema linguistikoaz jabetzeak, haurraren adimen-prozesu guztien berrantolaketa dakar. Honela, hizketa oinarrizko komunikazio bidea, errealitatearen azterketa eta sintesi-bide sakona bilakatzen da eta are garrantzitsuago dena, jokabidearen goren mailako arautzailea[15].

Vygotskiren beste oinarrizko ondorioetako bat hauxe da, alegia, gizakiaren adimen garapenaren sorburuak, helduen eta haurraren arteko hitzezko komunikazioan duela ardatza, eta hasieran biren artekoa den funtzioa, haurraren jokabide pertsonala antolatzen duen bitarteko bilakatzen dela.

Hizkuntza-sistema sortzailea dela kontuan hartzen badugu, eta esanahi bera adierazteko mekanismo desberdinak erabil ditzakeela, estrategia jakin baten aukeratzea komunikazio-modu jakin bati lotuta dagoela esan genezake, hizkuntzaren erabilera ulertzeko modu jakin batekin, alegia; eta honegatik pentsa genezake, haurren inguruan bizi diren helduek komunikazioa egituratzeko duten moduari dagoela lotuta, haurrei mintzo

[14]Rivero, M. (1993): "La influencia del habla de estilo materno en la adquisición del lenguaje: valor y límites de la hipótesis del input". *Anuario de Psicología*, 17. liburukia, 45-64.

[15]Luria, A. R. ;. Y., F. Ia. (1978): *Lenguaje y desarrollo intelectual en el niño*. Pablo del Rio. Madrid. (1.arg.:1956)

zaizkienean hautatzen duten edukiarekin; orokorrean, haurraren inguruan erabiltzen den hizkuntzaren ezaugarriekin (Slobin,1985).

Bera, honen arabera, ikaskuntza-modua desberdina izan daiteke inguru sozialaren baldintzen arabera bai eta hizkuntzari ematen zaion garrantzi eta estimulazioaren arabera ere.

Haurrak gutxi gora behera hilabetea betetzen duenean hasten da negarra ez den beste soinurik sortzen. Bi hilabete dituenean, aldaketak nabaritzen dira artikulazio eta doinuan, anitzagoak izanik. Sei eta zortzi hilabete inguru dituenean, modu errepikatzailean ekoizten ditu soinuak. Bederatzi hilabete bete artean, bere organo artikulatzaile-fonatzaileekin jolasean modura ekoizten ditu soinuak, ez komunikazio bide bailiran. Bederatzi hilabete inguru dituenean hasten da mekanismo fonatzaile-artikulatzaile-entzunezkoak berrantolatzen eta hizkuntzari egokitzen; hau da, besteei deitzen eta hauei soinu bakunekin erantzuten. Gutxi gora behera hamar hilabete betetzen dituenean hasten da helduaren hizketaren soinuak ulertu eta imitatzeko gai izaten. Hamabi hilabete bete eta gero hasten da hitzak erabiltzen. Fonematizazio eta sinbolizazioa, hamazazpi hilabetetatik aurrera garatzen dira. Garai honetan azkar ugaritzen dira artikulatzen dituen fonemen kopurua eta erabiltzen dituen hitzak[16]. Hemezortzi eta hogeita lau hilabete aldera hasten da haurra bi edo hiru hitz elkartzen. Garai honetarako, bere gurasoak imitatzeko gaitasunaz jabetu da, baina imitazio selektiboa da hau. Errepikatzen dituen

[16]Lenneberg, E. H. ;. L., E. (1982): *Fundamentos del desarrollo del lenguaje*. Alianza. Madrid. (1.arg.:1975) 175. or.

hitzak, edukiz jantzirik daudenak dira, informazioa bideratzen dutenak: izenak, adjektiboak eta aditzak[17].

IV. taula: Hizkuntzaren ikaskuntza haurtzaro goiztiarrean

HILABETEAK	EKOIZPENA
0	negarra
1	negarra ez den soinua
2	artikulazio- eta doinu-aldaketa, aniztasuna
6-8	soinuen errepikapena, jolasa
9	deiak / erantzunak, intentzioa
10	helduen hizketa-soinuak ulertu / imitatu
12	hitzen erabilera
17	fonemalizazioa / sinbolizazioa
18-24	2 edo 3 hitzen elkarketa

Haurrak esaldi laburrak ekoizten dituenean, sintaktikoki zuzen antolatzen ditu, sintaxiaren oinarrizko arauez oso goiz jabetzen delarik. Honekin batera, haurrak hizketan hasi aurretik ekoizten dituen soinu ez linguistikoetan, entonazio-arauak imitatzen dituela behatu izan da maiz.

Haurrak heldua imitatzen du eta aldi berean helduak haurra du imitatzen, haurrak ekoiztutako hitzen hurrenkerari eutsiaz baina inflexio eta hitz berriak gehituz. Haurrak laburtu egiten du eta gurasoek zabaldu. Garapen kognitiboaren beste alorretan bezala, honetan ere helduak haurrari erakusten diola antzeman genezake, baina elkarrekintza hau –aipatu bezala– bi norabideetakoa da eta ez bakarrik helduengandik haurrarenganakoa, orain arte uste zen modura. Helduek, –amak edo ama-papera betetzen duenak bereziki–, hizkuntza laburtua erakusten dio haurrari eta adimena garatzen den neurri berean zaildu egiten du. Hitz batean esanda,

[17]Bullock, A. (1978): "El lenguaje en los primeros años". *Infancia y Aprendizaje*, 4. liburukia, 44. or.

irakatsi egiten dio (Snow, 1972; Snoe eta Ferguson, 1977; Bruner, 1975). Honela, beraz, komunikazio-sorburua duten mekanismo aurrelinguistikoak badaudela agertu da, eta hauek hizkuntzaren jabekuntzan eragiten dutela[18].

Argi dago, beraz, haurrak hitz egin nahi izan behar duela, berbazko hizkuntzaren bilakaera-prozesua martxan jar dadin.

Badakigu jakin, hizketaren ulermena lehenengo hitza ekoiztu aurrekoa dela. Esanahi semantikoa duten soinuak ekoizten hasi aurretik, haurrak ulertu du dagoeneko gainontzekoekiko harremanean komunikazio-tresna gisa duten garrantzia. Beraz hizkuntza aberastu egiten da harremanaren arabera, eta kanpo-estimulurik ez izateak atzerapenak dakartzala ere badakigu[19].

Haur askok ez dute nork entzun. Honen aurrean seguru aski, erantzunak jasotzen ez dituela ez eta jasoko ez dituela ere ikusita, haurra ez da hauen zai egongo, eta ondorioz, galderak egiteari utziko dio. Hizkuntza landu nahi badugu, beraz, komunikazioa da bultzatu behar duguna. Hizkuntza lantzerako orduan, ez da gramatikazko ariketak egitea besterik gabe oso mesedegarri izango, baldin eta kontestualizaturik ez badaude, ezer adierazten ez badute, haurrarentzat inolako esanahiez jantzirik ez badaude.

Hizkuntzaren ikaskuntza-prozesua, hizkuntza-trebetasunen arabera azter daiteke. Subjektu jakin baten hizkuntza-gaitasuna

[18]Delval, J. (1981): "La evolución de los estudios sobre la adquisición del lenguaje". *Infancia y Aprendizaje*, M.1. liburukia, 6. or

[19]Galligó Mingo, M.,Torres Gil, M. J.,Saumell Vergüs, E., & Galligó Mingo, M. T. (1993): "Un caso de adquisición tardía del lenguaje". *Revista de Logopedia, Foniatria y Audiología*. 201. or.

ebaluatzeko, bere hizkuntza-trebetasunak neurtu ohi dira. Ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmena neurtuz, subjektuen hizkuntza-gaitasunaren berri izan dezakegu. Bestalde, berezko garapenaren azterketa orokorra egiten badugu, ondokoa esan dezakegu:

1. Gizakiaren berezko garapenari darraion hizkuntzaren ikaskuntzan, erabateko hurrenkera beha daiteke hizkuntza-trebetasunen artean; hots, hizkuntza-egoera normalizatuan eta berezko garapenari dagokiolarik, hizkuntza-trebetasunak adierazitako hurrenkerari jarraitzen zaizkio, lehenengo entzuten duena ulertu, ondoren mintzatu, jarraian irakurri eta azkenik idatzi, alegia.

2. Hurrenkera horri atxikiz, maila batetik bestera igarotzeko, aurreko hizkuntza-trebetasunaren nahikotasun-maila gainditzea ezinbestekoa da.

Nahikotasun-mailak ez du adierazten dagokion trebetasunean alderdi guztiak ezagutu eta menperatzen direnik; horren esanahia bestelakoa da. Atalase-maila gisa ulertu beharra dago. Laburbilduz, ulertzen hasi aurretik, kopuru jakin bat entzun beharra dago; gutxienez maila jakin batean menperatu behar da ulermena hitz egiten hasi ahal izateko, honela hiztun osoa bilakatu arte. Era berean, aipatutako nahikotasun-maila hori hizkuntza-trebetasun batetik bestera igaro ahal izateko ezinbestekoa bada ere, hau gainditu eta hurrengo mailara pasatzean aurreko guztiak lantzen jarraitzen dira etengabean. Ulermenaren nahikotasun-maila gainditu eta mintzamenean murgildutakoan esate baterako, ulermena ere lantzen jarraitzen dugu mintzatzean, bai eta irakurtzen

zein idazten ari garenean ere. Eta hauxe bera gertatzen da funtzio guztiekin. Ez daukagu jakiterik norbanakoaren "nahikotasun-maila" zein den zehaztasun osoz; izan ere, norbanakoaren garapenean aldagai anitzek eragiten baitute. Vygotski-ren ikuspegi genetiko-sozialari jarraiki ostera, berezko ikaskuntza epealdi ezberdinetan banatzen dela onartzen dugu. Hau da, ulertzen hasi eta gero hitz egiten dela; mintzatzen dakigunean irakurtzen dugula, eta idazten, irakurtzeko gauza garenean –eta ez aldrebes–.

Ikuspegi vygotskiarra

Norbanakoaren hizkuntza-garapenaren abiaburua hurbileneko hizkuntzaren testuinguruan datza. Hizkuntzaren garabidea, norbanakoaren gaitasunaren eta gizartearen hizkuntza-egoeraren ondorio dinamiko gisa uler daiteke. Ondorio dinamikoa diogu, izan ere, denboraren jarioan aldakorra izanik, gizabanakoen eta gizartearen baldintza beretsuek ez baitakarte ezinbestean garapen bera eta bakarra.

Aurreko pasarteetan, gure azterketen funtsezko ildo metodologikoa ezarri dugu. Vygotskirengandik jasotako ideiak gidari ditugularik, ezin onar dezakegu, besterik gabe, behatzen dugunaren itxura, bere sorburua eta izandako garabidea aztertu gabe. Agerian behatzen dugunak esanahia gal dezake, geure behaketetan bere alderdi ezkutua kontuan hartzen ez badugu. Adibideren bat jarrita, hobeto uler daiteke agian. Demagun trebatu gabeko behatzaile batek itsasoko bizidunak aztertu eta sailkatzeari ekiten diola; behatzen dituen ageriko ezaugarrien arabera, aurreneko unean bederen, marrazoa eta izurdea itxura bereko animaliatzat har ditzake. Sakoneko behaketari lotuko balitzaio, bi animalia-mota horien arteko ezaugarri bereizgarri bakoitzaren azterketak, sorburu eta garabidearen berri emango liokete. Horrela izurdea, lehorreko

ugaztunengandik marrazoengandik baino gertuago dagoela antzemango luke.

Gure azterketan ere –Vygotskik proposatu legez–, garrantzi handiagoa dute sorburu eta garabideak, azterketa-objektuak berak baino; izan ere, edonoren hizkuntza-egoera ez baitago testuingurutik eta berak izandako garabidetik at aztertzerik.

> *Es la sociedad y no la naturaleza la que debe figurar en primer lugar como el factor determinante de la conducta del hombre. En ello consiste toda la idea del desarrollo cultural del niño.*[20]

Aurreko errenkada horietan gure egoera ulertzeko gakoa aurki dezakegulakoan gaude, Vygotskik poposatutako bereizketa –garapen organiko edo biologikoa batetik eta garapen kulturala edo soziala bestetik– guztiz emankorra delako gurea bezalako egoera nahasiak argitzeko. Biak –garapen biologikoa eta garapen kulturala–, elkarri uztarturik gauzatzen dira, jakina, gutariko bakoitzarengan, baina garapen biologikoaren ildoetan ez dago pertsonaren etorkizuna zehazturik, ez dago determinismorik, alegia, eta hau oso garrantzitsua da.

Garapen biologikoa izan da gehien aztertu eta ikertu izan den gaia. Jean Piaget daukagu ezinbesteko erreferentzia. Alabaina, autore horren eta beste askoren ekarpenek alboratu egiten dute garapen kulturala; azken hau, garapen biologikoaren atal bat bailitzan. Ez da horrela. Hizkuntzaren jabekuntza eta pentsamenduaren garapena ez da gertaera bilogikoa, gertaera kulturala baizik, eta ondorioz, gertaera soziala.

---

[20] Vygotski, L.S.; *Obras Escogidas*, III. liburukia, 89. or.

Gizartea, norbanakoaren portaeraren faktorerik aurrenetakoa da Vygotskiren hitzetan. Hori horrela izanik, banakakoaren garapen kulturala (hizkuntzaren jabekuntza, hitzezko pentsamendua, etab.) ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da gizarteari so egitea. Akulturazioa, asimilazioa, gutxiespenak eta antzeko prozesu sozialak pertsonarengan islatzen dira.

Euskal Herriaren kasuan ere, geure arteko bakoitzaren garapen kulturala estuki lotzen zaio bilakaera kolektiboari. Nola ulertu bestela norbanakoaren eta giza taldearen arteko lotura? Ikus dezagun bada non gauden eta nondik gatozen.

XVIII. mendera arte, Euskal Herriko biztanleria –gehienak behintzat– euskalduna zen, euskal elebakarra zehatz-mehatz.

> *... personas de diferente calidad social reconocieron expresamente durante los siglos XVI y XVII la vasquidad lingüística de la mayor parte del reino navarro y de la diócesis de Pamplona. Recordemos los testimonios del albéitar zamorano vecino de Tudela en 1539 ("la mayor parte del Reyno es bascongada"), el posterior del historiador Garibay ("El vascuence se habla en gran parte del Reyno de Navarra") y el del sangüesino licenciado Lubián, vicario de Lumbier: "No hay ningún lugar, ni ciudad ni villa en este Reyno en que no haya bascongados".*[21]

Aipatutako liburu horretan nahikoa argi adierazten da zein izan den euskararen bilakabidea azkeneko mendeetan. Edozelan ere, guri gehien interesatzen zaiguna euskal gizartearen eraldaketa linguistikoa da.

[21] Jose María Jimeno Jurío. *Navarra: historia del euskera*. Txalaparta 1997, 139. or.

300 urte baino ez dira igaro gizartea ia guztiz euskal elebakar izatetik euskara ia galtzeraino. Ez da gure xedea zergatik gertatu ote den arakatzea eta sakontzea; gertaera bera da interesatzen zaiguna: aldaketa dugu nagusi, etengabeko aldaketan bizi gara.

Berrehun urte eman ditugu modu bortitzean euskara galtzen eta azken 50 urteotan berreskurapenaren aldeko borroka latzean dihardugu. Hiru belaunaldiko tartean mutur batetik bestera igaro gara: familia guztiz euskalduna izatetik, guztiz erdalduna izatera. Autonomi Erkidegoan gertatu da, Nafarroan eta Iparraldean gertatzen ari da. Horrek ez al du ondoriorik pertsonengan? Gertaera hori ez al da islatzen norbanakoaren garapenean? Zer jasotzen dugu geure gurasoengandik, geure aitona-amonengandik, geure arbasoengandik? Guraso euskaldunek seme-alabei berea ematen ez dietenean, zer eta norena ematen diete?

Hamaika galdera eginda ere, ez genuke zentzuzko erantzun bakar bat lortuko, ikuspegi osoa eduki ezean. Berreskurapenaren bidean ahalik eta ondoen ulertu behar dugu geure burua; izan ere, ez baitago berreskurapen posiblerik euskal gizartearen garapenetik at, etorkizuna iraganik gabe ezinezkoa den hein berean. Euskara galtzear jarri zuten faktoreak asko izan ziren, eta oraindik ere gure artean diraute.

Hizkuntza eta *curriculuma*

Liburu honetako lehen eta bigarren ataletan, *curriculum*a orokorrean eta euskal *curriculum*a bereziki izan ditugu aztergai. Hizkuntza, berriz, etengabeko aipagai dugu liburu osoan zehar. Lehenengo atalean, *curriculum* hitzaz zer ulertzen dugun adierazi dizuegu hain zuzen ere. Bertan azaldutakoari lotzen gatzaizkio honetan ere.

Dena den, hizkuntza eta *curriculum*a elkarri uztartuta egonda ere, orain artean esandakoaz gain, beste zenbait zehaztapen egitea komenigarria dela uste dugu. *Curriculum*aren alderdi dinamikoari helduko diogu kasu honetan; garapenaz mintzatuko gara berriro ere, baina darabilgun eredu teorikoa ahaztu gabe; hau da, gizarteari so.

Esanak esan, bost azpiatal bereizi ditugu: hitzezko pentsamendua eta barne-hizkuntza, hizkuntzen arteko asimetria eta diglosia, eskolaldia eta hizkuntza-garapena, hizkuntzen arteko asimetria eta eskola eta, azkenik, galera/berreskurapen-prozesua. Gure ustez, bost alderdi horiek nahiko ondo azaltzen dute hizkuntzaz eta *curriculum*az esan dezakeguna osotasunean, aurreko ataletan agertutakoarekin uztartuz.

Hitzezko pentsamendua eta barne-hizkuntza

Lehenik eta behin, hizkuntza-garabideari buruzko funtsezko ezaugarriak aipatu behar ditugu; ikuspegi orokorra eta norbanakoaren batasun funtzionala inoiz ahaztu gabe, jakina. Hitzezko pentsamenduaren sorrera hurbileneko hizkuntza-ereduari lotzen zaion eran, arrazonamendua eta pentsamendu kontzeptuala

gizartearen kulturari eta hizkuntza-egoera jakinei lotzen zaizkie. Pentsamendua aipatzean ezin bazter daiteke kultura, hizkuntza bera ezin bazter daitekeen hein berean; izan ere, gure aburuz, pentsamendua ez baita itxurarik gabeko eitea, aztertu nahi dugun momentu jakin horretatik aurrera behinik behin.

Lehenago esanagatik ere, gure azterlanaren harian orain berriro azpimarratu nahi genukeen ideia da, hizkuntzen arteko ukipen-egoeran bizi izanagatik norbanakoaren batasun funtzionala ez dela hausten. Elebiduntasunak norbanakoari dakarkioen malgutasuna, norbanakoaren gaitasunen (hizkuntza-gaitasunak batipat) eta bizi izandako hizkuntzen arteko ukipenaren araberakoa da. Hitzezko pentsamenduari zeozer nabarmentzekotan, datxekion alderdi soziala nabarmenduko genioke, hitzak edo hizkuntzak dakarkiona hain zuzen ere; dagoenekoz aski frogatua izan baita hizkuntza –neurri batean gutxienik– pentsamenduaren euskarria dela. Barne-hizkuntza zuzeneko gertaera behagarria ez bada ere, badelako usteaz duda izpirik ez dago (Vygotski, 1924); baina barne-hizkuntzaren sorburua ez dagokio norbanakoari, gizarteari baizik, elkarren arteko harremanei esker –komunikazioari alegia– gauzatzen baita.

Norbanakoaren garabideari jarraiki, salbuespenak salbuespen, goi mailako pentsamenduaren garapena (arrazonamendua, kontzeptua) egungo gizartearen kulturari ere estuki lotzen zaio. Gaur egungo gizaterian ezagutza gero eta zabalagoa izateaz gain, gero eta konplexuagoa ere bada. Ezagutzaren ikaskuntzak, berebiziko garrantzia du ikasitakoaren egituraketan eta egituren berregituraketan. Barne-eragiketa horiek –egituraketa eta berregituraketa– kanpotik jasotako ezagutzaren eta barruko antolamenduaren arteko elkar eraginaren ondorioak dira. Pentsamenduaren garapenaren harian momentu jakin batetik aurrera, hizkuntza tresna formala bilakatzen da, kultur ondarearen

ikasbidea, hori bai, baina baita kontzeptuaren egituratzaile eta arrazonamenduaren euskarria ere.

Edozein hizkuntza komunikazio-tresna modura definitu ohi da. Definizio horrekin bat gatoz; alabaina, komunikazioa esatean oinarrizko funtzio komunikatiboak soilik aditzera eman nahi baldin badira, mugaketa antzua egiten delakoan gaude. Arestian esan dugun moduan, hizkuntza ez da soilik kanpo-komunikazioetarako erabiltzen, emozioetan, arretan, oroimena irudimenean, kontzientzian, pentsamenduaren garapenean eta, oro har, pertsonaren barne-jarduera orotan, maila batean edo bestean erabili beharrekoa da. Beraz, berriz diogu, hizkuntzaren azterketan ezinbestekoa da ikuspegi osoa eta integratua izatea.

Hizkuntzen arteko asimetria eta diglosia

... halako hizkuntza-egoera egonkorra, neurri batean bederen, non hizkuntzaren aldaki desberdinekin batera (eskualdeko hizkuntzaren eite normalizatu bat edo gehiago tarteko izan daitezkeelarik) aldaki bat oso berezitua izan ohi den. Hizkuntza-forma hori oso landua da (sarritan besteak baino gramatika konplexuagokoa), eta antzinako hizkuntzaren edo beste hizkuntza-komunitateko literatura zabalaren euskarri da, ezaguna eta onartutako ondare literarioa duena, alegia. Hizkuntza-mota hori hezkuntza-formalaren eremuan hedadura handiz ikas/irakats daiteke, eta mintzaira formal, eta batipat hizkuntza-idatzi modura erabili ohi da. Haatik komunitateko inongo sektorek ez du bera erabiltzen hizkuntza-jarduera arruntenetan; izan ere, ohiko elkarrizketa arruntenetatik landa baitago. [22]

Hizkuntzen arteko ukipen-egoera ez-orekatsuak dakarren asimetriak, hizkuntzen arteko funtzio-esparruen banaketa asimetrikoa

[22]Charles A. Ferguson (1959) *Diglossia in World* 325-350 or.

ekarri ohi du, edo, alderantziz hizkuntzen arteko funtzio-esparruen banaketa asimetrikoak hizkuntzen arteko asimetria azal dezake. Edonola ere, egoera asimetrikoa izanagatik, ezin uler dezakegu hiztun guztiak linguistikoki asimetrikoak izatea, nahiz gehienek horretarako joera izan gizarte-mailako asimetriak eraginda.

Hizkuntzen arteko asimetria eta diglosia baliokidetzat hartuak izan badira ere, bi kontzeptu hauen arteko bereizketa egin beharra dago. Arestian aipatutako Ferguson-en (1959) ideia –hizkuntza-kodeen erabilera berezituarena, goi-mailarako bata eta maila arrunterako bestea– Euskal Herrikoa bezalako hizkuntzen arteko ukipen-egoeran hizkuntzetako bakoitzari egozteak, gertatzen ari dena ezkuta dezake. Zer ari da gertatzen euskara batuaren (kulturarako, unibertsitaterako, literaturarako, komunikabideetarako, administraziorako, etab. dena, hizkuntza idatzia finean) eta kaleko euskararen (euskalki, azpi-euskalki, aldaki eta azpi-aldaki) artean? Diglosia ote? Nola definitu, bestela, hizkuntza-idatziaren murgilean gabiltzanok euskaran bertan egin ohi dugun funtzio-esparruen bereizketa? Gertaera horrek ez ote du izenik merezi? Ez ote da areagotuko euskaldunen belaunaldi berriengan kulturaren eta etxeko euskararen arteko bereizketa? Azken batez, ba al dago esaterik euskaran bertan diglosiarik ematen ez denik? Zergatik kezkatzen gaitu, orduan, euskararen kalitateak?

Gure aburuz, euskara bera ere diglosiak jota dago. Gure hizkuntza, hizkuntzen arteko asimetriaren menpe egoteaz gain, diglosia-egoeran ere badago egon. Horrela soilik uler dezakegu euskaldunen belaunaldi eskolatu eta landuen eta euskaraz eskolatu gabeko belaunaldi euskaldunen arteko haustura.

Hemendik aurrera, derrigorrezko eskolaldia bide, jatorrizko euskaldunek zeinek bere euskalkia eskuratzeaz gain, euskara batua edo kulturaren euskara ere jaso behar dute. Laster batean helduko

da, dagoenekoz etorri ez bada, bizkaitar eta zuberotarren arteko euskara komunak euskalkien mugak gainditzeko garaia. Honek ez dakar euskalkien desagerpena halabeharrez, ez eta gutxiago ere; euskara batuak kendu ordez gehitu egiten baitu. Dagoenekoz, komunikabideetako, unibertsitateetako, eskoletako, eta abarretako hizkuntza, euskara bat baina ez bakarra daukagu.

Kultur hizkuntzak edo hizkuntza landuak kultur hedabidea izatekotan, eta hala da, norbanakoak ere haren beharra du bere goi-mailako garapenerako. Horra hor euskaldunon erronka. Azpimarra dezagun berriz ere, norbanakoaren batasun funtzionala oinarri, bi hizkuntzen jabe izateak ez dakarrela aparteko berezitasunik. Dagoenekoz badakigu elebidun/eleaniztun izatea oso egoera arrunta dela munduan zehar; izan ere, hiru mila hizkuntza inguru ditugu gaur egun munduan, berrehunen bat estatutan barreiaturik. Beraz, eleaniztasuna da ohikoa eta elebakartasuna salbuespena. Egoera berezia, ostera, gizarte-mailan ematen dena da. Hizkuntzen arteko ukipen-egoerak, egoera bereziak dira; are gehiago, ez dago bat bakarra ere besteak definitzeko eredugarria denik. Arruntak izanagatik, anitzak dira.

Dena den, bi hizkuntzatan bizitzeak nortasuna edo banakako gaitasunen zein oinarrizko prozesu psikologikoen bikoizketa edo murrizketa dakarrela pentsatzen duena oker dago. Ez dugu holakorik geure ikerketetan sumatu eta ez dugu inolako arrazoirik hori gerta daitekeenik pentsatzeko.

Eskolaldia eta hizkuntza-garapena

Hizkuntzen arteko ukipen-egoeran murgilduta bizi izan arren, eskolaren funtsezko betekizunak ez dira aldatzen edo, gure aburuz behintzat, ez lukete esanguratsuki zertan aldaturik.

Derrigorrezko eskolaldian (16 urte bitartean) neska-mutil guztiek zehatz-mehatz definitutako ezaguera-edukiak bereganatu behar dituzte, harik eta ezaguera-arlo horietan maila jakin bat lortzeraino. Ikuspegi honetatik, hizkuntza(k) aldi berean ikasgai zein ikasbide izan daite(z)ke. Hizkuntza testuinguru normalizatuan ez dago batere arazorik bereizketa hori zehaztasun osoz antzemateko; horrelakoetan, hizkuntza alderdi formalean ikasgaia bada ere, ikastresna izaten da beti. Bi hizkuntza elkarren ukipenean daudelarik, ordea, aurreneko arazoa hori berori da; hots, bi hizkuntzetatik zein hartu eskola-hizkuntza[23] gisa: bata, bestea ala biak.

Erabakitzerakoan, kontuan hartu behar dugu indarrean dagoen hezkuntza-sistema. Jakina denez, hezkuntza-sistema normalizatuetan, oro har, eskola-hizkuntza ikaslegoaren hizkuntza baino ez da; baina murgiltze-ereduak deritzenetan, ikas/irakasteko hizkuntza nagusia ikaslearen jatorrizkoa ez den beste hizkuntza bat, izan ohi da. Hau horrela izanik, hizkuntzen arteko ukipen-egoerako eskoletan eskola-hizkuntza hautatzea arazo politikoa da funtsean; izan ere, aspaldidanik frogatuta baitago irakaskuntza edozein hizkuntzatan gara eta burutu daitekeela. Agian erantsi beharko genioke, *corpus estandarizatua duen edozein hizkuntzatan*.

Euskara batuak, hizkuntza estandarizatu modura, nahikotasun-maila lortu du eskola-hizkuntza izan ahal izateko; hala ere, oraindik arazo ugari dago, hala nola: ikasmaterial urria, hizkuntza-idatziaren eredu-aniztasuna (euskalkiak)... Erdararen kasuan, ostera, eskola-hizkuntza izan daitekeela duda izpirik ez daukagu, urteetako esperientziak bermatzen baitu, halako eskola-erdara badagoela; hots, erdaren hizkera formal bat, adin eta ikasmaila jakinetan edozein eskolatan irakasten eta erabiltzen dena. Honela, erdal

[23] **Eskola-hizkuntza** badiogu eskolarako hizkuntza adierazi nahi dugu, zenbaitetan *ikasbide* esan diogu ere. Azken batez edukiak irakasteko erabiltzen den hizkuntza(k) adierazi nahi d(it)ugu.

eskoletako neska-mutikoen erdara idatzia aztertuko bagenu, haien arteko diferentzia esanguratsurik ez genuke antzemango; ez bada, jakina, hezkuntza-ereduen (publikoa/pribatua) artean edo, klase sozialen artean eman litezkeenak, edota bakoitzaren gaitasun mailari lotuta daudenak.

Dena den, ez dagokigu guri hizkuntzaren corpusa bat-batean finkatzea, hori prozesu luzea eta korapilatsua baita, egunez egun eta urtez urte burutzen dena alegia. Haatik euskal eskolari dagokio bere eskola-hizkuntza estandarra garatzea, corpusean eragin esanguratsua izan dezakeen euskara hain zuzen ere.

Orain artean jakintza-arloak edo edukiak aipatu ditugu, eta hizkuntza(k) d(ir)ela haien jabetzarako bide. Hala ere, ezin ahantz dezakegu, pentsamenduaren oinarrizko eta funtsezko osagaien garapena derrigorrezko eskolaldian gauzatzen dela. Zertan eragiten du, bada, eskola-hizkuntzak pentsamenduaren garapenean? Zaila da benetan galdera horri erantzun zuzena ematea; hala ere, zerbait esateko moduan gaudela uste dugu.

* Aurreneko urteetan jatorrizko hizkuntza da hitzezko pentsamenduaren oinarria. Beste hizkuntzarik ez dagoenean, hizkuntza hori hitzezko pentsamenduaren oinarri bakarra da eta hitzezko pentsamenduaren garapena hizkuntza horren garapenari lotzen zaio ezinbestean.

* Nerabezaroaren atarian eta nerabezaroan egitura berri bat agertzen da pentsamenduan: kontzeptua. Jatorrizko hizkuntza besterik ez dagoenean, kontzeptua eta pentsamendu berriaren garapena hizkuntza horri lotzen zaio ezinbestean, eta ondorioz,

pentsamendu-mota berri hori ere, lehen bezala, hizkuntzaren garapen-mailari lotzen zaio.

∗ Orokorrean, hitzezko pentsamenduaren garapena, hizkuntzaren garapen-mailan bertan antzeman daiteke; hots, zenbat eta hizkuntza landuagoa eta aberatsagoa izan pentsamendua ere landua eta aberatsa izaten dela esan dezakegu.

∗ Gauzak horrela, ezin har genezake hizkuntza –eskola eremuan– kanpo-komunikaziorako tresna gisa soilik; garapen osorako tresna gisa hartu behar dugu. Goi-mailako hiztunak lortzea goi-mailako ikasleak lortzearekin bat dator, oro har. Hizkuntza urria eta traketsa darabilen horrek, agian, kale-mailako komunikazioan ez du inolako arazorik, baina bai, aldiz, bere eskola-garapenean.

∗ Jatorriz bi hizkuntza dituenak, hitzezko pentsamendua batean, bestean edo bietan gara dezake aldi berean. Elebidun hauek besteekiko desberdinak izatekotan, malgutasunean direla esan genezake, elebakarrek baino tresna gehiago dituztelako eskura, egoera desberdin gehiagori aurre egin behar dietelako, bai eta esperientzia gehiagoren jabe izaten direlako orokorrean; baina ez besterik. Jatorrizko elebidun hauek lantzen duten hitzezko pentsamenduaren hizkuntza eskolaren menpe dago hein handi batean; hots, zein eskola-hizkuntza ezartzen zaien arabera. Honek berebiziko garrantzia du hizkuntzen arteko egoera asimetrikoan murgildutako eskolan; izan ere, hizkuntzetako bat gitxietsita dagoenez, ez da gizarte-mailan eskubide-berdintasuna bermatzen ez eta hizkuntza- eta kultur-garapena bi hizkuntzatan, hizkuntza gutxiagotuan

gauzatzen ez bada behintzat; izan ere, azken egoera honek beronek soilik bermatzen baitu garabidea hizkuntza gutxiagotuan burutzea, eta estatusa dela medio, ondoren hizkuntza nagusian ere berez gauzatzea. Baina ezin esan genezake inolaz ere alderantziz gertatzen denik.

* Jatorrizko elebidunen kasuan, kontzeptua eskola-hizkuntzaren arabera ere definitzen da. Horrek defini dezake neurririk handienean hiztun horien hizkuntza-portaera, hizkuntza batekiko edo bestearekiko joera izatea hain zuzen ere.

* Eskola normalizatuetan ez da erabiltzen eskola-hizkuntza modura inolako kale-hizkera, ez eta giza multzo jakin bateko hizkera berezirik ere. Aipatu eskola-hizkuntza hori eskolen arteko eredu komuna eta estandarizatua da, ikasleen ikasmaila eta adinari egokitua eta erraztasun/zailtasun edo konplexutasun dimentsioaren arabera antolatua. Zenbat eta maila landuagoa izan, eskola-hizkuntza eta kale-hizkeren arteko distantzia are nabarmenagoa izan ohi da. Ikasleei ez zaizkie onartzen hizkuntza-eredu ez-formalak beren eskola-lan formaletan; eredu ez-formal horiek etengabe zuzentzen zaizkie eta dagokion eredu formala jakinarazten zaie, ikas dezaten.

Hizkuntzen arteko ukipen-egoera desorekatuetan, –nagusitasun/menpekotasun erlazioa ezartzen denean– eskola erabili izan da hizkuntzen ordezkapenerako tresna gisa. Horrelakoetan, eskola-hizkuntza hizkuntza gutxiagotua izan beharrean, bestea izan ohi da, nagusia, ordezkapenerako hizkuntza dei geniezaiokeena. Hizkuntza gutxiagotuko ikasleek, hizkuntza arrotzean murgilduta, beren jatorrizko hizkuntzan elkarrekin mintzatzeari utzi behar izan

zioten aurrenik eta, garrantzitsuena dena, hizkuntza arrotzean pentsatzen ikasi, harik eta jatorrizko hizkuntza hitzezko pentsamendutik baztertu arte, nahiz eta oinarrizko komunikaziorako (etxean, lagunartean, ..) galdu ez. Horren helburua, hiztuna iraultzea zen, ez bakarrik behagarria den hizkuntza-portaerari begira, batez ere barne-hizkuntzari begira baizik; hots, hitzezko pentsamenduaren eta kontzeptuaren garapenari begira, hiztunaren baitan hizkuntzak ordezkatu. Izan ere, gehienetan hizkuntza jakin batean pentsatzen duen hiztunak horrekiko joera erakusten baitu.

> *Desde la prehistoria y hasta ahora, la primera lengua que en la Tierra Vascongada aprendían los niños desde la cuna, la que se hablaba en el hogar, en las calles, en los juegos y en las iglesias era el vascuence. El castellano aprendido en la escuela apenas tenía consecuencias prácticas para la mayoría de los alumnos. Mayores y niños pensaban en vasco, hablaban en vasco, y, como San Francisco Javier, morían hablando vasco, su lengua ordinaria y habitual. La acción de los maestros era puramente accidental. Al salir a la calle, el alumno aparcaba el idioma de la escuela y retomaba el suyo. .../... En la complejidad crítica de unos tiempos convulsionados el panorama cambió de raíz. Desde ahora será distinto. Al objetivo tradicional de la enseñanza escolar: leer, escribir, contar y la doctrina cristiana, se añadirá el aprendizaje del castellano y en este idioma. No se trataba de enseñarlo haciéndolo compatible con la lengua materna, como algunos pretendían. Era preciso imponer el uno y erradicar el otro, recurriendo a métodos coercitivos expeditivos, como si hablar vasco fuera un gran mal.*[24]

[24] Jose María Jimeno Jurío. (1997) *Navarra: historia del euskera*. Txalaparta, 186-187. or.

Horregatik, erdal eskolatik igarotako jatorrizko euskaldunak, euskaldun peto-petoak izanda ere, ederto baino hobeto moldatzen dira erdaraz matematikan, gai tekniko-zientifikotan eta, oro har, landutako jakintza-arloetan, baina ezinean edo oso trakets ibili ohi dira goi-mailako komunikazio-funtzio hauek euskaraz bete behar dituztenean.

Jakina denez, hizkuntzak ikasteko adinik eraginkorrena 12 urteren ingurukoa da, haurra dagoeneko hizkuntza-sistemaz jabetuta dagoelako, eta sistema konplexu honek eskatzen duen heldutasuna eta garapena dagoeneko lortuta dituelako. Azken batez, adina, garaia, metodologia eta norbanakoaren gaitasunak dira hizkuntzaren ikaskuntzarako aldagairik esanguratsuenak.

Hizkuntzak irakastean egin ohi den bereizketa, alegia, lehenengo hizkuntza, bigarren hizkuntza eta hirugarren hizkuntza (*modernoa*), ez da uste daitekeen bezain inozoa. Bereizketak berak bere zama badakar ekarri. Hiztunaren berezko garapenari atxikiz, normaltasuna jatorrizko hizkuntzaren bilakaerari jarraitzen zaiola aldarrikatu izan dute aditu askok. Hori, jakina, jatorrizko erdaldunen kasurako ezarri da beti; jatorrizko euskaldunaren kasuan, ostera, normaltasuna elebiduntasunari edo eleaniztasunari esan ohi zaio. Badirudi hizkuntza gutxiagotuetako hiztunek, besteen maila berean aintzat hartuak izan daitezen behintzat, hizkuntza nagusietako hiztunen adinako gaitasuna lortu behar dutela hizkuntza nagusian –eta errealitateak erakusten digu lortzen dutela–. Hizkuntza nagusietako hiztun elebakarrek, aldiz, ez dute horren beharrik; hizkuntza gutxiagotuan oinarrizko komunikaziorako gaitasuna lortzearekin aski dute. Mota honetako errealitatea bizi dugun guztiok jasotzen dugun hautemate hau da, hain zuzen ere, hizkuntza bat gutxiesten denaren isla argia. Hain dugu inplizituki gureganatuta batzuek eta besteek, oso zaila dela aurreraranzko urratsak ematea, inplizitu horiek argitu eta gainditzeko urrats zuzenak arautu ezean;

bestela, berdintasun hitza hitzetik hortzera erabiliko dugu, hori bai baina berdintasun desberdinak finkatzeko; hiztun-talde baten eta bestearen arteko nagusitasun/menpekotasun egoera finkatzeari, normaltzat hartzeari esango zaio berdintasuna, alegia.

Esanak esan, edozein eleaniztunek bi irizpide nagusiren menpe dihardu, bere eguneroko jardunean hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko:

1. Ondoen menperatzen duen hizkuntza aukeratuko du.
2. Bere inguruan gehien erabiltzen den hizkuntza hautatuko du.

Dakizkigun hizkuntzak gure baitan maila berekoak direnean, elebidun orekatuak garenean alegia, erabiltzen dugun hizkuntzaren hautaketa ingurunearen menpe dago. Baina ezin genezake ahantz, elebiduntasun-mota, beste aldagai askoren modura, dinamikoa dela. Badakigu jakin, aipatutako erabilerak hizkuntzaren kasuan ere eragiten digula, jabetzan bezala lanketan. Garai bateko hizkuntzaren eta maitasunaren edo afektibitatearen uztarketa banaezinaren mitoa baztertzeko moduan gaude egun, burututako ikerketek mito hori gainditzeko frogak eman dizkigutelako. Argiago esanda, garai batean uste zen, errotuen eta sendoen genuen hizkuntza jatorrizko hizkuntza zela (ama-hizkuntza askoren esanetan), eta edozein ezbehar gertatuta ere (istripu, gaixotasun kardiobaskular, trauma, ebakuntza,...) hura zela galtzen zen azkena edo berreskuratzen zen lehena. Gaur egun badakigu jakin, erabiliena den hizkuntza dela hori –landuena, beraz–. Gertatzen dena da, elebakarrengan biak bakarra direla (jatorrizkoa eta erabiliena), bai eta ingurune elebakarretan bizi diren elebidun/eleaniztunena ere. Horregatik dute halako garrantzia gurea bezalako egoeratan murgilduta dauden hiztunen inguruko ikerketek. Horrelakoak egin direnean –eta dagoeneko hainbat

ditugu mundu zabalean bai eta gurean ere[25]– lehentxoago aipatutako ideia azaldu dute. Honekin argitu eta azpimarratu nahi duguna, honako hau da, hots, nahiz eta hiztunak elebidun orekatuak izan ahal, oreka hau erabileraren araberakoa dela. Horregatik, egoera soziolinguistikoa desorekatua denean, hiztun desorekatuak izatea ezinbesteko ondorioa da. Egoera soziolinguistiko orekatuak baino ohikoagoak dira desorekatuak, eta haietan, hizkuntza gutxiagotuetako hiztunak elebidun desorekatuak izatera behartuta daude. Beraz, irtenbidea, desoreka gainditzean dago.

Esandako hau guztia nabarmenki antzeman izan dugu elebiduntasunari buruzko ikerketetan [26]. Ikastoletako urte luzeetako esperientzia batetik, eta Euskal Autonomi Elkarteko eta Nafarroako eredu elebidunen hamaika urtetako esperientzia bestetik nahikoak dira argi eta garbi esateko, jatorrizko erdaldunak euskalduntzeko murgiltze-eredua dela eraginkorrena; hots, euskarazko irakaskuntza ezinbesteko baldintza dela elebidun orekatua izan ahal izateko. Jatorrizko euskaldunen kasuan ordea, hizkuntzen arteko ukipen-egoera asimetrikoa zio, elebiduntasun orekatua euskarazko irakaskuntza bidez soilik lor daitekeela berretsi da, behin eta birritan egindako azterketa/behaketa guztietan, bai gure artean eta bai hemendik kanpo ere:

---

[25] Erriondo, L. (1995) *Afasiko elebidunen hizkuntz trebetasunen azterketa*. UPV/EHUko Argitarapen Zerbitzua. Bilbo.

[26] Rodriguez, A. eta beste *El contexto de contacto de lenguas en las vías de aprendizaje de las formas de simbolización*. UPV 096230-H053/91 –ikerketa proiektua–

Isasi, X. eta beste *Relación y dominancia lingüística en sujetos sometidos a modelos educativos bilingües y/o de inmersión y en situación de contacto de lenguas; una prueba de dominancia lingüística. Indice de bilingüalidad*. UPV 109.231-HA097/92 –ikerketa proiektua–

Alvarez, J.L. eta beste *Contraste empírico de un modelo matemático del uso social de lenguas en una situación de contacto*. UPV 218.230-HA169/93 –ikerketa proiektua–

Erriondo, L. eta beste *Hizkuntz eredu elebidunetan eskolatutako nerabe elebidunen hizkuntza-arautzailea. Kontzeptuaren eraketa eta bilakaera*. UPV 096.230-HA080/94 –ikerketa proiektua–

> *Las repetidas evaluaciones han demostrado que los alumnos que llegan a la escuela con el idioma de una mayoría –como el inglés– como lengua materna pueden tener un buen rendimiento asistiendo a las clases de inmersión en francés, español o hebreo. Rinden en el sentido de no sufrir pérdidas en el desarrollo de su lengua materna porque, aparentemente, tanto las destrezas lingüísticas como el contenido de las materias se transfieren del idioma en que se realiza la inmersión al inglés. Además, los niños anglófonos se benefician de los programas de inmersión en su segunda lengua porque sus destrezas lingüísticas generales aumentan su desarrollo cognitivo y su rendimiento académico se enriquece, y se fortalece y amplía su aprecio por otra cultura y otras personas representadas por el lenguaje objeto de aprendizaje*[27].

Orain arte esandakoa laburtuz, elebidun orekatua aipatu dugu batetik, hizkuntza batean zein bestean elebakarren parekoa dena adierazteko; alegia, edozein funtzio, oinarrizkoenetatik hasita konplexuenetaraino, hizkuntza bakoitzean maila berean burutu ahal dezakeena, hizkuntzen arteko inolako nahasketarik gabe; bi hizkuntza-sistemen arteko independentzia adierazten duen hiztuna alegia.

Barne-mintzaira dela-eta, ikuspegi psikologikotik abiatuta, hitzezko pentsamenduaren hasiera aurreneko haurtzaroan (3 urte bitartean) koka daitekeela aipatu dugu. Jatorrizko elebidunen auzia aparte utzita, hizkuntza bakoitzeko hiztunari barne-hizkuntza jakin bana dagokio; horrela, hizkuntza jakin bakoitzeko hiztunak, hizkuntza horretan eraikitzen du hitzezko pentsamenduaren garapenaren

[27] Genesee, F.; Lambert, W.E.; Holobow, N.E. (1986) "La adquisición de una segunda lengua mediante inmersión: el enfoque canadiense". *Infancia y Aprendizaje*, 33. zkia. 27. or.

oinarria. Hauxe da, duda izpirik gabe, hiztun-mota horien arteko bereizketarik funtsezkoena eta sakonena. Baina honek ez du esan nahi hitzezko pentsamendua egonkorra denik; hots, aldagaitza denik, bizitza guztian hastapeneko hizkuntza horretan garatzen jarraitzen duenik. Pentsamendua bera jardueraren bidez garatu egiten den modura, hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko uztarketa ere, erabiltzen den hizkuntzaren araberakoa da. Oraingo honetan ere lehen esandakoa berresten dugu, gakoa erabileran datzala hain zuzen ere. Honela, erabiltzen den hizkuntzak markatzen du nagusitasun hori; edota, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzekotan, zein funtziotarako erabiltzen den bakoitza, horiek dira nagusiki edo errazago pzosesatuko direnak hizkuntza jakin horretan. Eta nahiz eta prozesua izan, dinamikoa da, pertsona bakoitzaren une bakoitzeko historiari lotuta dagoena.

Aipatutako beste ideia garrantzitsua, eskola-hizkuntzarena dugu. Esan bezala, berebiziko garrantzia hartzen du honek pentsamenduaren garapenean; izan ere, hizkuntza tresna formal modura lantzen baita, eta horixe da pentsamenduari eragiteko eskola-esparruan erabiltzen duguna. Eskola-hizkuntza lantzean, hitzezko pentsamendua ere jorratzen dugu. Horrela. erdal eskolatan eskolatutako jatorrizko erdaldunen kasuan, berezko garapenari bide ematen zaio. Beren garabidean, aurreneko (erdarazko) hitzezko pentsamenduari jararaitzen zaio kontzeptuaren sorrera eta garapena hizkuntza berean.

Erdal eskolatan eskolatutako jatorrizko euskaldunen kasuan, aurreneko hitzezko pentsamenduaren garapena euskararen bidetik abiatzen bada ere, kontzeptuaren sorrera eta ondoko garapena beste hizkuntzan (erdaraz) gauzatzen da, eta honek ematen dio hasiera hitzezko pentsamenduaren hizkuntzaren ordezkatze-prozesuari, erabiltzearen beharrak ordezkapen-prozesu horren norabidea eta bizkortasuna markatzen dituelarik.

Euskal eskolatan eskolatutako jatorrizko euskaldunen kasuan, berriz, hitzezko pentsamenduaren hizkuntza edo barne-hizkuntza euskara den bitartean, arestian aipatutako ideiak garbi ez daudenean eta beharrezko euskarririk (pertsonalak zein materialak) sortu, landu eta erabiltzen ez denean, egoera asimetriko horretan erdarak duen nagusitasunaren eraginez, oharkabean nagusitzen zaigu kontzeptu eta arrazonamenduaren barne-hizkuntza. Horrela azal daiteke gaurko gazte euskaldun eskolatuen artean ematen den erdararekiko joera behagarria beren hizkuntza-portaeran.

Azken buruan, menpeko egoeran gaudela jabetzeaz gainera, normaldu nahi ote dugun erabaki behar dugu, eta egoera hori gainditu ahal izateko, oinarriak sendo finkatu, edozein ikaskuntza arrakastaz gureganatzeko eta etekinak ateratzeko prestatu (baita beste hizkuntzatan ere). Irizpideak nabar antzematen ditugu, hainbat guraso eta irakaslek erdararen beharra sumatu eta aldarrikatzen dutenean, ikasleen edo seme-alaben hobe beharra dutela gogoan. Gure ustez, erdararen beharra baino kultur hizkuntzaren beharra da, eta horixe da, hain zuzen ere, esparru formalean eskolak bereziki eskaini behar duena, duen komunikazio-tresna nagusiaren bidez; euskararen bitartez alegia.

Hizkuntzen arteko asimetria eta eskola

Hizkuntzen arteko asimetria faktore askoren ondorioa izanik ere, neurtu egin daitekeelakoan gaude; bai gizarte-mailan zein gizabanakoarengan ere, hizkuntza bakoitzak betetzen dituen funtzioak eta esparruak zehaztuz. Gure kasuan, hizkuntzen arteko erlazioa asimetrikoa delarik, asimetria hau berau da bakoitzak dituen hizkuntzen artean nagusitzen dena, hiztun gehienengan.

Alegia, gureak ditugun hizkuntzen arteko erlazioa ere asimetrikoa da, eta gauza bera islatzen da eskolan.

Honetan L. S. Vygotski-ren ideiak ditugu berriz ere bidelagun. Azken batez, gizartean behagarri dena –aipatutako asimetria–, hiztunei zor zaie, eta alderantziz. Zaila da hiztun orekatua izatea egoera desorekatuan. Aurrekoari lotuta, hona hemen, W. E. Lambert-ek (1978) elebiduntasun gehigarri eta kentzaileari buruz egiten duen deskribaketa:

> *Existe un bilingüismo de tipo aditivo provocado por circunstancias favorables a las dos culturas en contraste, lo cual provoca la adquisición de una nueva lengua sin que haya pérdida de la lengua y cultura propias. Existe tambien un bilingüismo de tipo sustractivo en el cual el grupo de débil prestigio social suele perder la lengua y cultura familiares para ser reemplazadas por las del grupo de más prestigio.*

Gure artean eta talde gisa, Lambert-ek aipatzen duen elebiduntasun kentzailea eta honek dakartzan ondorioak ezagunagoak izan arrem ere, hiztunei orokorrean dagokiena aniztasuna da; hots, norbanakoaren garapenaldiak desberdinak eta elkarrengandik diferenteak izatea, bakoitzak berea, alegia. Beraz, ez dago, egoera estandar bat bera guztiei eta garapenaldi guztietan ezartzerik, hiiztun bakoitza berezia da-eta. Hala ere berezitasun hauek gizarte-egoerak biltzen ditu eta bakoitzarengan eragiten dute. Horregatik ezin dugu ezikusiarena egin.

Indarrean dagoen asimetria-arazoari aurre egiteko, aurrenik hura badela izan onartu beharra dago. Ez dakienak, jakingura izanik, ikasi egin dezakeelako; baina ez dakienak, jakin nahi ez badu sekula ikasiko ez duelako.

Euskal Eskolak badu nola lagundu, geure ikasleak elebidun orekatuak izatea nahi badugu. Gakoa, gure aburuz, euskararen eremuan dago; asimetria pairatzen duen hizkuntzak behar du laguntza. Berriz ere Lambert-en hitzak dakarzkizuegu, beste errealitateen azterketatik abiatuta unibertsalak izan daitezken ideiekin bat egiten dugula azaltzearren:

> *Nosotros proponemos, no obstante, un principio general que puede tener aplicación universal: en aquella comunidad en la que hay un amplio y consciente deseo de conseguir una sociedad bilingüe o multilingüe, debe darse prioridad, en los inicios de la escolaridad, a la lengua o lenguas que tienen menos posibilidades de desarrollarse, esto es, que tienen más probabilidades de dejarse descuidadas*[28].

Horrela, aurkezten dugun eredua lagungarria izan daiteke, ondoren adierazten duguna hobeto ulertzeko.

Adibide modura aipatuko dugu, ondoren sakonago aztertuko dugun kasuetako bat. Urola bailaran egindako ikerketan (liburuan bertan aipatua), hiztegi-erakarpen gidaturiko proba baten bitartez, 9-14 urte bitarteko neska-mutikoek erdaraz euskaraz baino 1,77 bider handiagoa zen erakarpena agertzen zutela antzeman genuen. Hau da, emandako hitz diferenteen kopurua euskaraz urriagoa zela erdaraz baino. Inori sinesgaitza gerta badakioke ere, gure ustez, hizkuntzen arteko asimetriaren adierazlea baino ez da; izan ere, eskualde hori da Euskal Herriko euskaldunenetakoa eta ikerketan esku hartu zuten eskualde horretako ikasle guztiak D eredukoak ziren. Euskarak dituen baldintzarik onenetako ikasleez ari gara, beraz.

[28] Lambert, W.E. (1981) "Un experimento canadiense sobre desarrollo de competencia bilingüe: programa de cambio de lengua hogar-escuela". *Revista de Educación*, 268. zkia.,

Hauengan ere, euskararen goren mailako garapenari pareko erdararen garapena lotzen zitzaiola antzeman genuen. Are zehatzago, 12 urtekoen inguruan hizkuntzen arteko nolabaiteko oreka sumatzen bazen ere, adin horretatik aurrera euskararen garapena moteltzen zen bitartean, gazteleraren garapena abiada bizikoa zela antzematen genuen ia kasu guztietan. Nola azal daiteke gertaera hori eskualde euskaldun, hizkuntza-eredu euskaldunetan eta ia ikasle guztiak jatorrizko euskaldunak izanda? Horri erantzun nahi genioke hain zuzen ere.

Galera/berreskurapen-prozesua

Arazoaren eredu azalgarria bilatu nahi dugu. Lantegi horren abiapuntutzat egoeraren definizio zehatza eduki behar dugu. Jakina denez, egoera hori "ukipen-egoera" gisa definitu dugu, hizkuntzen arteko ukipen-egoera, alegia. Horrela da, baina definizio horretan okerren bat ezkuta daiteke; hizkuntzek ukipenean maila berean elkarri eragiten diotela hain zuzen ere, orekatua izan daitekeen egoera. Hori ez dela horrela, esan beharrik ez dago. Hizkuntzen arteko ukipen-egoera gizarte-mailako elebitasun-mota bat da; baina egoera hori asimetrikoa izanda zuzentzen ez denean, hizkuntza gutxiagotuaren ordezkapen eta desgerpeneari bide ematen dio. Horrela da, gordin esanda.

Hizkuntza nagusiak esparru geografiko guztiak bereganatu dituelarik, hizkuntza-funtzio guztiak garatzen ditu eta hiztun guztiei –hizkuntza gutxiagotuko hiztunak barne– normalkuntza-eremu zabala eskaintzen die. Hizkuntza gutxiagotuaren –euskararen– behin betiko desagerpenerako oso tarte txikia geratzen da: euskaldunongan hizkuntza-ordezkapena burutzea.


Hizkuntzen desagerpenaren azkeneko urratsak abiada bizian gertatzen dira. Aski da hiru belaunaldiko tartea erabateko iraultza gauzatzeko: euskaldun elebakarra / euskaldun elebiduna / erdaldun elebiduna / erdaldun elebakarra. Gertaera hori oso ohikoa izan da mende honetan, uste baino arruntagoa, tamalez. Euskaldun elebakarren desagerpena da esaten dugunaren zantzua eta hori XX. mendean gertatu da. Miguel de Unamuno-k eta bestek euskara lurperatu nahi zuten, ez baizioten etorkizunik ikusten. Nolabaiteko arrazoia bazuten, hotz-hotzean azterturik, desagerpenaren atarian baikeunden. Gure biziraupenerako oso garrantzitsua da egoera zertan den jakitea, etsipenean erori ordez zulotik atera ahal izateko. Momentuz badiraugu iraun eta ez da gutxi.

Orain euskaldun guztiak elebiduntzen dira, urteak joan urteak etorri eta gero eta gazteago elebidundu gainera; erdaldun batzuk ere euskaduntzen dira Euskal Herrian, baina, horren aldean, euskaldun guztiak erdalduntzen dira. Azkeneko ehun urteotan sekulako erdalduntzearen alfabetatze-kanpaina burutu izan da Euskal Herrian, eta arrakasta osoz burutu ere.

Erdaretan murgilduta bizi gara euskaldunak eta hizkuntza nagusiek indar handia egiten dute euskara gure baitan ordezkatzeko. Indar ikaragarri horri aurre egiteko, hesi bat jarri nahi izan diogu: euskararekiko atxikimendua. Maitasuna, motibazioa, aldeko jarrera, etab. hori omen da batzuen ustez euskararen euskarria. Zoritxarrez, euskararen ordezkapen- eta desagerpen-prozesuan hesi hori ahulegia da eta behin baino gehiagotan gainditua izaten da. Beharrezkoa izan arren ere, ez da nahikoa.

Horrela ulertutako euskararekiko atxikimenduak ezin euts diezaioke luzaro hizkuntza biziari. Egia da bizi dugun moduko galera/desagerpen-prozesuan oso garrantzitsua dela eutsi ahal

izateko, baina ez du euskararen biziraupena bermatzen, ez da normaltzen ari garen seinale. Azkeneko urte hauetan zenbait lurraldetan euskara berreskurapen-bidean jarri bada, hizkuntza-normaltzeko eraikitako tresnei esker izan da, batez ere. Tresna hauen guztien artean euskara batua azpimarratuko genuke. Honekin batera, ikastolen mugimendua, euskalduntze-alfabetatze mugimenduak, euskarazko hedabideak eta, oro har, euskarazko kulturgintza eta euskaraz bizitzeko ekimenak. Horiek dira euskararen biziraupenerako benetako euskarriak, ekimen horiek adierazten digute zein den normalkuntzarako bidea. Aipatutako horrek guztiak ahalbidetzen digu euskararen egoera eta bilakaera eredu baten bitartez adieraztea. Prozesu bat deskribatu behar dugu, gertaera bizia. Bizitza, prozesu gisa ulerturik, oso antzekoa da. Adierazi nahi dugun euskararen atzerapena mendeetan barrena erraz atzeman dezakegu mapetan begiratuz gero. Mendez mende, urtez urte urrituz joan dira euskararen lurraldeak, mugak gero eta atzerago kokatuz. Aurreko mendeetan muga horien baitan euskaldun elebakarrak ziren gehienak. Ikuspegi horretatik, euskaldunek hizkuntza komunitatea autonomoa osatzen zuten:



17. irudia: Euskaldunen hizkuntza-komunitate autonomoa


Erabilitako diagramak zelularen adierazpide grafikoa iradokitzen du; izan ere zelularen ereduak egoki adieraz baitezake azaldu nahi dugun gertaera. Neurri batean euskararen galera-prozesuak antza handia du glotofagia deitutako prozesuarekin eta zenbait zelulen elikatze- eta liseriketa-prozesuekin.

Hizkuntza bakoitzak berez ditu lurraldeak eta mugak. Muga horien baitan hiztunak elebakarrak direnean, mugak igaroezinak dira gainontzeko hizkuntzetarako. Horrelakoetan hizkuntza-komunitatea bere baitan bizi da, autonomoa dela esaten dugu. Honek ez du aldez aurretik hizkuntza-komunitate horren garapenari buruzko inolako aurriritzirik. Autonomia esaterakoan, hiztunen hizkuntza hori nahikoa dela adierazten dugu, komunitate horretako bizimodua inolako arazorik gabe garatzeko. Horrelako kasuetan, muga igaroezina dela genioen, eta geruza horren kanpotik zerbait barrura igarotzeko, "itzuli" beharra dago. Hau da, talde horrekin komunikazioa lortzeko bide bakarra "itzulpena" da. Hori da autonomia duten hizkuntza-komunitateen berezko babesa; geruza horrek ziurtatzen du hizkuntzaren biziraupena.

Hala ere, hizkuntza-komunitate guztietan hiztun-kopuru jakina elebiduna edo eleaniztuna izan ohi da. Horiei esker egin daiteke, besteak beste, hizkuntza-komunitate desberdinen arteko trukaketa; haiexek dira "itzultzaileak". Gure diagraman, komunitateen arteko ukipen-guneetan jarri ditugu. Hiztun horiek inguratzen dituen muga –geruza– igarokorra da. Geruza igarokorra izateak, trukaketa norabide anitzetan irekita dagoela adierazten du. Horregatik, marra jarraia marraztu ordez, lerro tartekatu edo ez-jarraia jarri dugu. Geruza horrek ahalbidetzen du batetik besterako komunikazioa.

Euskararen hizkuntza-komunitateari dagokionean, erdaren hedapenak, euskararen lurraldearen etengabeko urripena ezarri zuela ikus dezakegu. Horrekin batera hizkuntza-kolonizazioak, euskaldunen zatiketa, banaketa eta elkarrenganako isolamendua eragin zuen azkeneko mendeotan, komunitatearen izaera deuseztatuz. Nolabait adieraztearren, erdarek "irentsi" egin zuten euskararen hizkuntza-komunitatea. Hurrengo urratsa euskaldunen elebiduntze masiboa izan zen. Egia da, bestalde, galera-prozesu horrek euskara beraren barruko garapenari ere eragin ziola, alegia, zatiketa dialektala, literatura eskasia eta kultur hedabideetatik kanpo izatea; eta elkarreragin hau zela medio, hizkuntza-kolonizazioa erraztu zuten.

Adierazpide grafikoaren irakurketa errazteko, erdaldunak (frantsesak zein espainolak) multzo bakar batera ekarri ditugu. Horrela irudika genitzake desagerpenaren azkeneko urrats horiek:



18.irudia: Hizkuntza-komunitate autonomoaren zatiketa eta desagerpena.


Ikus daitekeenez, hiru fenomeno gertatzen dira aldi berean: euskararen eremu-urripena (lurralde gero eta txikiagoa izatea), komunitatearen zatiketa eta elebiduntze masiboa.

Erdaldunen artean kokatu ditugu gizartearen zenbait osagai (unibertsitatea, lana, teknika, zientzia,...) bizimodurako beharrezkoak izanagatik euskaldunek euskaraz normalean ez dauzkatenak. Zerrenda horretan beste batzuk sar litezke; esaterako, osasun-zerbitzuak, merkataritza, industria, artea, literatura, hedabideak edo politikagintza. Edozelan ere, zerbitzu edo jarduera horiek euskaldunen gabezia gisa jartzen ditugu. Egia da azken urteotan euskaldunok aurre egin diegula gabezia horietako batzuei, literatura, hedabideak eta beste zenbait zerbitzu eta jarduera sortuz. Hala ere, ikusmira historikotik behatuta, hori guztia oso gertaera berria da eta eragina oraingoz ez da ia antzematen.

Aipatutako gabezia horiek azal dezakete, neurririk handienean behintzat, euskararen galera eta, aldi berean, euskararen berreskurapenerako erronkaren muina. Hirurogeiko hamarkadan euskaldun batzuek argi ikusi zuten biziraupenaren funtsa bi zutabe hauetan zetzala: batasunaren beharra batetik, eta gizarte modernoaren beharrizanei euskaratik bertatik erantzutea bestetik. Horrela ulertu behar da euskara batuaren sorrera eta horrela ere hezkuntzan, hedabideetan eta kulturgintzan izan diren ekimenak. Testuinguru horretan kokatuta, oso da garrantzitsua euskararekiko atxikimendua, eginbehar izugarri horietarako kemen gisa ulertuta. Horrela izan ezean, atxikimendu hori pasiboa bada, ekimen jakin batzuei lotu gabea, frustrazio eta etsipenaren sorburua izan daiteke.

Garai batean ikastolen mugimendua, gero hedabideak (irratiak, telebista eta egunkaria) eta gaur egun justizia, administrazio edo euskal unibertsitatearen esparruetako lorpenak, esate baterako, izan dira euskaldunok indarberritu eta trinkotu gaituztenak, itxaropen-pizgarriak; proiektu eraikitzaile horiek euskarari bizitza ematen diotelako, esparru berriak zabaltzen dituztelako, funtzio berriak sortarazten dituztelako eta horietan euskaldun izan gaitezkeelako. Laburbilduz, euskaldunen artean lana eta aberastasuna sortzeaz gain, euskara eta euskaldunentzako iraunkortasuna ziurtatzen dutelako, izena izanarekin uztartzen dutelako.

Dena den, hel diezaiogun berriro ereduaren azalpenari. Irudika dezagun berreskurapen-prozesua. Horretarako, esan dugunez, zatiketari aurre egin eta normalkuntza-bideari ekin behar diogu. Hemezortzigarren irudian desagerpenaren aurreko urratsa adierazi dugu. Berreskurapen-bidean, berriz, kulturgintzaren bitartez batik bat, euskaldungoaren trinkotasuna berreraikiko genuke:



19. irudia: Hizkuntza-komunitatearen berrosaketa.

Irudian ikus daitekeenez, euskaldunak multzo bakar batean agertzen dira elebidun edo eleaniztun gisa bada ere, euskal elebakarrak desagertu egin baitira. Batasun hori hizkuntza estandarrean eta kulturgintza-arloko ekimenetan oinarritzen da. Ekimen horien inguruan gauzatzen da atxikimendua, lorpen praktiko behagarrietan, alegia. Euskara batua ildo nagusia izanik, euskaldunon ekimenak eta indarrak sortze-lanetan jartzen dira. Ekimen bateratuei lotuta, eginkizun jakinak burutzeak, ondorengo beharrak sortzen ditu eta azken hauek asetzen ez diren neurrian, hutsuneak agerian uzten ditu. Horrela berrosatzen da euskaldunen hizkuntza-komunitatea.

Urte gutxitan urrats ugari eman dugu. Belaunaldi berrietako euskaldunek hizkuntza-testuinguru erabat berria daukate. Beren aurrekoek sortutakoa haiek kudeatu eta egokitu behar dute. Horregatik, hiztun-mota berria behar dute izan. Haien hizkuntza-gaitasunak nahikoa izan behar du euskararen mundu modernoan lehiatzeko eta sortzeko. Horra hor gure erronka.

Proposatzen dugun ereduari helduz, euskaldunen (elebidunen) komunitatea, *Txepetxen* (Jose Maria Sánchez Carrión) hitzetan, trinkotu egiten da. Baina, komunitate hori biltzen duen muga-geruza igarokorra da. Hau da, erdaretan murgilduta etengabeko trukaketan, haien presiopean dago. Zerk euts diezaioke euskal elebidunen komunitatearen trinkotasunari? Arestian esan dugunez, hizkuntzarekiko atxikimendua trinkotasunari eusteko lotura ahulegia da. Zerbait sendoago behar da. Normalkuntzarako, erkidegoa osatzen duten egiturazko elementuak sortu eta garatu behar ditugu ezinbestean. Berezko hezkuntza-sistema, berezko hedabideak, berezko osasun-zerbitzuak, berezko instituzioak,...


horiexek dira euskal elebidunen komunitatearen benetako "trinkagailuak"; horiexek dira hain zuzen ere, euskaldungoaren osagai eratzaileak eta aldi berean normalkuntzaren oinarri sendoak.

Gizartea eta gizabanakoa, gizabanakoa eta gizartea, etengabeko aipu ditugu. Biak elkarreraginaren gurpilari loturik, norbanakoaren atxikimendua, lana eta ekimena gizarte-eraketaren funtsa direlako.

Garai batean oso modu lausotuan definitutako euskararekiko atxikimendua, gaur egun eite berrietan gauzatzen da. Ez dira egoera bera euskal eskolak, euskal telebista edo egunkaririk gabe bizi ginenenekoa edo oraingoa. Horiek guztiak sortu eta eratzeko behar izan genituen indarrak, orain kualitatiboki modu desberdinean agertzen zaizkigu. Gaur egungo euskaldun gazteen erronka ez da gabezia horiek estaltzea, ez da ez zegoen hori sortzea; gakoa, horien erabilera da. Euskaldunon auzia ETB1eko kirolmania ala Canal + delako film erakargarrien arteko hautuan gauzatzen da. Tradizio eta aukerarik ezean, euskaraz jarduteko gai den esperientziarik gabeko abokatua ala lege-gizon azeri zahar erdaldunaren arteko hautua. Unibertsitateko euskarazko eskaintza urri eta egituratugabea ala sona handiko irakaslearen erdarazko eskolen arteko hautua. Euskarazko literatura apurra ala erdarazko literatura oparoaren arteko hautua. Eta horrela, beste hamaika.

Euskaldunok, normalkuntza-bidean, proiektu eraikitzaileak behar ditugu, ekimen eratzaileak hain zuzen ere. Hiztunen atxikimendua piztu dezaketenak, erakargarriak, gauzagarriak, behagarriak eta iraunkorrak.

Testuinguru horretan lehengo eta etorkizuneko euskaldunek hiztun-mota arras desberdinak behar dute izan. Lehengo euskalduna, alfabetatugabea, erdal eskolako ikaslea, euskarazko egunkari, irrati eta telebistarik ezagutzen ez zuena zen; funtzionalki erdalduna zen. Geroko euskalduna, euskal eskolako ikaslea, euskaraz prestatua eta prestua, alfabetatua, euskaldun elebidunen komunitateko partaidea, euskarazko hedabideen erabileran ekandua izango da; laburbiduz, funtzionalki euskalduna. Laburbil dezagun, azkenik, ondoko irudian galera/berreskurapen-prozesua, proposatutako ereduaren arabera:



20. irudia: Hizkuntzen arteko ukipen-egoerak eta berreskurapen-prozesua

Hizkuntza-prestasuna

Lexikometria

Hizkuntza jakinaren lexiko-bilketak, helburu ugari izan ditzake berez. Hizkuntzalaritzan, kasu, hizkuntzaren deskribapenerako ohiko eta oinarrizkoak dira lexiko-bilketa zabalak; are gehiago hiztegigintzan. Dialektologian ere lexiko-laginketa funtsezko teknika da. Alderdi linguistikoan egindako lanak anitzak eta aspaldikoak dira. ikuspegi horretatik, lexiko-bilduma zabalenak eta osatuenak orotariko hiztegiak dira. Oro har, orotariko hiztegiek hizkuntza jakineko hitz guztiak jasotzea helburu dutelarik, gehien erabiltzen direnak biltzen dituzte. Badira jakintza-alrlokako hiztegi berezituak ere (matematika, medikuntza, etab.), non esparru horien berariazko hitzak jasotzen diren. Edozelan ere, batzuek eta besteek, argitaratutako lan idatziak dauzkate biltzen dituzten hitzen iturburu. Horrela, hitz edo terminoren bat aukeratzerakoan zalantzak sortzen direnean, bi irizpide nagusi ezarri ohi dira bat hobesteko: forma zaharrena edo forma hedatuena.

Hiztegigintzan, ostera, hiztun xumeak ezer gutxi dauka ekartzerik, hiztegigilea bera ez bada behintzat. Hiztuna, hiztegien erabiltzailea da batez ere, eta horrexegatik da hiztegia arau-emaile. Baina zein da hiztun arruntak darabilen oinarrizko hiztegia? Argi dago gaur eguneko edozein hiztegik hiztunok erabil ditzakegunak baino hitz gehiago jasotzen dituela, eta erabiliak diren beste batzuk ez dituela biltzen. Zein da, bada, hizkuntzaren ohiko erabilerari dagokion oinarrizko hiztegia?

Arestian esan dugun bezala, hizkuntza askotan egin izan da hiztunen ahotik edo idazkietatik jasotako lexiko-bilketa. Euskarari gagozkiolarik, lau lan aipatuko ditugu, besteak beste: *Elaboración de un modelo para la descripción sociolingüística del bilingüismo y su aplicación parcial en la comarca de San Sebastián* (Azurmendi,

M.J. UCM Madrid 1984), *Descripción del euskara utilizado actualmente: estudio dialectológico del léxico disponible aplicado a "gorputzaren atalak/partes del cuerpo humano"*. (Azurmendi, M.J. in: *Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos. Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura.* 2.alea, 37-222. or. 1983), *Gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegia* (Sarasola, I. GK Donostia 1982), eta *Euskararen oinarrizko hiztegia. Maiztasun eta prestasun azterketa* (Etxeberria, J.M. eta Mujika, J.A. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz 1987). Lan horietatik atzena izan liteke gure lanaren aurrekari gertukoena. Edozelan ere, guztietan, funtsezkoak dira baliabide estatistikoak; izan ere, estatistika ezinbesteko tresna baita hizkuntzaren erabilera jasotzeko.

Maiztasuna eta prestasuna direlako kontzeptuak agertzen zaizkigu hiztunen ohiko hiztegia aztertu nahi dugunean. Maiztasuna, adiera estatistiko hertsian, gertaera jakinaren agerpen-kopuruari dagokio; hau da, hitz jakinaren errepikapen-neurriari. Alabaina, hizkuntzalaritzaren jakintza-arloan ezin erabil daiteke kasu guztietan hitzen maiztasuna maila berean, ez baita maila berekoa "eta" juntagailua, ohiko hizkuntzan ezinbesteko osagaia, edo "guruina" terminoa, hiztegi berezituari dagokiona. Hots, testuinguruak, mintzagaiak eta solaskideek hitzen maiztasuna (neurria) aldaraz dezakete. Prestasuna berriz, hiztunak erabilgarri duen hiztegiari dagokio. Horrela, hitz jakinaren prestasuna, hiztunengan erabilgarri izatearen batezbestekoari legokioke, hiztunen artean hitz horren berorren baleko agerpen-kopuruari alegia. Hona jarraian, hiztegi berezituetan agertzen den prestasunari buruzko definizio bat:

Disponibilidad, disponible. *En la concepción del vocabulario fundamental (uno de los componentes básicos en el aprendizaje de una lengua*

extranjera, junto con la sintaxis y la fonética), la frecuencia léxica es un parámetro básico. No obstante, existen ciertas palabras poco frecuentes (pan, leche, ventana, puerta, etc) que son usuales y necesarias desde el punto de vista comunicativo. A estas palabras se les llama disponibles y se llama disponibilidad al criterio mendiante el cual se seleccionan vocablos que se consideran deben estar a disposición de los hablantes de una lengua extranjera, aunque su frecuencia sea baja. El criterio de la "disponibilidad", también llamado valencia de palabras, es un fuerte corrector del de frecuencia de palabras, ya que no sólo las palabras frecuentes son las útiles sino también las que tienen un valor por su utilidad comunicativa, tanto activa como receptiva.[1]

Beraz, hitzen prestasuna, hein handian behintzat, kontzeptu psikologikoa da. Funtsean, maiztasuna eta prestasuna antzeko moduan neurtzen badira ere, agerpenak zenbatzen hain zuzen, prozedura metodologiko desberdinei dagozkie. Aurrena, maiztasuna, ohiko hizketaldi askeetan neur genezake; hurrena, prestasuna, interesgune jakinei buruzko solasaldietan neurtuko genuke.

Hau berau aztertu eta neurtu nahi izan dugu aurreko atalean aipatutako ikerketetan. ikerketa hauek, aldi desberdinak izan dituzte eta guztiak bilduko ditugu hona ekartzeko. Bi hitzetan aipatzearren, lehengo O.H.O.ko 4., 5., 6., 7. eta 8. ikasmailetan (egungo lehen hezkuntzakoak) elebiduntasuna neurtzeko guk sortutako E.B.T. (Elebiduntasun Testa) tresna aplikatu genuen soziolinguistikoki muturretako egoera duten Hego Euskal Herriko bailara eta herrietako ikastetxeetan (Ipar Euskal Herrian ere aplikatu dugu, baina hurrengo batean agertuko ditugu emaitza hauek); hala nola Gipuzkoako Urola bailaran (D hizkuntza-ereduko ikastetxeetan) eta

[1] *Diccionario de Lingüística Moderna*. E.Alcaraz; M.A. Martinez (1997). Ariel. Barcelona.

Bilboko ezkerraldean eta Gasteizen (A hizkuntza-ereduko ikastetxeetan).

Froga honek, haur bakoitzaren bi hizkuntzak aztertzen ditu (euskara/gaztelania; euskara/frantsesa), bost kategoria semantikoka antolatutako hitz-estimuluak agertuz eta ikasleei, beren ustez hauei loturik dauden hitzak idaztea eskatzen zitzaiela.

EBTa, hitz-erakarpen gidaturiko proba gisa definitu dugu. Horrela, hitz-estimuluen eginkizuna, 5 eremu semantiko jakinak subjektuen gogora ekartzea izan da, honako hauek hain zuzen ere: senideak (aita/hermano), gorputza edo gorputzaren atalak (begi/nariz), animaliak (txakur/caballo), jantziak eta apaingarriak (alkandora/pantalón) eta Natura (mendi/sol).

Bost eremu semantiko horiek hautatu izatea, ez da zorizko aukera izan. Eremu semantiko horiek ezagunak izateaz gain, jakina da hizketaldi arruntetan maiztasun handienekoak direla. Honako hau izan da, beraz, aukeraketarako arrazoia.

Lehen aipatutako *Euskararen oinarrizko hiztegia* (1987) azterlanean, adibidez, hamabi eremu semantiko desberdin jorratu zituzten, ondoko hauek hain zuzen ere:

V.taula: Euskararen Oinarrizko Hiztegia. Eremu semantikoak.

eremu semantikoa	ekarritako hitz diferenteak	proportzioa %
Janari-edariak	231	11,24
Herria eta herriko gauzak	214	10,41
Landareak eta abereak	214	10,41
Eskola eta eskolako gauzak	211	10,27
Ogibideak eta lanak	204	9,93
Etxea eta etxeko gauzak	196	9,54
Sukaldea eta sukaldeko gauzak	167	8,13
Jokoak, kirolak, dibertsioak	164	7,98
Jantziak	136	6,62
Gorputzaren atalak	120	5,84
Eguneroko ekintzak	119	5,79
Familia	79	3,84
GUZTIRA	2.055	100,00

Proba honetan, 15 urtetik gorako jatorrizko euskaldunek (120 bizkaitar eta 120 gipuzkoar) 115.200 hitz desberdin ekarri zuten orokorrean[2], egin beharreko zuzenketa eta lematizazioa egin eta gero. Ekarritako –idatzitako– hitz horietatik guztietatik, 2.055 (%1,78) baino ez ziren desberdinak. Horiek dira, hain zuzen, aurreko taulan 12 eremu semantikotan banaturik agertzen ditugun kopuruak.

[2] "Hitzak gogorarazteko 4 lerroko sarrera labur bat irakurtzen zitzaien, denentzat berdina. ...Inkesta bakoitzerako 15 minutuko epea jarri genuen. ...Txanda bakoitzean hiru edo lau gai betetzen ziren". (Guztira 12 gai zirelarik, idatzizko probak orotara 3 ordu irauten zuen). Etxeberria J.M. eta Mujika J.A. (1987) *Euskararen oinarrizko hiztegia. Maiztasun eta prestasun azterketa*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.

Elebiduntasunari Buruzko Testa (EBT)

Elebiduntasunari Buruzko Testak (EBT), beste edozein tresna psikometriko gisa, banakakoen arteko diferentziak antzematen ditu, subjektuen artekoak, eta subjektu bakoitzaren baitan honen hizkuntzen artekoak.

Lehen aipatutako azterlanetan ikusi dugunez, lexiko-bilketa sakonak oso proba astunak dira eta denbora luzea behar dute. Gure kasuan, 9-14 urte bitarteko neska-mutilekin lan egiteko, eginkizun hori arindu behar genuela uste genuen. Elebiduntasunari Buruzko Testak (EBT) norbanakoaren lexiko-ekarpena neurtzen du. ikasleek, denbora jakin batean bosna hitz-estimuluen aurrean, bi hizkuntzatan ahalik eta hitz gehien idatzi behar dute.

Bi hizkuntza eta bi hiztun-talde, batetik euskara eta gaztelania, eta bestetik euskaldunak eta erdaldunak. Gure ikerketetarako hautatutako subjektuak, esan bezala, Euskal Herrian aurki daitezkeen muturretako egoeratakoak izan dira: euskaldunak, Urola bailarakoak, non euskaldunen proportzioa %90etik gorakoa den eta, erdaldunak, Bizkaiko Ibar Ezkerrekoak eta Gasteizkoak, non euskaldunen proportzioa %9koa baino txikiagoa den. itxuraz, zonalde soziolinguistiko simetrikoak izango lirateke, gehiengo euskalduna eta gehiengo erdalduna dutenak, hurrenez hurren.

Neska-mutikoek, euskaldunak zein erdaldunak izan, lan bera egin behar zuten: orriburuan idatzitako hitza irakurri eta hari lotuta bururatzen zitzaizkienak idatzi. EBTa, abiada-test gisa aurkezten zitzaielarik, hitz bakoitzaren aurrean 3 minututan ahalik eta hitz

gehien idatzi behar zutela agintzen zitzaien. Horrela, neska-mutikoen eginkizunak 30 minutu irauten zuen, ez gehiago ez eta gutxiago ere, eta gerora, egitura eta loturak aztertu ahal izateko erantzunen automatikotasuna bermatzen genuen. Hori guztia, jakina, bi hizkuntzetan, 15 minutu euskaraz eta beste horrenbeste gaztelaniaz.

Horrela bildutako datuen azterketa kuantitatiboa, testaren fidagarritasuna eta balideziari buruzko aipamenak TANTAK aldizkariaren 12. alean irakur daitezke[3]. Liburu honetan, berriz, bildutako hiztegia beste modu batera jorratu dugu, jatorrizko datuetatik abiatuta, bildutakoa lematizatu egin dugu, eta zerrendak antolatu. Hauek, hurrengo atalean eskaintzen dizkizuegu.

Lematizazioa

Bildutako lexikoaren azterketa estatistikoa zentzuzkoa izan zedin, euskararako eta gaztelaniarako orotariko hiztegiak hartu genituen arau-emaile, ondoko hauek hurrenez hurren: Elhuyar Kultur Elkartea (1993): Hiztegi Entziklopedikoa. Lizarra Inp. Nafarroa; Espasa Calpe (1994): Diccionario Enciclopédico Espasa (11.arg.). Mateu Cromo A.G. Madrid. Hau da, neska-mutikoek idatzitakoak, hiztegi horietan emandako sarreretara egokitu ditugu. Hala ere, jarraian urratsez urrats azalduko dizuegu urte luzetako arduraldia eskatu zigun lan eskerga:

[3] Elosua P.; López Jáuregui A.; Artamendi J.A. (1994) "Elebiduntasunari Buruzko Testaren bidez lorturiko datuen azterketa kuantitatiboa". *tantak* aldizkaria, 12. alea

1. Hizkuntzen arteko nahasketak desagertarazi. Hau da, euskaraz erantzun behar zutenean tarteka-marteka idazten zituzten gaztelaniazkoak kendu, besterik gabe; eta erdaraz idatzi behar zutenekoan euskaraz agertzen zirenak kendu.

2. Bi hizkuntzetako juntagailuak edo lokailuak (eta/y, edo/o, eta abar) izenordeak eta erakusleak ezabatu. Era berean, agertzen ziren idazketa markak (. , ; : ...), gaztelaniazko preposizioak (a, ante, ...) eta artikuluak (el, la, ...) ere ezabatu.

3. Euskarari dagokiolarik, deklinatutako hitz guztiak erroetara ekarri ditugu, eta bi hizkuntzetan, jokatutako aditzak infinitiboan jarri.

4. Ortografia akats guztiak zuzendu eta aipatutako hiztegietako sarreren idazkerara egokitu. Pluralak singularrean jarri eta gaztelaniaren kasuan generoa bateratu egin dugu; beti ere, eduki semantikoaren diferentziarik ez zekarrenean. Adibidez, rojo/roja –kolorea–, rojo hitz bakarrera ekarri dugu, baina abuelo/abuela, bere horretan utzi dugu eite desberdinak izendatzen dituztelako.

5. Aparteko izaera, gauza edo objektuak izendatzen zituzten hitz-elkarketak gorde egin ditugu. ikasleek modu konposatuan hitzak idatzi eta hauek benetako hitz-konposatuak ez zirenean, esanahi desberdina ez zutenean alegia, deskonposatu egin ditugu eta hitz desberdinak bailiran jaso.

6. Izen propioak direla-eta, pertsona-izen arruntak ezabatu egin ditugu, eta hiztegietan agertzeaz gainera kultur erreferente izan daitezkeenak gorde. irizpide bera erabili dugu leku-izenekin.

7. Jantzi eta elikagaien kasuan batez ere, marka ugari agertu zaizkigu. Honelakoetan, jantzi edo objektu-mota bera ordezkatzeraino hedatuta dauden kasuak gorde ditugu eta besteak ezabatu.

Ikus daitekeenez, jasotako materialaren jorraketa sakona eta zorrotza egin izan dugu. ia lexiko hutsa utzi dugu. Modu horretan eratu ditugu seigarren atalean agertzen zaizkizun prestasun-hiztegien zerrendak; beti ere, SPADT eta SPSS programa-bilduma informatikoen laguntzaz.

Ortografia

Proba idatzia izan delarik, euskara eta gaztelania hizkuntzen arteko idazkera desberdinen erkaketarako aukera paregabea izan dugu. Hau da, subjektu bakoitza zelan moldatzen zen hizkuntza batean eta bestean, bakoitzaren ortagrafiari zegokiola. Aurreratu dezagun ezen gaztelaniaren arau ortografikoak oro har egoki zaintzen zituzten bitartean, ez zirudiela, eta euskarari zegokionez, arau ortografikoak ezagutzen zituztenik ere. Hala ere, desberdintasunak agertzen dira eskola-hiztegian eta hizkuntzaren ikaskuntza-prozesuan daudenean (modu zuzenagoan idazten dituzte).

Honek, aparteko azalpena merezi du, gure ustez. Ageri denez, gaztelania kultur eta eskola-hizkuntza da erdaldunetzat eta euskaldunentzat; bildutako lexikoaren argitan, beste hainbeste nonbait. Beraz, gaztelania ez da arazoa.

Euskarari dagokiolarik, erdaldunek bigarren hizkuntza modura dutenez, eskolan ikasten dute, haren irakurketa eta idazketarekin batera, modu formalean gehienetan. Euskara estandarra ikasten dute, batua alegia. Horregatik, oro har, euskararen arau ortografikoak jagon egiten dituzte. Gutxi da dakitena, euskarazko lexiko urria dute, baina duten hori ortografikoki zuzen idazten dute orokorrean, agertzen diren akatsak, ikasketa-prozesuari lotuta daudenak izanik.

Guk aztertutako jatorrizko euskaldunek, idazterakoan ahozko ereduari heltzen diote itxuraz eta, jakina, zeinek bereari eutsiz, bakoitzaren belarriak idazten duela dirudi. Guk bildutako datuetan akats ortografiko ugari agertzen zaigu, adin-tarte horretan onargarria izan daitekeena baino gehiago, alegia. Hasiera batean inguruko aldaerari zegokion ahozko hizkerari lotuak egon zitezkeela pentsatu bagenuen ere, laster ohartu ginen ez zela horrela, ez baitziren antzeko akatsak agertzen herri berekoen artean. Larriagoa zen antzeman genuena: dirudienez, ez dira arauen jabe, eta aukera posible guztiak dira neska-mutikoen idazketan agertzen direnak.

Demagun, adibidez, Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoak onetsitako "idisko" sarrera. Kaleko erabilera arruntean, ahoskatzerakoan idisko, idixko, isko, ixku, etab. entzun ditzakegu; tokian tokiko aldaerak entzun ditzakegu, alegia. idazterakoan, aldiz, alfabetatuek behintzat, eskolatuek alegia, idazketaren arau ortografikoak ezartzen dizkiote. Arau ortografikoak ezagutu eta landu ezean, ostera, ahozkotasunaren berezko aniztasuna areagotu egin daiteke, *h* eta beste zenbait letra direla bide. Horrela, neurri batean behintzat hitz horren idazkera zorizko gertaera bilaka daiteke. Ondoko taulan argiago ikus genezake:

VI. taula: Euskarazko arau ortografikorik ezak dakarrena.

		I	**D**	**I**	**S**	**K**	**O**
	H		Φ	Φ	Z		U
					X		
1		I	D	I	S	K	O
2	H	I	D	I	S	K	O
3				I	S	K	O
4		I	D	I	Z	K	O
5	H	I	D	I	Z	K	O
6				I	Z	K	O
7	H			I	Z	K	O
8		I	D	I	X	K	O
9				I	X	K	O
10	H			I	X	K	O
11	H			I	S	K	O
12	H	I	D	I	X	K	O
13		I	D	I	S	K	U
14	H	I	D	I	S	K	U
15				I	S	K	U
16		I	D	I	Z	K	U
17	H	I	D	I	Z	K	U
18				I	Z	K	U
19	H			I	Z	K	U
20		I	D	I	X	K	U
21				I	X	K	U
22	H			I	X	K	U
23	H			I	S	K	U
24	H	I	D	I	X	K	U

Ikus daitekeenez, ia zoriz eginda, 24 modu desberdinetara idatz daiteke. Kontuan har, idatzitakoa eta ahoskatua sarri ez daudela horren urrun. idisko hitzaren lehenengo "i" eta "k" izan ezik, gainontzeko letrak, arau ortografiko ezaz, beste zenbait letrez trukagarri gertatzen dira. Horrela, "h" eta "di" ager edo desager daitezke; behar duen "s" letra, "z" edo "x" bihur daiteke eta, azkenik, "o" letra "u" idatz daiteke. Letraz letra behatutako aldaketa kopuruak ikusirik eta biderkaketaren arauari atxikiz, ***2·2·3·2=24*** idazkera desberdin gerta daitezke, aurreko taulakoak hain zuzen.

Subjektuek benetan idatzitakoa aztertzen badugu, honako zerrenda honekin egiten dugu topo: hizko, hizkua, idisko, idiskoa, idiskua, idixkoa, idixkua, iskoa, iskua, iskuak, iskue, ixko, ixkua, izko, izku, izkua. Hamasei modu desberdinetara azaltzen zaigu idatzita; hauetatik guztietatik, bi besterik ez ditugu zuzentzat hartzerik (idisko, idiskoa).

Badirudi gaurko ikasle euskaldun gehienen artean –euskaraz eskolatuak badira ere– gertatzen dela, hiztegi arrunteko arau ortografikoen jabe ez izatea; eta horren ondorioz, euskarazko akats ortografikoak, erdaldunek euskaraz egiten dituztenak baino ugariagoak dira.

Gure ustez, ortografiaren arazoa, arakatzen ari garen auziaren isla bat besterik ez da. Jatorrizko euskaldunek, beren etxeko lexiko-ondarearen hitza denean, "belarriz" idazteko joera erakusten dute kasurik onenean, eta okerrenean, asmakeriatan murgiltzen dira.

Eskolan ikasitako lexikoa denean, berriz, irakasleei entzundakoaz gain, hitza idatzia ikusteak ezartzen die idazkera-eredu zuzena, eta honelakoetan akats ortografiko gutxiago behatzen ditugu.

"Listu" hitza adibidez, histu, hiztu, isto, istu, ixtu, listu, lixtoa, txistu, tu, txuia, ... idazten dute, nork bere *euskerean*; eskolan ikasitako "listu-guruin" termino berria ostera –esate baterako–, bere horretan idazten dute, zuzen alegia. Joera hau orokorra dela ikusi dugu, salbuespenak salbuespen, jakina.

Ugari dira jar ditzakegun adibideak, baina beste bi soilik azalduko dizkizuegu: "lehengusu" eta "galtzontzilo" hitzak alegia. Lehengusu-ren kasuan, gezurra badirudi ere, gutxienez 57 modu desberdinetara agertzen zaigu; hala nola: engusua, engusuak, leengusu, leengusua, leengusuak, leenguzuak, legusina, legusua, leguzua, lehegoso, lehegusu, lehegusua, lehen-gusua, lehencusua, lehengosoa, lehengosuak, lehengozua, lehengosua, lehengusa, lehengusia, lehengusiak, lehengusin, lehengusoa, lehengusoa, lehengusoak, lehengusu, lehengusua, lehengusuak, lehengusuaua, lehengusue, lehengusun, lehengusuna, lehengusunak, lehengusuz, lehenguxiña, lehenguzia, lehenguzinekoa, lehenguziña, lehenguzu, lehenguzua, lendusua, lengoso, lengosoa, lengosu, lengosua, lengosuak, lengusina, lengusiña, lengusu, lengusua, lengusuak, lengusunak, lenguzua, lenguzuna, lehenguzuak, lenhusua, lhengusua, lungusina. Haiek idatzi bezala transkribatu dizkizuegu. Hauetatik lau bakarrik onar genitzake (lehengusin, lehengusu, lehengusua, lehengusuak); gainontzeko 53ak, oker idatzita daude. Are nabarmenagoa da "galtzontzilo" hitzaren kasua, izan ere133

modu desberdinetara idatzi baitzuten: calchonchilla, caltxontxilloa, caltxontsilloa, caltxontxilloak, caltxontxiloa, caltxontxioa, caltxontzilloa, caltzontzioak, caltzontxillo, caltzontxiloa, caltzontxiloak, caltzontxiyoak, caltzontzillo, caltzontzilloa, caltzontzilloak, caltzontzilo, caltzontziloa, caltzontziloak, caltzontzioa, caltzontziyoa, caltxontzilloa, calzoncilloa, calzoncilloak, calzoncillok, calzonciloa, calzonciloak, canchonchilloa, canchonchiloa, cansonsiloa, cantxontxilloa, cantxontxio, cantzontxilloa, cantzontzillo, cantzontzilloa, cantzontziloak, canzonzilloa, canzonzilloak, canzonziloa, canzonziloak, galtxontiloak, galtxontxillo, galtxontxilloa, galtxontxilloak, galtxontxiloa, galtxontxiloak, galtxontxinoak, galtxontxioak, galtxonsiloa, galtzontzilloa, galtzontzilloak, galtzontzilo, galtzontziloa, galtzontziloak, galtzontzilos, galtzontzioa, galtzontziyoa, galtzotziloa, galzonchilloa, galzontzioak, galzonzilloa, galzonziloa, gantzontzilloa, gantzontziloa, gantzontziloak, gatxontzilloa, kalsonsilloak, kaltrontziyoa, kaltxontxillo, kaltxontxilloa, kaltxontxilloak, kaltxontxilo, kaltxontxiloa, kaltxontxiloak, kaltxontxioa, kaltxontzilloa, kaltxontzilloak, kaltxontziloa, kaltxontsilloak, kaltzontsiloak, kaltzontxillo, kaltzontxilloa, kaltzontxiloak, kaltzontzillo, kaltzontzilloa, kaltzontzilloak, kaltzontzilo, kaltzontziloa, kaltzontziloak, kaltzontzio, kaltzontzioak, kaltzontziyoak, kaltzonzilloak, kalzondilloak, kalzonsiloak, kalzontzilloak, kalzontziloak, kalzonzillo, kalzonzilloak, kalzonziloa, kalzonzioa, kansonsillo, kantsontsiloak, kantxontsijoa, kantxontxillo, kantxontxilloa, kantxontxilo, kantxontxiloa, kantxontxio, kantxontziloa, kantxontiloak, kantzontzelo, kantzontzillo, kantzontzilloa, kantzontzilloak, kantzontzilo, kantzontziloa, kantzontziloak, kantzontzioa, kanzoncilloa, kanzonciloa, kanzonciloak, kanzonkilloa, kanzonsilloa, kanzontziloak, kanzonzillo, kanzonzilloa, kanzonziloa: Lentzeria bat jartzeko adina, alegia. Hauetatik, 3 besterik ez dira zuzenak (galtzontzilo, galtzontziloa,

galtzontziloak). Pentsa genezake akatsetarako aukera handia ematen duen hitza dela; baina, hala ere, subjektu hauek berauek gaztelaniaz "calzoncillo" hitzaren kasuan darabilten idazketarekin (beren bigarren hizkuntzan, alegia) erkatzen badugu, 24 modu desberdinetara idazten dutela ikus genezake. Adierazgarria, benetan. Nolanahi ere, bildutako datuetan behatutako idazkera-aldakortasuna, euskal eskolan 7-12 urte eman dituzten jatorrizko euskaldunak izaki, onargaitza iruditu zaigu; izan ere, horrenbeste ortografi akats nekez azal baitaiteke 9-14 urte bitarteko ikasleen artean, ikas/irakaste prozesuan eskolak darabilen tresna formala euskara denean. Are gehiago, kontuan hartzen badugu, akats ortografikoen proportzioa askoz handiagoa dela euskaran gaztelanian baino. Gaztelaniaren idazkera, bai euskaldunen zein erdaldunen artean, euskararena baino zuzenagoa da, oro har.

Hitz-jarioa

Arestian azaldu dugunez, EBTa *idazteko abiada proba* gisa aurkeztu zaie ikasleei. Horrela, neur dezakegun behinena hori berori da, 30 minututan zenbat hitz idazten duten, hain zuzen ere. testa bi hizkuntzatan egitekoa izanik, 15 minutu euskaraz eta beste 15 gaztelaniaz, orotara aztertutakoari hitz-jarioa esan diogu. Funtsean, ikasleek ezagutzen duten hizkuntzetan duten hitzen ekoizpen-tasa aztertu dugu. Hona bada, behatutako hitz-jario hori:


VII. taula: Hitz-jarioa

HIZTUN-TALDEAK	EUSKARAZ	Batezbeste	GAZTELANIAZ	Batezbeste	GUZTIRA	Batezbeste
Euskaldunak (n_1=1288)	76987	**11,96**	81353	**12,63**	158340	**12,29**
Erdaldunak (n_2=1771)	62812	**7,09**	140298	**15,84**	203110	**11,47**
Guztira	139799	**9,14**	221651	**14,49**	361450	**11,82**
%		38,68		61,32		100

Zutabe bakoitzaren eskuinaldean, hiztun-taldeek hizkuntza bakoitzean eta guztira ekarritako batezbesteko hitz-kopuruak ikus daitezke. Euskaldunek *hitz-estimuluko* guztira 12,29 hitz idazten dutela ikus genezake. Oro har, testaren aurrean euskaldunak erdaldunak baino *jario* handiagokoak direla esan genezake, gehiago idazten dutela, alegia.


Hori horrela bada ere, gaztelaniazko jarioari erreparatzen badiogu, euskarazkoa baina handiagoa dela agertzen zaigu, bai

euskaldunen zein erdaldunen artean. Hiztun-talde bakoitzak bere hizkuntzan jario handiagoa izatea espero bada ere, eta hau nabarmen ikusi erdaldunen kasuan, euskaldunenean aldiz, gehiago ekartzen dute gaztelaniaz euskaraz baino –aldea handia ez bada ere–. Ondoko irudian hobeto ikus dezakegu hori:



21. irudia: Euskaldunen eta erdaldunen batezbesteko hitz-jarioa

Bi hiztun-taldeen erkaketari dagokionean Ezer azpimarratzekotan, euskaldunengan agertzen den bi hizkuntzen arteko oreka izango litzateke –nahiz eta gaztelaniaz zertxobait gehiago ekarri eta hau, gure ustez, aztertzeko, fenomenoa izan–. Erdaldunen taldean, bi hizkuntzen arteko desoreka nabarmena da. Ondoko sektore-diagrametan argiago dago irudikaturik:




22. irudia: Hiztunen jarioa euskaraz eta gaztelaniaz.

Taulan adierazi dugunez, hiztun-taldeen tamainak diferenteak dira: euskaldunak, $n_1 = 1288$, eta erdaldunak, $n_2 = 1771$. Gauzak horrela, emaitzak erkagarriak izan daitezen, beharrezko zuzenketak egin eta tamaina bereko taldeak balira moduko estimazioa burutu dugu aurreko irudietan.

Bi hizkuntzetan jasotako lexiko osoa kontuan hartuta, euskaldunak emankorragoak dira erdaldunak baino. Neska-mutikoek idatzitako lexiko osoari, *ekarpen orokorra* diogu. Honetan, errepikatutako hitz ugari dago; hitz diferenteak errealitatean askoz gutxiago dira.

Ekarpen orokor honi dagokion hiztun-taldeen arteko desberdintasunak adierazi ditugu ondoko irudietan:



23. irudia: Hiztunen ekarpen orokorra euskaraz eta gaztelaniaz.

Bistan denez, ekarpen orokorrean euskaldunen lexikoa ugariagoa da. Hiztun-talde bakoitza bere jatorrizko hizkuntzan nagusi agertzen dela antzeman daiteke, baina euskararen kasuan agertzen den aldea ez da gaztelaniaren kasuan azaltzen. Gaztelaniaz, lexikoaren %44 dagokie euskaldunei; alegia, erdaldunen ekarpenetik oso gertu daude.

Honek guztiak taldeak desberdinak direla adierazten digu. Diferentzia horrek azalpen erraza du, hizkuntzen gizarte-egoeraren isla besterik ez da –euskararen egoera gutxiagotuarena alegia–, eta

euskaldunak gaztelaniaz ia erdaldunen pareko izaki, euskarak markatzen du diferentzia. Hori horrela da.

Bildutako lexikoaren ustiapena egin ondoren, honela laburbil ditzakegu ondorio nagusiak:

1.-Oro har, bi hizkuntzetan ekarritakoa batera harturik, euskaldunak oparoagoak dira erdaldunak baino.

2.-Lexiko-ekarpenean, hiztun-talde bakoitza nagusi da zein bere hizkuntzan.

3.-Euskaldunen lexiko-ekarpena bi hizkuntzetan orekatua da, nahiz gaztelania nagusitzeko joera erakutsi.

4.-Orokorrean, gaztelaniaren lexiko-ekarpena euskararena baino askoz joriagoa da.

5.-Bi hizkuntzen arteko azterketa erlatiboa eginez gero, euskarazko lexiko-ekarpena urria da; hau da, normaltasun-mailaren azpitik dago.

Jarraian, bildutako lexikoaren azterketa kualitatiboari lotuko gatzaizkio; hots, hizkuntza bakoitzeko hitz diferenteen arakaketari.

Gaztelaniaren azterketa


Bi hiztun-taldeen artean ekarritako hitz-multzoa, 6.397 hitz desberdinez osoturik dago orotara. Bildutako lexikoaren banaketa hiztun-taldeka azterturik, ezin esan dezakegu hitz horiek –oro har– bi taldeen arteko lexiko-ondare komuna osotzen dutenik. Hizkuntza bera izan arren –gaztelania–, hiztun-talde bakoitzak badu bere ekarpen bereizgarria; alegia, kulturen arteko ukipenean egonagatik, talde bakoitzak kultur izaera berezia gordetzen duela atzeman ahal izan dugu EBTren bitartez. Honek ondokoa esan nahi du, alegia, talde bakoitzaren baitan ezaugarri komunak agertu direla lexikoaren egituraketan erakarpena gauzatzean, eta taldearteko erkatetan elementu komunak egonagatik, taldebarneko ezaugarri komun hauek aztertzean desberdintasunak badaudela bi hiztun-taldeen artean, hitzek biltzen duten esanahia eta haien arteko egituraketa eta kateaketa desberdina dela talde bakoitzean, eta honen zergatia kulturala dela. Bi hiztun-talde izateaz gainera, bi kultur talde ere badirela esan dezakegu.

VIII. taula: Hiztun-taldeen ekarpena gaztelaniaz.

Hitzun taldea	Hitz desberdinak	%	Ekarpen orokorra	%
Euskaldunak	1.024	16	2.057	0,9
Biak batera	2.970	46	214.170	96,6
Erdaldunak	2.403	38	5.416	2,5
Guztira	6.397	100	221.651	100,0

Esan dugunez, aztertu ditugun neska-mutikoak hezkuntza-sistema eta ikasmaila berekoak izan dira. Printzipioz espainierazko ekarpen komuna (2.970 hitz) lexikoaren proportziorik handiena (%46) da, baina erdia izatera ez da iristen (ikus ondoko sektore-diagrama).

Hiztun- edo kultur talde bakoitzak badu eduki proportzio esanguratsurik lexiko-ekarpenean. Arreta erakarri digu bereziki, euskaldunek ekarritako proportzioa. izan ere, jatorrizko euskaldunak eta euskaraz eskolatuak izan arren, badarabilte erdaldunek ez darabilten lexiko-kopuru esanguratsua. Lexiko berezi horrek, bai erdaldunenak zein euskaldunenak, kultur taldeen izaera bereizgarria agerian uzten du.



24.irudia: Hiztun-taldeen ekarpena eta ekarpen komunaren banaketa.

Berezitasun hau %54koa da, hitz desberdinak soilik hartzen baditugu kontuan. Datu hauek aurrean ditugula, taldearteko komuntasuna bereizgarritasuna baino txikiagoa dela esan dezakegu. Ekarpen orokorrean, berriz, %3,4 besterik ez da hiztegi bereizgarria. Edozelan ere, lexiko komun hori oso arrunta dela esan behar dugu. Gehien errepikatzen dena da-eta.

Euskararen azterketa

Gaztelaniaren azterketan behatutakoaren ildotik, honetan taldeen arteko bereizketa are nabarmenagoa da. Begi-bistakoa da Euskal Herrian gutxienik bi kultura daudela nahas-mahasean. talde horiek elkarren ukipenean egonagatik, ez dituzte beren ezaugarri bereizgarriak galdu. Euskaldunak eta erdaldunak bereizi dituen faktore behinena hizkuntza da, euskara. Hizkuntza da, hain zuzen ere, edozein kulturaren ardatz. Hala ere, kultura ezin murriztu daiteke hizkuntzara soilik.

Ukipen-egoera asimetrikoak desitxuratu ohi du kultur taldeen agerpena, gutxiagotutako kultur taldea nagusiaren itzalean ezkutatzen baita. Horrelakoetan, ikerkuntzaren arazoa, metodologikoa da funtsean. Berez bi populazio direnak bakartzat hartzen dira sarri. Gezurra badirudi ere, ikertzaile gehienen artean kultur talde nagusiaren ikuspegi etnozentrikoa nagusitzen da eta, horrek ikuspegi alboratua erabiltzera eramaten ditu.


Oharrak ohar, gureari berriro helduz, hurrengo taulan euskarazko lexiko-ekarpena nolakoa izan den erakusten dizuegu.

IX. taula: Hiztun-taldeen ekarpena EUSKARAZ

Hitzun taldea	Hitz desberdinak	%	Ekarpen orokorra	%
Euskaldunak	2220	60	11275	8,1
Biak batera	1082	29	127371	91,1
Erdaldunak	401	11	1153	0,8
Guztira	3703	100	139799	100,0

Lehenbiziko gogoeta ez da berria. Behin eta berriz ikusi dugunez, oraingo honetan berriro ere euskarazko lexikoaren urrikeria nabarmentzen zaigu. Euskarazko hitz desberdinen ekarpena, oro har, 3.703 hitzetakoa da, gaztelaniazkoen %58 ozta-ozta. Erdaldunen eragina izan daitekeela pentsa daiteke, eta neurri batean behintzat bada. Hala ere, euskaldunen ekarpena aztertzen badugu, gaztelaniaz 3994 hitz diferente ekarri dituztela ikus genezake eta euskaraz, aldiz, 3302 besterik ez. Lexiko aberatsagoa erakutsi dute erdaraz euskaraz baino. Elebiduntasunaren ikuspegitik, lehen aipatu bezala nahiz eta gaztelaniaren aldeko desoreka agertu, euskaldunek bi hizkuntzen artean duten oreka-maila adieraz dezake. irakurketa baikorra dugu hau, baina taldearen ezaugarriak kontuan izanik, aldez aurretik ezin genezake honelako emaitzarik espero. Hau dela eta, ez dezala inork pentsa edo esan, arren, euskarazko lexikoa berez gaztelaniazkoa baino urriagoa denik. Ez da hizkuntzen arteko balizko desberdintasuna agertzen dena. Ez eta gutxiago ere. Hiztun-edo kultur taldeari eta hizkuntzei, gaztelania eta euskarari, dagozkien estatusen arteko desberdintasunak dira horren guztiorren erantzule. Hiztun-taldeak dira diferenteak, eta diferentzia hori gure ustez, hizkuntzen arteko asimetriak sortarazitakoa da. Arazo soziolinguistikoa da; soziala, beraz. Hiztunengan antzemanagatik, gizarteari dagokio. Subjektuek, norbanakoek, beren hizkuntza-portaeran gizartearen hizkuntza-egoera islatzen dutelakoan gaude. Euskara hizkuntza gutxiagotua da euskaldunongan ere.

Gatozen, bada, euskarazko ekarpenaren azterketa irudietan jartzera.



25. irudia: Hiztun-taldeen ekarpena eta ekarpen komuna euskaraz.

Espero zitekeenez, oso esanguratsua da euskaraz euskaldunen ekarpen bereizgarria (%60). Ekarpen komuna oso urria dela esan dezakegu (%29). Hala ere, erdaldunek euskaraz ere badute eduki beren kultur izaera propioa (%11). talde desberdina izanik, erdaldunek modu berezian ikasten dute euskara, eskolan jakina, harik eta "beren euskara" eskuratzeraino. Honek kultur taldeen arteko bereizketa berresten du.

Eremu semantikoen azterketa


Aurreko ataletan hizkuntza- eta hiztun-taldeka aztertu dugu subjektuen ekarpen lexikala. Atal honetan, eremu semantikoei erreparatuko diegu, eta hauen araberako erakarpenaren bitartez, hiztun-taldeen ezaugarriak behatuko. Aurreko ataletan aipatu dugun bezala, bost dira eremu semantiko hauek: senideak, gorputza, animaliak, jantziak eta Natura. Hiztun-taldeen ekarpen komun eta bereizgarria aztertuko ditugu hizkuntza bakoitzean, bai eta bakoitzeko hiztegi zerrendak azalduko ere hurrengo atalean. Agertuko ditugun taulak interpretatzerakoan, kontuan hartu beharrekoa da ezen estimulukako hitz diferenteak direnak errepikatu egin daitezkeela estimulu bakoitzean; esate baterako, senideak hitz-estimuluaren aurrean, *aita* hitza behin bakarrik azalduko dugula, baina hitz hori berori ager daitekeela gainontzeko hitz-estimuluen aurrean ere, eremu semantikoa osatzen duen hitz/kontzeptu-kateaketak hala bermatzen duelako. Jarraian, honi buruzko datuak azalduko dizkizuegu:

X.taula: Hiztun-taldeen ekarpena eremu semantikoka hizkuntza bakoitzean.

eremu semantikoa	EUSKARAZ				GAZTELANIAZ			
	euskaldunen ekarpen orokorra %		erdaldunen ekarpen orokorra %		euskaldunen ekarpen orokorra %		erdaldunen ekarpen orokorra %	
senideak	15613	20,3	15821	25,2	18104	22,3	27654	19,7
gorputza	15326	19,9	12463	19,8	14963	18,4	28923	20,6
animaliak	17016	22,1	12275	19,5	17530	21,5	30938	22,1
jantziak	14902	19,35	12157	19,4	15441	19	26428	18,8
Natura	14130	18,35	10096	16,1	15315	18,8	26355	18,8
GUZTIRA	76987	100	62812	100	81353	100	140298	100

Hamargarren taula honetan, hiztun-talde bakoitzaren ekarpena azaldu dizuegu, bai zenbaki absolutuetan zein portzentaiaka, hizkuntza bakoitzean eta hitz-estimuluka sailkatuta, ikuspegi orokorra

izan dezazuen. Hemen agertzen diren datuak beste modu batera ere azal ditzakegu labur-labur, eta honako hau da hurrengo histograman erakutsiko dizueguna.



26. irudia: Bataz-besteko hitz-kopurua subjektu eta estimuluko.

Honako irudi honek adierazten duena, honakoa da, hots, subjektu bakoitzak –euskaldun edo erdaldun–, hizkuntza bakoitzean –euskara, gaztelania–frogak irauten duen denboran batezbeste zenbat hitz ekartzen dituen, hitz-estimulu bakoitzaren aurrean. Bistan denez, gutxien erdaldunek euskaraz ekartzen dutena da, orokorrean, eta hauek senideen esparru semantikoan ematen dute gehien. Bestetik, euskaldunek zein erdaldunek gaztelaniaz ekartzen dute gehien, eta hauetan aldeak daude esparru semantikoen arabera. Horretan ere antzeman genezake, beraz, aurreko ataletan aipatutako kulturaren auzia.

Jarraian, azterketa sakonagoari helduko diogu, eta hizkuntzaka azalduko dizuegu hiztun-talde bakoitzaren ekarpen orokor eta bereizgarria hitz-estimulu bakoitzari lotuta.


XI. taula: Eremu semantikoaren araberako ekarpena euskaraz. Hitz diferenteak

EUSKARAZ								
eremu semantikoa	euskaldunen ekarpen bereizgarria	%	erdaldunen ekarpen bereizgarria	%	ekarpen komuna	%	ekarpen orokorra	%
senideak	836	57,85	234	16,19	375	25,95	1445	100
gorputza	792	59,06	202	15,06	347	25,88	1341	100
animaliak	638	39,83	257	16,04	407	25,41	1602	100
jantziak	562	50,27	252	22,54	304	27,19	1118	100
Natura	795	52,61	296	19,59	420	27,80	1511	100

Euskararen azterketa azaltzen duen taula honetan, lehenik eta behin argi gelditzen da, euskaldunek dutela ekarpen bereizgarriaren pisurik handiena –espero zitekeen modura– eremu semantiko guztietan.

Euskaldun eta erdaldunen hiztun-taldeak konpartitzen duten lexikoaren pisua antzekoa da eremu semantiko guztietan, eta lexiko hau, oinarrizkoena dela esan dezakegu, bereizgarriarekin erkatzean, pisuaren aldeaz gainera, lexikoaren kateaketa desberdina antzematen delarik nahiz eta erdaldunengan urri samarra izan. Kateaketa hau nolakoa den ikusteko aukera duzue hurrengo atalean –prestasun hiztegiak–, estimulukako hiztegi-zerrendak ere biltzen baititu.

Ikus ditzagun aurreko taulako datuak grafikoki irudikatuta, jarraian agertzen zaizuen histograman:




27. irudia: Euskarazko hitz diferenteen ekarpen komun eta bereizgarria, eremu semantikoka.

Ondoren, euskararen kasuan azaldu dizkizuegun datu berak azalduko dizkizuegu baina gaztelaniari dagozkielarik.

XII. taula: Eremu semantikoaren araberako ekarpena gaztelaniaz. Hitz diferenteak

GAZTELANIAZ								
eremu semantikoa	erdaldunen ekarpen bereizgarria	%	euskaldunen ekarpen bereizgarria	%	ekarpen komuna	%	ekarpen orokorra	%
senideak	903	38,49	556	23,70	887	37,81	2346	100
gorputza	925	40,32	532	23,19	837	36,49	2294	100
animaliak	1006	40,84	452	18,35	1005	40,80	2463	100
jantziak	889	46,21	339	17,62	696	36,17	1924	100
Natura	1160	45,96	419	16,60	945	37,44	2524	100

Euskarazko datuekin erkatuz gero, bi hiztun-taldeen ekarpen komuna askoz ere handiagoa dela ikus dezakegu batetik. Hiztun-talde bakoitzaren ekarpen bereizgarria dela-eta, erdaldunena handiagoa bada ere, euskaldunek euskaraz ekartzen dutena baino txikiagoa da; eta hauena baino handiagoa, euskaldunek gaztelaniaz ekartzen duten lexiko bereizgarria. ikus dezagun grafikoki irudikatuta ondoko histograman:



28. irudia: Gaztelaniazko hitz diferenteen ekarpen komun eta bereizgarria, eremu semantikoka.

Lexiko-zerrendak estimuluka aztertuz gero, gauza bitxiekin egiten dugu topo. Hauetako bat animalien eremu semantikoan gertatzen da. Hitzak gaztelaniaz ekartzen ari direnean, "txakurra" aipatzearekin batera txakur arrazak botatzen hasten dira, elkarren segidan kateatuta. Baina hau gaztelaniaz ari direnean soilik gertatzen da, euskaldunak zein erdaldunak izan. Euskaraz ari direnean, berriz, askoz ere aipamen gutxiago dago eta gainera, gutxiagotan errepikatzen dituzte txakur-arrazak. Badirudi

gaztelaniarekin lotzen dutela eta nahiz eta hauen berri izan, gaztelaniaz ari direnean soilik aipatzen dituzte, euskaraz "txakur" botatzearekin konformatzen direlarik. Bestetik, orokorrean agertzen da bakoitzaren hizkuntza nagusian, hitz-estimulu edo esparru semantikoarekin zuzenean lotutako lexikoa aberatsagoa dela. Bigarren hizkuntzan lehenago agertzen dira adjektibo eta ezaugarri-marka duten hitzak eta edozein dela estimulu eta esparrua errepika daitezkeenak. Hala ere euskaraz bai eta euskaldunen artean ere halako joera orokor hau nagusitu egiten dela sumatu dugu. Guk bitartekoen eskasiarekin lotzen dugu, zorroztasun-ezarekin, hiztegi zehatza ez erabat menperatzearekin alegia. Badirudi, bi hiztun-taldeek gaztelaniazko lexiko berezia euskarazkoa baino landuagoa dutela. Azkenik, erdaldunen kasuan, euskara eskola bidez ikasi dutela sumatzen da eta honela islatzen da hiztegi-zerrendetan ere. Era berean, bitxikeriak bitxikeria, zuzenketak egin aurretik (gerora asko baztertu egin baikenituen), erdaldunak euskaraz asmaketa-lanean ere bazebiltzala igarri genuen zenbaitzuetan; izan ere, gaztelaniazko hitzei euskarazko amaiera edo grafia emanaz idazten zituzten asko. Baina euskaldunek ez zuten hori gaztelaniaz egiten, gure ustez gaztelania modu naturalean edo ikasten eta bereganatzen dutelako, testuinguruan bertan kokatuta, modu esanguratsuan alegia.

Hemendik aurrera, zuei eskaintzen dizuegu honelako azterketak egiteko aukera, izan ere, hurrengo atalean hiztegi-zerrendak bildu baititugu. Batetik, euskaldunek eta erdaldunek euskaraz eta gaztelaniaz ekarritako hitz-zerrendak azaltzen ditugu alfabetikoki ordenatuta eta milako bestetan agerpen-kopurua dutela. Gogoan izan, hiztegi hauetan lehen aipatutako irizpideen araberako zuzenketak burutu ditugula eta hainbat hitz eta termino baztertu ere.

Bestetik, estimuluka antolatutako hiztegiak ere bertan dituzue, bai euskaldun zein erdaldunenak, euskaraz eta gaztelaniaz; baina honetan lehenengo 100 hitzak soilik ekarri ditugu zerrendetara, horrela hiztun-talde bakoitzarenak erka ditzazuen, eta norberari interesatzen zaizkion xehetasunei heldu ahal izateko asmoz.

Prestasun hiztegiak

Euskaldunek euskaraz ekarritako prestasun-hiztegi orokorra

HITZA	MILAKOBESTEAK
abantaila	0,01
abarka	0,03
abarketa	0,13
aberastasun	0,01
aberats	0,17
abere	0,39
aberri	0,01
abestu	0,04
abiada	0,04
abiadura	0,04
abil	0,08
abioi	0,05
abitu	0,01
abizen	0,03
abonu	0,03
abusatzaile	0,01
abuztu	0,04
adar	0,1
adarra-jo	0,01
adibide	0,01
adina	0,03
adindu	0,03
adiskide	0,22
adiskidetasun	0,08
adiskidetsu	0,01
aditu	0,01
adjektibo	0,01
adoptatu	0,01
adoretsu	0,03
adornu	0,14
adostasun	0,01
aduana	0,01
aerodinamiko	0,01
afaldu	0,04
afari	0,05
Afrika	0,09
agertu	0,03
agindu	0,01
agintari	0,04
agintzaile	0,01
ahaide	0,03
ahalmen	0,04
ahari	0,7
aharrausi	0,03
ahate	0,6
ahizpa	5,61
ahizpaorde	0,08
aho	9,33
ahosabai	0,08
ahots	0,03
ahul	0,23
ahultasun	0,01
ahuntz	1,31
aingeru	0,03
aingira	0,01
aintza	0,01
aire	0,51
aita	9,87
aitabitxi	0,06
aitaginarreba	0,01
aitaita	0,61
aitajaun	0,08
aitama	0,01
aitaorde	0,52
aitaponte	0,25
aitasantu	0,01
aitona	8,47
aitonamona	0,04
aitzur	0,01
aizkolari	0,03
aizkora	0,01
akats	0,01
aker	0,62
akriliko	0,03
akuilu	0,01
akuri	0,05
alaba	1,91
alabaorde	0,01
Alacant	0,01
ala-delta	0,01
alai	0,39
alaitasun	0,19
alaitsu	0,01
alaitu	0,01
alargun	0,04
alarma	0,01
albaitari	0,04
albornoz	0,01
aldagela	0,01
aldaka	0,01
aldaketa	0,03
aldamen	0,01
aldameneko	0,04
aldapa	0,03
aldare	0,01
aldatu	0,08
alde	0,01
alde-egin	0,01
aldi	0,03
aldrebes	0,12
alergia	0,03
alfer	0,43
alferkeria	0,01
algebra	0,01
algodoi	0,4
alkandora	6,31
alkate	0,01
alkohol	0,02
alkoholiko	0,01
Almeria	0,01
altu	0,87
altxatu	0,01
altxor	0,01
altzairu	0,01
alu	0,7
ama	9,52
Amabirjina	0,04
amabitxi	0,06
amaginarreba	0,05
amaigabe	0,01
amama	1,14
amandre	0,1
amaorde	0,55
amaponte	0,23
amazulo	0,01
Amerika	0,04
amerikano	0,06
ameslari	0,01
amets	0,05
amona	7,98
amonal	0,01
amonamantangorri	0,05
amonorde	0,01
amore	0,01
amorrarazi	0,01
amorru	0,09
amuarrain	0,19
anaia	13,34
anaiarreba	0,52
anaiarte	0,03
anaiorde	0,21
anaitasun	0,04
anaitu	0,03
anana	0,01
andere	0,01
andereño	0,36
Andramari	0,01
andre	0,62
andregai	0,36
androide	0,01
andromeda	0,01
angora	0,01
animalia	4,08
animo	0,01
anker	0,01
Anoeta	0,04
anorak	0,13
anormal	0,01
ante	0,06

antena	0,01	arku	0,03	asmatu	0,01
antiojo	0,73	arkume	1,39	aspaldi	0,01
antipar	0,01	arkupe	0,01	aspaldiko	0,03
antizikloi	0,01	arlote	0,01	aspergarri	0,06
antxoa	0,06	armada	0,01	aspertu	0,04
antxume	0,53	armadun	0,01	aspirina	0,03
antz	0,08	armairu	0,4	astakilo	0,01
antzara	0,25	armiarma	0,27	astakume	0,43
antzeko	0,06	arnasa	2,35	astapotro	0,01
antzeman	0,01	arnas-aparatu	0,06	astar	0,21
antzina	0,04	arnasbide	0,04	aste	0,09
apaindu	0,01	arnasestu	0,01	asteburu	0,01
apaingarri	0,01	arnasketa	0,3	asteme	0,04
apaiz	0,21	arnastoki	0,01	asteroide	0,19
apal	0,06	arnastu	0,77	asto	5,49
aparailu	0,03	arotz	0,01	astro	0,45
aparatu	0,17	arrain	1,21	astro-errege	0,01
aparta	0,01	arrano	0,39	astrologia	0,03
apendize	0,04	arrano-beltz	0,05	astronauta	0,17
apiril	0,01	arrantza	0,12	astronomia	0,04
apo	0,08	arrantzale	0,08	astronomo	0,01
apoteosi	0,01	arrapalada	0,01	astun	0,17
aprobatu	0,01	arraro	0,06	asun	0,03
apuntatu	0,01	Arrasate	0,01	atal	0,04
apurtu	0,13	arratoi	1,4	atari	0,04
apustu	0,36	arrats	0,03	atasko	0,01
apustulari	0,01	arratsalde	0,16	ate	0,1
ar	0,9	arratsaldeon	0,01	atera	0,3
arabera	0,01	arraun	0,01	ateri	0,01
Arabia	0,03	arrautza	0,06	aterki	0,16
arabiar	0,09	arraza	0,06	aterpe	0,01
aran	0,01	arreba	8,62	atlas	0,01
arazo	0,04	arrebaorde	0,08	atletismo	0,01
arbel	0,09	arretatsu	0,03	atmosfera	0,39
arbi	0,01	arrisku	0,04	atomiko	0,01
arbola	0,66	arriskugarri	0,01	atorra	0,01
ardi	2,65	arriskutsu	0,04	atseden	0,01
ardilarru	0,01	arroka	0,09	atsegin	0,29
ardo	0,04	arropa	2,87	atsekabe	0,08
ardozale	0,01	arropa-denda	0,08	atun	0,03
arduradun	0,06	arrosa	0,52	atxilotu	0,01
arduragabe	0,04	arroza	0,03	atzamar	0,03
area	0,06	arrunt	0,01	atzapar	0,03
argal	0,57	arte	0,04	atze	0,06
argazki	0,13	arteko	0,03	atzeratu	0,01
argazki-kamara	0,01	arteria	0,11	aukeratu	0,01
argi	7,16	artifizial	0,01	aulki	0,38
argindar	0,08	artikulazio	0,04	aurkako	0,01
argitasun	0,58	artile	0,04	aurkezle	0,01
argitsu	0,39	artizar	0,23	aurkitu	0,01
argitu	0,08	arto	0,04	aurpegi	4,64
argiune	0,01	artzain	0,05	aurre	0,04
argizari	0,01	asia	0,03	aurreko	0,03
argiztatu	0,01	aska	0,03	aurrerakuntza	0,01
ariketa	0,01	askari	0,01	ausart	0,14
arin	0,29	askatasun	0,04	auto	0,14
arintasun	0,01	askatu	0,03	autobus	0,13
arkakuso	0,19	aske	0,03	automobil	0,01
arkatz	0,13	asko	0,97	autonomo	0,04

auzoko	0,03	baratxuri	0,01	beis	0,1
auzotar	0,01	baratze	0,18	bekain	1,26
auzune	0,01	barazki	0,05	bekaizti	0,01
axolagabe	0,01	barbo	0,03	bekoki	0,25
aza	0,04	bare	0,06	bela	0,04
azal	1,44	barkatu	0,01	belar	3,86
azaro	0,01	barku	0,06	belardi	0,06
azelga	0,01	barne	0,01	belarjale	0,25
azenario	0,08	barneko	0,01	belarri	8,98
azeri	0,71	barometro	0,01	belarrimotz	0,01
azkar	3,74	barrabil	0,78	belarritako	0,61
azkartasun	0,19	barrabilzorro	0,01	belatz	0,01
azkazal	1,77	barraka	0,01	belaun	1,75
azken	0,01	barre	0,12	beldur	0,04
Azkoitia	0,04	barregarri	0,12	beldurgabe	0,01
azkonar	0,04	barreiatu	0,01	beldurgarri	0,16
azoka	0,01	barru	0,45	beldurti	0,34
Azpeitia	0,03	barruko-arropa	0,04	beldurtu	0,03
azpi	0,16	barruko-galtza	0,1	bele	0,35
azpiko	0,09	Bartzelona	0,01	belodromo	0,14
azpiko-galtza	0,01	basa	0,01	beltz	6,09
azpiko-gona	0,04	basabehi	0,03	beltzaran	0,12
azterketa	0,03	basahuntz	0,47	belztasun	0,01
aztoratu	0,03	basakatu	0,12	belztu	0,21
azukre	0,18	basamortu	0,14	bena	0,04
azuleju	0,01	basapiztia	0,01	benda	0,01
baba	0,04	basati	0,34	bendatu	0,01
babarrun	0,01	baserri	2,07	benetako	0,03
babazale	0,01	baserritar	0,27	Benidorm	0,08
babes	0,04	baso	0,42	Bera	0,1
babesgarri	0,04	basoilar	0,04	berde	2,25
babespe	0,01	bastoi	0,04	berdel	0,03
babestu	0,1	basurde	0,83	berdin	0,08
bagina	0,09	bat	0,72	bere	0,06
baila	0,08	bata	0,39	berekoi	0,04
bainatu	0,17	bataio	0,06	berezi	0,05
bainu	0,21	batan	0,06	bermuda	0,22
bainujantzi	1,79	bateko	0,01	bero	9,75
baju	0,4	batera	0,04	berogailu	0,22
bakailo	0,01	batuketa	0,01	berogarri	0,01
bakar	0,08	batura	0,01	beroki	0,18
bakarrik	0,03	bazkaldu	0,08	berotasun	0,77
bakarti	0,05	bazkari	0,09	berotsu	0,04
bake	0,08	begi	10,87	berotu	0,73
bakero	0,16	beginini	0,39	berotzaile	0,05
baketsu	0,01	begipe	0,01	berpiztu	0,01
bakterio	0,01	begira	0,03	berri	0,78
balantza	0,01	begiratu	0,03	berriketa	0,01
baldar	0,14	begiratzaile	0,01	berritsu	0,03
balea	0,49	begizulo	0,01	bertako	0,01
baliagarri	0,03	behar	0,04	bertsolari	0,01
balio	0,09	beharrezko	0,18	berun	0,01
baliotsu	0,04	behartsu	0,01	besamotz	0,01
balkoi	0,05	behatz	3,66	besape	0,06
baloi	0,42	behazun	0,04	beso	2,68
banatu	0,01	behe	0,14	besondo	0,01
bandera	0,01	beheadar	0,01	beste	0,12
bandido	0,01	behelaino	0,18	betaurreko	1,07
bapore	0,01	behi	4,75	betaurreko-beltz	0,09
baraila	0,01	behor	4,64	betazal	0,71

bete	0,17	bizidun	0,38	bukatu	0,01
beti	0,12	biziemale	0,01	bular	0,25
betile	0,64	bizierditzaile	0,01	bularretako	1,14
betortz	0,17	bizigabe	0,03	bulba	0,01
bezalako	0,01	bizigai	0,01	bultza	0,01
bezero	0,01	bizikleta	0,27	bultzatu	0,01
bi	0,82	bizilagun	0,08	burdin	0,04
biberoi	0,05	bizileku	0,01	burezur	0,05
biblia	0,01	bizirik	0,01	burla	0,1
bibote	0,27	bizitza	0,18	burmuin	0,06
bidaia	0,16	bizkar	1,68	burni	0,05
bidaiari	0,01	bizkarmuin	0,01	buru	4,16
bidali	0,01	bizkarrezur	0,3	burugogor	0,05
bide	0,16	bizkor	0,47	buruhandi	0,03
bideo	0,01	bizkortasun	0,05	burusoil	0,05
bideozinta	0,01	biztanle	0,01	burutsu	0,01
bidezidor	0,01	biztanleria	0,01	buruzagi	0,01
bigun	0,48	blusa	1,73	busti	0,29
bigundu	0,01	boa	0,03	butano	0,03
bihotz	1,36	bobo	0,03	buzoi	0,01
bihozbera	0,01	body	0,04	buztan	2,9
bihozgabe	0,01	bola	0,12	buztandun	0,08
bihurri	0,43	bolada	0,01	buztanluze	0,19
bikain	0,03	bolante	0,03	Costa Brava	0,01
biki	1,12	boleibol	0,01	Costa del Sol	0,01
bikini	0,23	boligrafo	0,13	dantza	0,03
bikoitz	0,01	bonba	0,04	dantzari	0,01
bikote	0,03	Bonbai	0,01	dastamen	0,18
bilatu	0,04	bonbila	0,53	dastatu	0,01
Bilbo	0,01	bonbona	0,01	deba	0,01
bildots	0,14	bordatu	0,01	defektu	0,01
bildu	0,04	borondatezko	0,01	defendatu	0,01
Bilintx	0,01	borragoma	0,05	defentsa	0,01
bilketa	0,01	borroka	0,73	deformatu	0,03
biloba	1,08	borrokalari	0,04	deiadar	0,03
biluzik	0,01	borrokaldi	0,01	deitu	0,01
bioleta	0,01	borrokatu	0,08	delfin	0,3
bira	0,04	bortitz	0,01	dena	0,06
biribil	2	boski	0,12	denbora	0,08
biribildu	0,05	bost	0,01	denboraldi	0,01
biribiltasun	0,01	bota	2,27	denborapasa	0,04
birigarro	0,12	botagale	0,01	denda	1,07
birika	0,88	botatzaile	0,01	dendari	0,09
birraitaita	0,01	boteretsu	0,01	dendrita	0,01
birraitona	2,43	botika	0,04	dentista	0,01
birramama	0,04	botin	0,17	derrigor	0,01
birramona	2,36	botoi	3,38	desadostasun	0,03
birus	0,03	boxeo	0,01	desberdin	0,03
bisera	0,23	boxeolari	0,04	desegoki	0,01
bisigu	0,04	brageta	0,4	desertu	0,14
bisitari	0,01	Britainia Haundia	0,01	desesperagarri	0,01
bisoi	0,01	broma	0,03	desfile	0,03
bisonte	0,08	bronkio	0,17	deshidratazio	0,03
bista	0,01	brontze	0,01	desintegratu	0,01
bitamina	0,01	brontzeakari	0,01	desiratu	0,01
bizar	0,4	brontzeatu	0,04	deskantsatu	0,01
bizardun	0,05	buelta	0,06	deskantsu	0,01
bizeps	0,06	bufalo	0,27	deskribatu	0,01
bizi	1	buila	0,03	desodorante	0,01

despistatu	0,03	egosgor	0,05	enara	0,08
detergente	0,01	egosi	0,01	enbor	0,16
Deustua	0,01	Eguberri	0,01	enbrioi	0,01
diadema	0,21	eguerdi	0,08	energia	0,56
diafisi	0,03	egun	1,66	enpresari	0,01
diamante	0,03	egunero	0,05	entrenatu	0,03
dibertigarri	0,05	egunkari	0,03	entrenatzaile	0,04
dibertitu	0,05	egunsenti	0,08	entsalada	0,03
dibertsio	0,04	egur	0,3	entxufe	0,03
dibortziatu	0,03	eguraldi	1,77	entzumen	0,27
dibortzio	0,01	egurats	0,03	entzun	0,04
dibujo	0,1	eguzki	12,89	epel	0,39
diesel	0,08	eguzkilore	0,08	epeldu	0,01
diferente	0,01	eguzkisistema	0,44	epeltasun	0,08
dilijentzia	0,04	eguzkitako	0,12	eper	0,13
dinosauru	0,18	eguzkitakobetaurreko	0,08	epifisi	0,03
dioxido	0,06	eguzkitsu	0,21	epika	0,03
diru	1,26	eguzkizale	0,01	epitelial	0,01
dirudun	0,09	ehiza	0,04	epotx	0,05
diruzale	0,04	ehiztari	0,04	era	0,04
disekatu	0,01	ehun	0,05	erabilgarri	0,01
distira	0,4	ehunzango	0,01	erabili	0,09
distiratsu	0,47	Eibar	0,03	eragin	0,01
ditare	0,01	ekain	0,04	erakusketa	0,01
doberman	0,01	ekaitz	0,19	erakusle	0,03
doblatu	0,06	ekarri	0,04	erakutsi	0,09
doktore	0,03	ekialde	0,1	eramaile	0,04
dokumentu	0,01	ekilore	0,03	eraman	0,14
dolar	0,01	ekintza	0,03	erantsi	0,01
dominstiku	0,23	ekitazio	0,03	erantzi	0,18
Donostia	0,13	eklipse	0,36	eraztun	0,25
dorre	0,01	ekologia	0,03	erbi	0,35
dortoka	0,27	ekologista	0,01	erdaldun	0,14
dotore	0,48	ekuatore	0,06	erdi	0,18
dotorezia	0,01	elastiko	0,22	erdialde	0,01
dragoi	0,04	elefante	2	erdiaro	0,01
droga	0,09	elektrikari	0,01	erdibitu	0,01
drogasaltzaile	0,01	elektriko	0,01	erdiko	0,1
drogazale	0,01	elektrizitate	0,3	erdizka	0,01
dromedario	0,05	Elgoibar	0,03	erle	0,45
dutxa	0,13	eliza	0,08	erliebe	0,01
dutxatu	0,06	elkar	0,01	erlijio	0,03
ebaki	0,04	elkartasun	0,1	erloju	0,45
ebanjelio	0,01	elkarte	0,01	erne	0,01
edalontzi	0,01	eltxo	0,01	ero	0,01
edan	0,19	elur	2,64	eroan	0,01
edari	0,1	elurbusti	0,03	erori	0,16
eder	2,48	elurtsu	0,03	erosi	0,44
ederki	0,06	emagaldu	0,01	erosketa	0,01
edertasun	0,22	emaile	0,05	erosle	0,06
edertu	0,01	emakume	0,36	eroso	0,01
edozer	0,01	emakumezko	0,03	erosotasun	0,01
eduki	0,38	eman	0,65	erraboila	0,04
egarri	0,34	emankor	0,01	erradio	0,03
egia	0,04	ematutu	0,08	errai	0,04
egile	0,01	emazte	0,38	errain	0,16
egin	0,97	emaztegai	0,06	errainu	0,01
egoki	0,03	eme	0,74	errape	0,01
egon	0,4	emendatu	0,01	erratz	0,01
egonezin	0,04	emozio	0,05	erraz	0,01

erre	1,42	eskupeko	0,01	Euskal Herria	0,04
errealdi	0,01	eskuzabal	0,12	euskara	0,01
errebolber	0,01	eskuzapi	0,03	eustakioren tronpa	0,01
erredura	0,1	esmokin	0,01	eutsi	0,01
erregai	0,01	esnatu	0,03	extralurtar	0,06
erregalatu	0,05	esne	0,12	ez	0,08
erregali	0,08	esnebidea	0,14	ezagun	0,22
erregarri	0,01	esofago	0,05	ezagutu	0,01
errege	0,06	Espainia	0,04	ezaugarri	0,01
erregela	0,03	espainiar	0,08	ezberdin	0,01
erregin	0,01	espartina	0,06	ezertarako	0,01
erreinu	0,01	espazial	0,01	ezezagun	0,13
erreka	0,21	espazio	0,53	ezin	0,1
errekuperatu	0,01	espaziuntzi	0,04	ezinegon	0,01
erremolatxa	0,01	esperantza	0,01	ezjakin	0,04
erren	0,04	esperimentu	0,01	ezkailu	0,05
Errenteria	0,01	esperma	0,05	ezker	0,06
errepikatu	0,01	esperma hodia	0,03	ezkondu	0,18
erretiratu	0,01	espermatozoide	0,16	ezkongabe	0,04
erretore	0,01	espezial	0,04	ezkongai	0,03
erretzaile	0,03	esplosio	0,01	ezkontza	0,06
errieta	0,05	esponja	0,01	ezkor	0,01
errinozero	0,44	estadio	0,01	ezkutatu	0,05
erroketa	0,01	estalgarri	0,01	ezkutu	0,01
Erromako zubia	0,47	estali	0,05	ezpain	1,57
erromantiko	0,03	estalki	0,01	ezpainetako barra	0,01
erronbo	0,06	estalpe	0,01	ezpain handi	0,03
errosario	0,01	esternoi	0,01	ezpain txiki	0,03
ertain	0,08	esternokleidomastoideo	0,05	ezpata	0,04
ertz	0,01	estetika	0,01	ezpatarrain	0,04
ertzain	0,04	estratosfera	0,04	ezproi	0,01
esaldi	0,01	estribo	0,05	eztabaida	0,04
esan	0,05	estropada	0,01	eztainu	0,01
esatari	0,01	estu	1,71	eztarri	0,3
eseri	0,09	estutasun	0,01	eztei	0,01
eserleku	0,13	estutu	0,03	ezten	0,01
esfera	0,03	etarra	0,01	ezti	0,03
esfortzu	0,01	etiketa	0,19	eztul	0,16
eskaiola	0,04	etorri	0,05	fabrika	0,14
eskalapoi	0,03	etsai	0,18	faisai	0,04
eskale	0,01	etxabere	0,08	falange	0,05
eskaparate	0,06	etxalde	0,01	falangeta	0,01
eskas	0,05	etxe	1,43	falangina	0,01
eskatu	0,03	etxeko	0,36	falopioren tronpa	0,08
eskeleto	0,09	etxekoandre	0,04	falta	0,06
eski	0,04	etxekoi	0,03	faltsu	0,01
eskiatu	0,03	etxekolan	0,01	famatu	0,01
eskola	0,35	etxelagun	0,03	familia	2,74
eskopeta	0,04	etzan	0,01	familiar	0,25
eskorpioi	0,03	eukalitu	0,01	familiarte	0,08
eskote	0,01	euli	0,56	faringe	0,31
esku	4,44	euri	3,65	faringitis	0,01
eskualde	0,01	eurijasa	0,01	faro	0,03
eskuila	0,01	euritako	0,08	farol	0,09
eskuin	0,05	eurite	0,03	fauna	0,01
eskularru	0,4	euritsu	0,03	fede	0,01
eskuluze	0,01	europa	0,04	felpa	0,03
eskumuin	0,01	euskaldun	0,26	femur	0,04
eskumutur	0,51	euskalfesta	0,01	fenomeno	0,01

feria	0,05	galgo	0,01	gene	0,01
ferra	0,52	galtza	5,95	gepardo	0,1
ferratoki	0,03	galtza bakero	2,66	gerezi	0,03
ferratu	0,01	galtzaile	0,06	gereziondo	0,03
ferratzaile	0,01	galtzamotz	2,56	gerizpe	0,03
festa	0,21	galtzarbe	0,01	gerlari	0,03
figura	0,03	galtzerdi	6,34	germen	0,01
filme	0,05	galtzontzilo	4,08	gernu	0,03
fin	0,36	gameto	0,01	gernu puxika	0,01
fitxa	0,01	ganadu	0,04	gero	0,01
flako	0,34	ganba	0,01	gerra	0,05
flora	0,01	ganbelu	0,08	gerra nuklear	0,01
flotagailu	0,04	ganora	0,01	gerri	0,61
fluoreszente	0,18	gar	0,06	gerriko	1,52
foka	0,16	garai	0,01	gertatu	0,01
foku	0,01	garaialdi	0,01	gertu	0,01
forma	0,17	garbi	1,78	geruza	0,04
formal	0,08	garbigailu	0,08	Getaria	0,04
forru	0,12	garbikari	0,01	gezur	0,08
fosforo	0,01	garbiketa	0,09	gezurretako	0,03
fotosintesi	0,1	garbitasun	0,08	gezurti	0,1
fraide	0,05	garbitu	0,62	gibel	0,55
frak	0,01	garbitzaile	0,01	gidari	0,03
franela	0,01	garden	0,01	gihar	0,16
frantses	0,01	garesti	0,52	gihartsu	0,01
frantzia	0,01	garezur	0,05	giltza	0,08
frantziar	0,01	gari	0,05	giltzatu	0,01
freskagarri	0,01	garo	0,01	giltzurrun	0,45
freskatu	0,01	garraiabide	0,09	gimnasia	0,1
fresko	0,06	garraio	0,08	giro	0,12
freskura	0,01	garrantzi	0,01	gizagajo	0,06
frontoi	0,01	garrantzitsu	0,04	gizaki	0,73
fruta	0,13	garrasi	0,03	gizakume	0,01
fuksia	0,06	garratz	0,03	gizarte	0,05
funtzio	0,01	garro	0,01	gizen	0,65
fusio	0,01	garun	0,03	gizon	2,03
futbol	0,31	gas	0,06	gizonezko	0,1
futbolari	0,05	gaseosa	0,01	gizongai	0,01
gabardina	0,38	gasolina	0,04	gladiolo	0,01
gabe	0,39	gatz	0,03	global	0,01
gabon	0,03	gau	0,64	globo	0,01
gai	0,01	gauerdi	0,01	globulu	0,03
gain	0,66	gauza	0,39	globulu gorri	0,08
gainera	0,01	gazi	0,03	globulu zuri	0,06
gaixo	0,1	gazta	0,03	gluteo	0,01
gaixorik	0,04	gaztaina	0,03	goardasol	0,08
gaixotasun	0,21	gaztainondo	0,09	goata	0,03
gaixotu	0,04	gazte	1,42	gogaikarri	0,03
gaizki	0,08	gaztelania	0,01	gogo	0,1
gaizkile	0,01	gaztelu	0,03	gogor	0,75
gaiztakeria	0,03	gaztetxe	0,01	gogortasun	0,03
gaizto	2,74	gehiago	0,08	gogortu	0,01
gako	0,07	gehiegi	0,04	goi	0,18
galant	0,03	gehien	0,05	goiadar	0,01
galapagoak	0,01	gela	0,08	goibeldu	0,03
galaxia	0,7	gelakide	0,01	goikalde	0,03
galdera	0,01	geldi	0,04	goiz	0,35
galdu	0,13	gelditu	0,01	goizalde	0,01
galeper	0,14	geldo	0,08	golf	0,01
galerna	0,01	geltoki	0,01	goma	0,38

goma bi	0,01	haitz	0,06	hegazkin	0,08
gomina	0,01	haitzulo	0,04	hegazti	0,21
gona	2,91	haize	1,57	hego	0,05
gona-eskoziar	0,01	haizeorratz	0,01	hegoalde	0,03
gona-galtza	0,08	haizetsu	0,01	hegoamerikar	0,01
gona-motz	0,12	haltz	0,01	hegohaize	0,06
gonazale	0,01	hamaka	0,05	heldu	0,06
goputzadar	0,01	Hamelingo xirularia	0,01	helikoptero	0,1
gorbata	0,45	hamster	0,31	hemengo	0,02
gorde	0,08	handi	14,48	hendaia	0,01
